ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2009ko azaroaren 2a > Astelehena > VII. urtea > 252. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net

"Azterketek esaten digute gaixoak etxean hobeto sendatzen direla"
**Julio Cesar Sandoval**
Medikua > 08



**G2a** **Palestinarekin puntako bakarlariak** > 29

**ARETXABALETA**
**Ikus-entzunezko komunikazio ikasketak herrira, 2011n** > 11

**ARRASATE**
**Urte berriarekin, haurreskola berria Musakola auzoan** > 14

**ELGETA**
**Jolastoki estalia egin gura du Udalak Patronatuan** > 20

**INGURUMENA** > JASANGARRITASUNA

## Emausen birzkilatze tailerra eta arropa denda, lanean

**INAUGURAZIOA** Zapatuan zabaldu zituzten ateak, Emauseko ordezkariaren eta alkatearen ekitaldiaren ostean

**LANPOSTUAK** Udaleko Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean Arrasateko bost lagun kontratatu dituzte lan egiteko

**BIRZIKLAPENA** Arropa saltzeaz gain, 'Sindesperdicio' izeneko marka sortu dute kartelak birziklatuta poltsak egiteko > 04

**EKONOMIA** > LAGUNTZAK

## Ibarreko udaletara 6,8 milioi

Madrilek partida hori adjudikatu du udalek hainbat proiektu abiarazi ditzaten > 06

## Inoiz baino parte-hartze handiagoa krosean

Antolatzaileek nahi zuten moduan, kros herrikoia egin zuten zapatuan Bergaran. Gainera, aurten inoiz baino parte-hartzaile gehiago ibili dira korrika: 504 irten ziren Soraluzeko plazatik.

Nazioarteko korrikalaririk gabe, herrikoia eta borrokatua izan zen lasterketa. Javier Galindo bilbotarra sartu zen lehenengo helmugara; eta, segundo bat atzetik sartu zen Eñaut Insausti. Neskatan Nerea Etxeberria izan zen azkarrena. Bergarar eta debagoiendar onenak Arkaitz Ruiz de Lozaga eta Itziar Aldekoa izan ziren. > 22-24



**HELMUGA** Javier Galindo bilbotarra Bergarako helmugara sartzen, sufrimendu aurpegiarekin. JOSETXO ARANTZABAL

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Ekonomia** > 06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Denbora-pasak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39

**SQUASH** > ARRASATE

## Schwarzek, Euskadiko txapela

Markus Schwarzek irabazi du Arrasaten jokatutako Euskadiko Squash Txapelketa > 21

**ARAMAIO** > JAIAK

## Jubilatuen Eguna, aldaketekin

Aramaioko erretiratuen egunean giro paregabea eta azoka handia egin duten arren, aurten baserritarrek ez dute esku hartu. Otsoaren arazoaren aurrean azoka boikoteatzea erabaki zuten baserritarrek. > 12

Iritsi dira urriko opariak! Badago zuretzat?

Zoaz 12. orrialdera








# Haur kantari onenak ikusteko sarrerak* opari. Nahi?

**ASTELEHENEKO GOIENKARIAren harpidedun bazara, deitu 943 08 10 50 zenbakira eta lortu sarrerak doan.**

## KULTUREN ARTEKO TOPAKETA

**Azaroaren 14an, larunbata. 12:00etan Arantzazuko Basilikan.**

Gaur egungo hiru Eskolania onenetakoen kontzertua:

> Easo Eskolania.
> Escorial Eskolania.
> Montserrat Eskolania.

Harpidedun egiteko:
943 08 10 50
*harpidetza@goiena.com*
**Kuota: 20 euro**

ASTELEHENEKO
Goienkaria
asteleheneán, aste bukaera osoa

* Pertsona bakoitzeko bi sarrera emango dira. Sarrerak agortu arte.

**ERLIJIOA** > DOMU SANTU EGUNA

# Errausketek gora egin dutenez, leku gehiago dago hilerrietan

**LURREAN** Ibarreko kanposantu gehienetan panteoiak, nitxoak eta lurpeko hilobiak daude; batzuetan kolunbarioak eta osarioak ere

**ITXITA** Gatzagako hilerrian giltza eskatu behar da sartzeko; Oñatikoa eta Bergarakoa, esaterako, egun osoz daude zabalik eta jendea paseatzera joaten da

**LEKUA** Lurpeko hilobiak beharren arabera husten dituzten arren, erraustutako gorpuek toki gutxiago behar dutenez, denbora luzeagoan uzten dituzte



Aste bukaeran, Eliza Katolikoaren Domu Santu Eguneko ospakizunen harira, lorez eta jendez bete dira kanposantuak. JOSETXO ARANZABAL

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Atzo, azaroaren 1ean, ospatu zuen Eliza Katolikoak Santu Guztien Eguna edo Domu Santu Eguna, hurbileko hildakoak gogoratzeko eguna, hain zuzen ere. Elizak bere santuak eta martiriak gogoratzeko hartu zuen azaroaren 1a eta hurbileko hildakoen oroimenerako azaroaren 2a. Baina bi jai egunak bakar bihurtu dira garaiek aurrera egin ahala.

Kanposantuak lorez eta jendez bete ziren atzo hildakoak gogoratzeko; baina urtean barrena horrela egoten ote dira gureko hilerriak? Nolakoak dira Debagoieneko kanposantuak?

Debagoienean kanposantu batzuetan lurrean baino ez daude hildakoak, Gatzagan eta Aramaion, kasurako. Antzuolan ere 20 panteoi daude, baina gainontzekoak lurperatuta; gauza bera Elgetan, zortzi panteoi pribatu daude eta besteak lur publikoetan daude. Beste kanposantuetan nitxoak ere badituzte eta baita kolunbarioak eta hezurtegiak ere.

**KANPOSANTUAK ZABALIK**

Herri batzuetan egun osoz egoten dira irekita hilerriak, baina badira ixten dituztenak ere. Antzuolan orain dela urte batzuk ate automatizatua ipini zuten eta ordutik 09:00etatik 20:00etara egoten da zabalik. Gatzagan, itxita izaten dute eta norbaitek joan nahi izanez gero, giltza eskatu behar du udaletxean. Oñatin, Aramaion edo Bergaran zabalik izaten dira kanposantuak eta hilerriko zaintzaileek esan digute, jendea joaten dela sarri: "Bada jendea parke bat balitz bezala paseorako toki moduan erabiltzen duena, eta egunero etortzen direnak ere badira", esan digu Bergara lurperatzaile Luisek.

Kanposantuek jendearen bisitak jaso ala ez mantenua behar dute eta horiei aurre egiteko zergak eta tasak ordaindu behar izaten dira. Antzuolan, zerga bakarra dago, 680 eurokoa hilerriko zerbitzu osorako; Elgetan lurperatzaileak kobratzen duena ordaindu behar da, 145 euro; Aretxabaletan, lurperatzeko eskubideaz gain, nitxoen edo kolunbarioen alokairua ordaindu behar da, azken hori 20 urterako izaten da eta kopurua 600 eurokoa da; Oñatin, bost nitxoko ilera, 75 urterako 6.000 eurotik gora ordaindu behar da eta badira bi familien artean erosten dituztenak.

**ERRAUSKETAK**

Kanposantu batzuetan premiaren arabera ateratzen dituzte gorpuzkinak, baina legeak dio 10 urte egon behar direla gutxienez. Epe hori luzatuz doa, errausketen ondorioz gero eta lurperatze gutxiago dagoelako, eta horrek leku arazoa arintzen duelako. Elgetan esan digute bost hildakotik bat lurperatzen dutela. Bergaran hildakoen %55, Arrasaten iaz %75, baina oro har denetan igarri dute toki gehiago dagoela batik bat Arrasaten erraustegia ipini zutenetik. Aretxabaletako Udaleko Jose Ramon Urrutiak esan digunez, " lehen Bilbora edo Gasteizera eraman behar izaten ziren gorpuak erraustera eta orain, gertu izanik, lurperatzeak eta errausteak parean daude".

**ALDAKETAK ETA BERRIKUNTZAK**

Kanposantuak toki ilunak dira askorendako, ekartzen dituzten oroitzapenak ere halakoak direlako. Baina Oñatin, esaterako, lurpean zeuden hildakoak atera eta belarra eta loreak landatu nahi dituzte aurki. Horrek, itxura berria emango dio hilerriari.

Arrasaten, Aldaiko kanposantua zegoen tokian parkea egiten dihardute eta aurki egongo da gertu.

Nitxo, kolunbario, lur azpiko hilobi, hilerriak lorez eta oroitzapenez beteta daude egunotan. Hildakoak betiko atsedenean eta ingurukoek hilerrian edo non nahi eurak gogotan.

## Hileta zibilak arautzeko bideak irekitzen dihardute Debagoienean

Maiatzean onartu zuen udalbatzarrak Eskoriatzan hileta edo omenaldi zibilak egiteko ordenantza. Hil ondorengo hileta edo omenaldi zibilak egiteko behar soziala erlijiorik gabe bizitzea aukeratu duten herritarrei zeremonia duina eta pertsonala eskaintzeko beharretik sortu zen, herritar horiek bizitza ulertzeko duten modua errespetatzeko. Eskoriatzako gizarte zibila osatzen duten familiek, adiskideek, erakundeek edo taldeek euren hildakoak omentzeko edo horiei azken agurra emateko egin nahi dituzten ekitaldiak baimentzeko arauak jasotzen ditu ordenantzak.

**ARRASATEN PROPOSAMENA**

Bestalde, Arrasaten, Alternatiba-Zutik eta Aralarrek araudi zirriborroa aurkeztu diote Udalari hileta zibiletarako baliabideak eskain ditzan. Lekuari dagokionez, bi eskaera egin dituzte: leku finko eta irekia, aterpearekin, esaterako, Aldaiko parkea; eta leku itxi finkoa, gaur egungo hilerria, adibidez.

Bergarako Udalean badihardute gaia aztertzen, baina oraingoz ez dute ezer zehaztu. Asmoa da leku bat izatea hileta zibiletarako eta behin lekua aurkituz gero, protokolo bat gertatzea.

### BESTE SINESMENAK

**> JEHOVAREN LEKUKOAK**

Heriotzaren ondoren ezer ez dagoela sinetsita ez dute Domu Santu Eguna Ospatzen Jehovaren Lekuko Kristauen Elizako kideek; gainera, hildakoen hurbilekoek maite zuten pertsona beti gogoratuko dutelako, ez dute horretarako egun berezirik.

**> MUSULMANAK**

Ramadanaren azken eguna da musulmanendako hildakoak gogoratzeko eguna. Senideekin elkartu eta hilobietara joaten dira. Ostiraletan ere emakumeak oso hurbilekoak zirenak bisitatzera joaten dira, eta eurek dute hilobiak zaintzeko ardura ere.

**> TAOISTAK**

Txinako taoistek apirilaren 5ean gogoratzen dituzte euren hildakoak. Neguan zikindutako hilobiak garbitu eta lore sortak eramaten dizkiete. Gainera, hildakoak gustukoen zituen janariekin betetako saskia ere eramaten du familia bakoitzak.

**INGURUMENA** > JASANGARRITASUNA

# Emausen bigarren eskuko arropa denda eta birziklatze tailerra, zabalik



Bigarren eskuko arropa ugari dute salgai astelehenetik zapatura bitartean Nafarroa etorbideko saltokian. JOSETXO ARANTZABAL




Goiko solairuan publizitate kartelak birziklatu eta *Sindesperdicio* markako boltsak egiteko tailerra dute. IKER BARANDIARAN

## Udaleko Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean, Arrasateko bost lagun kontratatu dituzte

## Arropaz gain, 'Sindesperdicio' izeneko marka sortu dute kartelak birziklatuta poltsak eginez

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Emaus Fundazioaren aspaldiko ametsa herenegun, zapatua, gauzatu zen. Arrasaten bigarren eskuko arropen denda eta testilen birziklapen tailerra zabaldu dituzte.

Fundazioko zuzendari Javier Pradinik azaldu zuen orain dela 15 urte hasi zirela Arrasateko Udalarekin harremanetan, Jose Mari Loiti alkate zenean. Baina orduko udalbatzak ez zuen ontzat ikusi; eta gerora gobernu aldaketek proiektua behin eta berriro atzeratu egin zuten.

Azkenean, zapatu honetan Arrasateko alkate Ino Galparsorok eta Pradinik denda eta tailerra inaguratu zituzten.

Hitzarmen bati esker, Udalak sei hilabetez Nafarroa etorbideko lokal bat utzi die, 20.400 euro jarri ditu soldata gastuetarako eta Arrasateko negozioko arduraduna kontratatu du.

**LANPOSTUAK SORTU**

Gainera, Emausek Udaleko Gizarte Zerbitzuarekin elkarlanean, bost langile kontratatu ditu dendan aritzeko eta testilak birziklatzeko tailerrean lan egiteko.

Ino Galparsorok aurkezpenean, premia gehien dutenei laguntzea eta birziklapena babesteaz gain, honako esaldiarekin borobildu zuen ekimena: "Zuen arrakasta gurea ere izango da; helburu berak ditugu".

Fundazioko zuzendari Javier Pradinik, berriz, azpimarratu zuen Udalaren laguntza barik egitasmo hori ez zela posible izango eta baikor agertu zen proiektuak izan dezakeen harreraren aurrean.

**BAIKOR DIRA EMAUSEN**

"Baikor gara Arrasateko proiektuarekin. Askotan esan digute Arrasaten bigarren eskuko produktuek ez dutela arrakasta izango, baina Donostian ere gauza bera esan ziguten, eta asko saltzen da", azaldu zuen Pradinik.

Eta, egia esanda, inaugurazio egunean jende asko batu zen jakin-minez, ikustera eta erostera: jertse, gona, prakak eta beste hiru eurotan; kamisetak, bi eurotan; jakak sei eurotan eta abar. Hori guztia edukiontzi txurietan jasotako generoa da, gero klasifikatutakoa; eta baita jendeak Emausera bertara eramandakoa. Horren harira, gura duenak egoera onean (ez hondatuta) dagoen arropa eraman dezakela jakinarazi zuten.

**'SINDESPERDICIO', ARRASATEKOA**

Deigarriena saltokia bada ere, Arrasateko Emausen *Sindesperdicio* izeneko marka sortu dute. Hala, publizitate kartel erraldoiak birziklatu eta horiekin emakume-poltsa, bidaitarako zorro eta bestelakoak egin eta merkaturatzen dituzte.

**AZPIEGITURAK** > AHT

# Jaurlaritzak 225 euro bideratuko ditu datorren urtean 'Euskal Y' proiekturako

## Ogasun sailburuak esan du lanak "pixka bat" atzeratuko direla; Garraio sailburuak, aldiz, dio obrak azkartuko direla

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Jaurlaritzak datorren urterako aurrekontu orokorra aurkeztu zuen joan den martitzenean. Ogasun sailburu Carlos Agirrek kontu publikoak 10.315 milioi eurokoak izango direla jakinarazteaz gain, ohartarazi zuen inbertsioek nabarmen egingo dutela behera datorren urtean, eta aurten baino 260 milioi gutxiago gastatuko dituela arlo horretan.

**"PIXKA BAT" ATZERATU**

Agirrek proiektu bat bera ere bertan behera ez dela geratuko aipatu bazuen ere, zenbait lan atzeratuko direla aipatu zuen; tartean, Abiadura Handiko Trena. Horren harira, onartu zuen proiektu horren lanak "pixka bat" atzeratuko direla. Datorren urtean, proiektu horretara bideratuko den diru kopurua ere jakinarazi zuen: 225 milioi.

**IKA-MIKA, JAURLARITZAN**

Agirreren adierazpenek ika-mika eragin dute Jaurlaritzan. Eguaztenean, Herri Lan eta Garraio sailburu Iñaki Arriolak eta Gasteizko Legebiltzarreko PSE-EE taldeko bozeramaile Jose Antonio Pastorrek Agirreren hitzekin ez zuten bat egin. Are gehiago, *Euskal Y*-aren lanak atzeratu baino, azkartuko direla nabarmendu zuten. Horren harira, biek ziurtatu zuten urtea amaitu baino lehen, bost zatitan lanak hasiko direla; eta 2010. urtea amaitu baino lehen, berriz, azpiegitura horretako beste zazpi zati eraikitzen hasiko direla.

**ERLIJIOA** > BOLUNTARIOEN BATZARRA

# Arantzazuko Adiskideek kanpaina berria dute abian

## Arantzazuko eraberritze prozesuan lagundu nahi du elkarteak

**M.B.**> OÑATI

Arantzazuko berrikuntza proiektuaren harira, Arantzazuko Adiskideak elkarteak batzarra egin zuen zapatu goizean Gandiaga Topagunean, elkarteko boluntarioei martxan jarri behar duten ekimenaren gaineko azalpenak emateko. Arantzazuk espiritualtasunaren, kulturaren eta naturaren elkargune izan nahi du eta hori dela eta, Arantzazu Gaur fundazioarekin batera, frantziskotarrek aurrera daramate inguru, eraikin eta santutegiko zerbitzuen eraberritze-prozesu sakona.

Arantzazuko Adiskideak elkateak horretan lagundu nahi du eta horretarako, martxoaren 8ra arte, hilero, 5 euroko kuota ordainduko duten 500 bazkide berri egiteko kanpaina jarri du abian. Helburu hori lortzen lagundu nahi dutenek 943 25 10 09 telefonora dei edo *adiskideak@arantzazu* posta elektronikara mezua bidali dezakete.



Arrasateko Udala da Aldundiarekin zor handiena daukana. GOIENKARIA

**EKONOMIA** > FORU OGASUNA

# Udalek hiru urte Aldundiari 9,3 milioiak bueltatzeko

Debagoienean 2009ko Udal Finantzaketa Foru Fondotik 38,6 milioi jaso zituzten udalek, eta %24 bueltatu egin behar dute

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Udalek finantza aldetik daukaten zama zertxobait arinduko da. Izan ere, Debagoieneko udalek hiru urte izango dute Foru Ogasunari bueltatzeko zor dizkioten 9,3 milioi euroak, 2009ko Udal Finantzaketa Foru Fondotik jaso zutenaren %24. Hainbat formula aztertu eta baztertu ondoren, Foru Aldundiak eta Gipuzkoako udalek edostu dute hiru urteko epea izatea udalek Udal Finantzaketa Foru Fondotik jasotakoaren laurdena bueltatzeko.

### Diru-zorra herriz herri

| | |
|---|---|
| Arrasate | 3,32 milioi euro |
| Antzuola | 0,32 milioi euro |
| Aretxabaleta | 0,98 milioi euro |
| Bergara | 2,22 milioi euro |
| Elgeta | 0,16 milioi euro |
| Eskoriatza | 0,60 milioi euro |
| Gatzaga | 0,05 milioi euro |
| Oñati | 1,62 milioi euro |
| Guztira | 9,27 milioi euro |

Iturria: www.gipuzkoa.net

**2013RA ARTEKO EPEA**

Krisiaren eraginez Ogasunaren zerga-batzea inoiz baino txikiagoa izaten dabil, eta Aldundiak udalei urte hasieran emandako dirua ez dator bat gaur egun Aldundiak dituen fondoekin. Hasieran, 2010eko otsailean ziren udalak diru hori bueltatzekoak, baina udalek ohartarazi zuten ezingo zutela horrenbesteko dirutza hain epe txikian bueltatu. Azkenean, 2011n, 2012an eta 2013an bueltatuko dute diru hori.

Debagoienaren kasuan, 2009ko Udal Finantzaketa Foru Fondoa 38,6 milioikoa izan zen. Hortaz zorra 9,3 milioikoa da. Bestalde, berritasun moduan, gastu korronteari aurre egiteko zailtasun handienak dituzten udalak zorpetu ahal izango dira.

etxeko leihotik



**Inazio Arregi** > 'zuzen@goiena.com'

# Aurrekontuak kirolez blai egongo dira

2010eko Aurrekontuen zirriborroa sarean dago bere orrietan barna ikerketa lanetan hasi nahi duenarentzat. Oso doituak eta zuhurrak omen...

Guztiok gehiago nahi izaten dugu gastuetarako. Etxean ere bai. Hala ere, ez dut uste doikuntza denik aurrekontu hauen ezaugarri nagusia. %1,6 jaitsiko dira gastuak 2009ko aurrekontuekiko. KPIaren bilakaera negatiboak esango digu zenbateraino doitu diren.

Zerga-bilketaren beherakadak zorpetzea ekarri du; %4,125 ordainduko den zor publikoa aldizkariek diotenez. Pagotxa banku eta inbertsorеentzat. Gure depositoengatik ordaindu ez, eta Jaurlaritzatik %4,125 jaso. Guztion dirutik noski.

**"Tranbiek ez dute diru asko jasoko, baina bai San Mamesek eta Anoetak"**

Dirua zertan gastatzen den begiratzea omen da garrantzitsua. Honezkero badakigu tren eta tranbiek ez dutela hainbeste diru jasoko, baina bai ordea San Mamesek, Buesa Arenak eta Anoetak, esaterako, kopuru garrantzitsuak jasoko dituztela.

Kirol profesionala bultzatzeko asmo horrekin jarraituaz, Hizkuntza Politikatik 360.000 euro emango zaizkio Euskal Herriko Itzuliari. Aurretik hitzartuta zeudela diote aurrekontuek. Horrela izan ala ez, ez dago zalantzarik kirol profesionala sustatzeko aurrekontuak ere izango direla aurtengoak.

**> Gipuzkoakoak**

**Gipuzkoakoak berriz, hazi egingo dira, nahiz eta oraindik ez dugun datu gehiegi ezagutzen. Diotenez euskara eta kultura izango dira galtzaile. %24ko jaitsiera baino ez dute izango. Kiroltasunez hartu behar.**

**> Jasangarritasuna**

***Garapen jasangarria* eta *Berrikuntza eta ezagutzaren gizartea* izango dira Gipuzkoako harribitxiak 2010ean. Egokiak iruditzen zaizkit, oinarri ekonomiko berriak sortzeko lehiaketan toki on bat hartzeko.**




ELA

## Linacisoro enpresako langile baten aurkako eraso fisikoa salatu dute

Industrias Linacisoroko langileak eta ELA sindikatuko hainbat ordezkari Bergarako epaitegian elkartu ziren urriaren 28an, langile baten aurkako eraso fisikoa salatzeko eta enpresaren itxieraren kontrako protesta egiteko. ELA sindikatutik esan digutenez, "enpresako nagusi Eric Linaciosorok langile bati eraso egin zion enpresako itxiera salatzeagatik".

Linacisoro enpresako jabeek martxoan erabaki zuten negozioa ixtea. Ordutik hona, langileen erdia baino gehiago kaleratu egin dute. Orain, konkurtso lege administratiboan daude eta gelditzen diren langile apurrak kaleratu egin nahi dituzte kalte-ordain txikienak ordainduta. ELA sindikatukoak ziur daude "enpresa hiltzen utzi dutela".

> IKUS-ENTZUNEKOAK

## Itzaltze analogikoak Euskaltelen bezeroei ez die eragingo

Aurki etorriko den itzaltze analogikoaren eraginez, antena kolektibo bidez jasotzen den telebista seinalea eten egingo da; ez, ordea, kable bidezko seinalea. Hortaz, telebista-seinalea Euskaltelen zuntz optikoaren sare bidez jasotzen duten EAEko etxeen %40an ez du eragingo eta Euskaltelen bezeroen telebistek orain arteko telebista kateak ematen jarraituko dute, telebista aparailua aldatu edo gailu berririk erosi beharrik gabe. Itzaltze analogikoa urriaren 31n hasi zen Arabako zenbait herritan eta datorren urteko apirilaren 3an amaituko da.

**EKONOMIA** > ESPAINIAKO GOBERNUTIK DIRULAGUNTZAK

# Debagoieneko udalek 6,8 milioi jasoko dituzte iraunkortasun proiektuetarako

Madrilek 6.832.384 euro adjudikatu ditu Debagoienerako eta Aramaiorako, bigarren Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Fondoan

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Debagoieneko udalek eta Aramaiok 6.832.384 euro jaso ahal izango dituzte denetara Espainiako Gobernuak onartu duen bigarren Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Fondotik. Orain, udalek hiru hilabeteko epea daukate diru hori jaso ahal izateko proiektu zehatzak prestatu eta Espainiako Gobernuari aurkezteko, hark onartu edo alboratu ditzan. Horrenbestez, lanak hasi ahal izango dira 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera.

Plan horrek baditu desberdintasunak indarrean jarraitzen duen lehenengo E-Planarekiko. Deigarriena da diru partida hori ekonomia, ingurumen eta jendarte iraunkortasun arloko proiektuetarako erabili beharko dela, eta ez hirigintza obretarako, oraingo E-Planean bezala. Gainera, udal bakoitzak jasoko duen diruaren %20 erabili ahal izango du hezkuntza eta gizarte zerbitzuek –bereziki mendekotasun egoeran dauden herritarrendako zerbitzuek– sortzen dituzten gastu korronteak finantzatzeko.

**JENDARTEA ETA INGURUMENA**

Hiru motatako proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte udalek: ekonomia iraunkortasun arloan, enpresendako, zientzia edo teknologiarako guneak; teknologia berritasun eta garapen azpiegiturak; telekomunikazio sareak hedatzeko edo helarazteko proiektuak, eta abar; ingurumen arloan, energia eta ur aurrezpen proiektuak; energia berriztagarrienak; hiri mugikortasun iraunkorra; edo gutxiago kutsatzen duten garraiobideenak; eta gizarte-iraunkortasun arloan, zerbitzu sozial, osasun, kultura edo kirol zentroen proiektuak; eta, esan bezala, gizarte zerbitzuen gastu korronteak finantzatzeko aukera.

Hala ere, 2.000 biztanle baino gutxiago dituzten herriek malgutasun handiagoa izango dute proiektu mota zehazteko.

Betiere, langabe gisa izena emandakoak kontratatu beharko dituzte.



E-Planeko lehenengo txandako obra batzuk, Bergarako Domingo Irala kalean. LEIRE KORTABARRIA

### Herririk herriko partidak

| | |
|---|---|
| **Antzuola** | 231.890 € |
| **Aramaio** | 160.972 € |
| **Aretxabaleta** | 718.481 € |
| **Arrasate** | 2.375.551 € |
| **Bergara** | 1.594.151 € |
| **Elgeta** | 113.513 € |
| **Eskoriatza** | 440.105 € |
| **Leintz Gatzaga** | 28.432 € |
| **Oñati** | 1.169.289 € |
| **GUZTIRA** | 6.832.384 € |

ITURRIA: ESPAINIAKO GOBERNUA

**ERREPIDEAK** > NEGUKO ZAINTZA

# Elurra kentzeko 10 makina ibiliko dira AP-1 autobidean

Deba eta Urola eskualdeetako errepide sarean 18 ekipo izango dira, Gipuzkoan gehien dituen bigarren gunea

GOIENKARIA > BERGARA

Eibar-Gasteiz autobidea guztiz zabalik dagoen lehenengo negua izango da datorrena, eta hori igarri da Foru Aldundiak atzo, domeka, indarrean jarri zuen neguko errepide-zaintza planean; izan ere, elurra kentzeko sei makina gehiago ibiliko dira aurten AP-1en. Iaz, lau ibili ziren.

Denetara, zazpi elurra kentzeko ekipo gehiago daude aurtengo neguko bide zaintza planean, eta denetara 62 ibiliko dira Gipuzkoako errepideetan.

AP-1eko Arrasatetik Eskoriatzarako zatia zabalik dagoenez aurten, elurra kentzeko hamar makina ibiliko dira datorren neguan. Horrez gain, AP-1en inguruan bi gatz biltegi izango dira, Bergarakoa eta berri bat Oxinalden; eta lau silo, bi berri Eskoriatzan eta lehengo biak Zaldumendin. Denetara, 1.200 tona gatz izango ditu.

Bide zaintza planak apirilera arte iraungo du.

**UROLA-DEBA GUNEA**

Aurtengo bide zaintza planean, ekipo gehien dituen bigarren zonaldea da Urola eta Deba arteko errepide sarea, Arlaban, Leintz Gatzaga, Kanpanzar eta Deskarga portuak dituena. Tramu horretan, 18 ekipo ibiliko dira elurra kentzen, modu honetara banatuta: Deskargan eta 2. mailako sarean, launa ekipo; Ormaiztegi-Eizagan, hiru; Arlabanen, bi; eta Leintz Gatzagan, Kanpanzarren, Elgetan eta Azkaraten, bana. Elorregin 2.100 tona gatz batzen dituen biltegia dago, eta hamar silo daude Urola-Deba eremu osoan banatuta.

Elurra kentzeko makina gehien Goierrik eta Tolosaldeak izango dituzte: 22, iaz baino bat gutxiago, eta 2.000 gatz tona Andoainen eta Beasainen. A-8 autobidean zortzi makina ibiliko dira eta 600 gatz tona izango dira; eta Bidasoan, Oarsoaldean eta Donostialdean, bost kamioi eta 100 tona gatz izango dituzte. Gipuzkoa osoan, 6.000 tona egongo dira biltegietan.

Iaz, 14 elur alerta egon ziren, eta 10.000 tona gatz erabili ziren.

> EKONOMIA

### Mikel Beitia Larrañaga oñatiarra da Natrako zuzendari operatibo orokor berria

Natra enpresak goi-zuzendaritza aldatu du: kontseilari delegatu kargua kendu eta bi zuzendari orokor izendatu ditu. Horietako bat Mikel Beitia Larrañaga oñatiarra da, zuzendari operatibo orokor berria. Negozio-unitate berri guztiak zuzenduko ditu, eta erosketen kudeaketa eta txokolatearen salmentak ere bai.

> EKONOMIA

### Mondragon Taldeko Ondoan enpresak Iberdrola Dorreko instalazio batzuk egingo ditu

Mondragon Taldeari atxikita dagoen Ondoan enpresak Iberdrola Dorreko eta beste eraikin oso esanguratsutako instalazioak egingo ditu; zehazki, dorre hartako instalazio elektromagnetikoak egingo ditu, Giroa, Etxea eta Insavarekin aldi baterako enpresa elkartea osatuta. 20 milioi euroko aurrekontua dute horretarako.

> EKONOMIA

### Erkideko bazkide langileek abantaila bereziak izango dituzte Euskadiko Kutxan, hipotekatan

Euskadiko Lan Elkarteen, Irakaskuntza eta Kreditu Kooperatiben Federazioko (Erkide) bazkide langileek finantza-abantaila bereziak jasoko dituzte Euskadiko Kutxatik, bi erakundeok egin duten hitzarmenaren bitartez. Abantaila nagusia da lehentasunezko baldintzak, bonifikazioarekin, ohiko etxebizitzarako hipotekatan.

auzorik auzo

**MURINONDO** > Bergarako kalea utzi, eta Osintxu aldera hartu bezain azkar eskuinera geratzen den auzoa da Murinondo. San Blas ermitaren inguruan batzen dira auzoko baserri gehienak.




San Blas ermitaren aurrealdean Juan Jose Gabilondo. A.E.

Juan Jose Gabilondo > Murinondoko auzo-alkatea

# "Bidea oso estua eta aldapatsua denez, zabaltzeko eskatu dugu dagoeneko"

**A.E.** > BERGARA

**Ziarreta baserrikoa da jaiotzez Juan Jose Gabilondo Murinondoko auzo-alkatea. Azkeneko urteetan bera dabil alkate lanetan. Auzo *lasaia* dela dio. Kezka handirik ez dute; bai, ordea, hainbat eskaera auzoa hobetze aldera.**

**Esan behar da, aspaldiko partez ume bat jaio dela auzoan.**

Bai, jende gaztea dago auzoan eta orain dela 15 egun ume bat jaio zen. Badira 10 urte ez zela umerik jaiotzen!

Gaur egun 60 pertsona inguru bizi gara Murinondon; lehen, 80 ere izan ginen. Behera doa populazioa, baina auzoa non dagoen ikusita ez dago hutsik geratzeko arriskurik.

**Auzo lasaia dela diozu, ez duzuela arazorik.**

Bai, aipatzeko moduko arazorik ez dago. Ura, argia... badauzkagu, eta telebista ere hala moduz, baina ikusten dugu.

**Baina, auzoa hobetze aldera, izango dituzue eskaerak. Zeintzuk dira horiek?**

Bai, eskatuko genuke, adibidez, goraino brea botatzea. Gaur egun San Blas ermitaraino bakarrik dago asfaltoa botata; hortik gora zementua dago. Hortaz, bidea txukuntzeko eskatuko nuke: goraino brea bota eta, gainera, bide ertzean arekak ateratzea. Bestalde, bideari dagokionez, zabaltzea eskatuko nuke. Oso bide estua da, bi auto pasatzeko xelebre ibili behar dugu; eta, dauden aldapak ikusita... Bidea zabaltzeko, baina, auzotarrek gure aldetik ere eman beharko dugu lur zatiren batzuk. Bideari dagozkion eskaerak Udaletxean eginda daude.

**Frontoia izatea ere gustatuko litzaizueke.**

Bai, kontuan hartu ez daukagula lekurik haurrak jolasean lasai ibiltzeko; ezta, aterperik eta aparkalekurik ere. Hortaz, frontoi bat egitea ondo etorriko litzaiguke.

**Lehen eskola zena, orain elkartea da. Noiz egin zenuten elkartea?**

1988an egin genuen elkartea; eta, esan behar da bizitasuna eman diola auzoari.

Eskola egin zuten 1952. urtean, neska eta mutilena; baina, 70eko hamarkadan eskola izateari utzi zion.

**Noiz ospatzen dituzue auzoko jaiak?**

San Blasak dira auzoko jaiak. Egubakoitzean auzo-afaria egiten dugu, eta 60 lagun inguru batzen gara. San Blas egunez, berriz, meza izaten dugu eta baita bedeinkapena ere. Buruñaoko Ama Birjinari edo San Blasi, katarroa senda diezaiela eskatu, edo kandelak eramatera... jende asko etortzen da. Ohitura dago etxean opilak egin eta bedeinkatzera ekartzeko.

Gainontzean, salda, luncha, herri kirolak... izaten ditugu. Ahalegintzen gara izena duten kirolariak ekartzen. Behin, esaterako, Perurena aita-semeak etorri ziren eta hain ondo pasa zuten, esker on bezala harrizko plaka bat ekarri zigutela.

OHITURAK

### Ermitaren arduraduna urtero aldatzen dute

San Blas ermitaren ardura urtero auzotar batek izaten du. Aspaldiko ohitura da Murinondo auzoan dutena. Santa Ageda egunez egiten dute aipatutako aldaketa: auzotarrak batu eta arduraduna aldatzen dute. Ermitaren ardura duen auzotarrak urtean bi aldiz zabaldu beharko ditu ermitako ateak: San Blas egunean eta irailaren 8an, Ama-Birjina egunean.

Gabilondok azaldu digu meza ez dutela domekero esaten; bakarrik goian aipatutako bi egun horietan. Ermitan dagoen Buruñaoko Ama Birjinaren irudia oso bitxia eta polita dela azaldu digu.

**GIZARTEA** > BIDEBERRI MANKOMUNITATEA

## Berdintasunerako Planaren harira bilerak egongo dira

Hilaren 9tik 11ra bitartean Leintz Gatzagan, Antzuolan eta Elgetan hausnarketa egingo dute

**MIRIAN BITERI** > ANTZUOLA

Antzuolak, Elgetak eta Leintz Gatzagak osatzen duten Bideberri Mankomunitateak joan den urtean martxan jarri zuen prozesuari jarraipena emanez, aurten Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Planaren diseinua egin du.

Asmo horrekin, Bideberri Mankomunitateak parte-hartzean oinarritutako prozesua zabalduko du, Elhuyar Aholkularitzaren laguntza teknikoarekin. Proiektu horren helburua da hiru herri horietako ordezkari politikoek, udaletako teknikariek eta herritarrek emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren inguruan hausnarketa egitea eta egungo egoera hobetzeko ekintzak proposatzea. Horretarako, herri bakoitzean lantalde bat osatuko da eta bakoitzak bi orduko hiru bilera egingo ditu. Beheko taulan agertzen da lehenengo bileren gaineko informazioa.

### Lehendabiziko batzarrak

**Azaroak 9, astelehena**
**18:00-20:00** Elgetako udaletxean.

**Azaroak 10, martitzena**
**18:00-20:00** Leintz Gatzagako udaletxean.

**Azaroak 11, eguaztena**
**18:00-20:00** Antzuolako udaletxean.

**TEKNOLOGIA BERRIAK** > INTERNET

## Mondragon Taldeak webgunea berritu du

Aurrerantzean, 'www.mondragon-corporation.com' klikatu beharko da

**M.B.** > ARRASATE

Webgunea berritu du Mondragon Taldeak. Horrekin, bizi garen garai aldakor hauetan, korporazioak Interneten duen plataforma egokitzea bilatu du; Web 2.0 aldiak ekarri dituen erremintez baliatu da taldea.

Webgune korporatiboaren helbidean bertan dator lehen aldaketa: aurrerantzean, *mondragon-corporation.com* izango da idatzi beharrekoa. Horretaz gain, eta itxura aldaketa agerikoaz aparte, arreta berezia jarri dute erabiltzaileengan, RSS harpidetzarekin. Hala, aukera eskaintzen du webgunetik bertatik zenbait sare sozialetan eragiteko, hala nola *Facebook*, *Twitter*, *del.icio.us*, *Linkedin*, *Digg* eta *Menéame*. Bloga ere txertatu du, erabiltzaileen iritziak-eta jasotzeko. Iradokizunik egin nahi duen guztiak irekita ditu ateak azken atal horretan.

**BOST HIZKUNTZATAN**

Itxurari dagokionez, bat dator korporazioaren irudi berriarekin, koloretan, letra tipoetan eta diseinuan. Webgune berriak tankera garbia du, erraza da nabigatzeko eta hiru albiste eskaintzen ditu beti azalean. Bost hizkuntzatan dator: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez eta alemanez, hain justu ere.




Webgune berriaren irudia. GOIENKARIA

Debagoieneko Ospitaleak etxeko ospitalizazio zerbitzua ematen dihardu 2008ko ekainetik. Horren bitartez, hainbat gaixo (gaixotasun iraunkorrak dituztenak) ospitalean izan beharrean, etxean artatzen dituzte. Arduradunen esanetan, baliabideak ia berberak dira eta emaitzak askotan hobeak dira, gaixoa etxean erosoago egoten delako.

**Julio Cesar Sandoval** > Debagoieneko Ospitaleko Etxeko Ospitalizazioaren arduraduna

# "Azterketek esaten digute gaixoak etxean hobeto sendatzen direla"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

**Tendentzia handia dago hainbat gaixo etxean artatzeko; ospitaleetan itxaron zerrendak ekiditeaz gain, gaixoak ia berdin artatzen dituzte, eta emaitzak oso onak dira.**

**Zeintzuk dira zerbitzu horrek ematen dituen abantailak?**

Egin ditugun azterketek erakutsi digute gaixoak etxean hobeto sendatzen direla. Hainbat dira abantailak: esaterako, ospitaletan birusak eta bestelakoak kutsatu ahal izaten dira, eta etxeetan ez. Horrez gain, desoreka psikologiko edo psikiatrikoak dituztenek etxean ez dute gauetan desorientazio arazorik izaten. Beste puntu garrantzitsu bat da gaixoa etxean askoz erosoago egoten dela eta intimitate handiagoa izaten duela: bere etxean, bere ohean, komun propioa...; are gehiago, ez dauka logela beste inorekin konpartitu beharrik. Abantailak asko dira.

**Eta zeintzuk dira etxean ospitalizatu ahal izateko baldintzak? Gaixo guztiak ezingo dira hala artatu, ezta?**

Lehenik eta behin, esan beharra dago aukerazkoa dela. Behin galdetuta, pazienteak berak erabakitzen du etxean egon gura duen edo ez; ez dugu inor derrigortzen, jakina. Hori esanda, ezinbestekoa da gaixoak familiako zaintzaile bat izatea; hau da, mediku eta erizainekin harreman zuzena izango duen pertsona bat izendatzea eta horrek, telefonoz ere, gaixoaren gaineko informazioa erraztea.

Horrez gain, ezinbestekoa da ez izatea edozein unetan txarrera egin dezakeen gaixotasun bat; gaixoaren egoerak iraunkorra izan beharko du, halabeharrez. Arazo psikiatriko larriak dituztenak ere ez ditugu etxean ospitalizatzen.

**Hortaz, mota askotako gaixotasunak artatu ditzakezue etxean, ezta?**

Bai, ugari dira. Adibidez, ebakuntza kirurjikoen ostekoak, mugitu ezinik bizpahiru astetan egotea eskatzen dutenak; min asko eragiten duten gaixotasun baskularrak; protesiak; eta ebakuntza ginekologikoak jasan dituztenak.

Horiez gain, oso ohikoa da baita ere etxean ospitalizatzea neumonia, azalean infekzioak, hanketan, esaterako, tronbosiak izan dituztenak eta beste. Baita arnasa hartzeko arazoak dituztenak eta, adibidez, negu partean hainbat alditan ospitalera eraman behar izaten dituztenak, diabetikoak, zirrotikoak eta beste.

Horiek guztiak artatzeko hainbat baliabide ditugu. Hala, aukera daukagu etxean bertan oxigenoa emateko, zain barnetik antibiotikoa jartzeko, baita sintron emateko eta beste. Ospitaletan dauden ia baliabide berak eramaten ditugu etxeetara.

**Hala, gaixoa ospitalizatu aurretik, diagnostiko zehatza egitean datza gakoa, ezta? Balorazio egokia egitean?**

Bai. Ez dugu edozein etxean ospitalizatzen. Horren aurretik, oso zehatz egiten dugu diagnostikoa. Gezurra badirudi ere, gaur egun ospitaletan ingresatuta dauden gaixoetako asko etxeetan egon zitezkeen lasai asko; baliabideak ia berberak dira.



Julio Cesar Sandoval Kulturaten eguenean, berbaldia eman aurretik. IKER BARANDIARAN

EROSOAGO

**"Gaixoa etxean askoz erosoago egoten da eta ospitalean ez daukan intimitatea lortzen du"**

DIAGNOSTIKOA

**"Etxean ospitalizatu aurretik, ziurtatzen dugu gaixoaren egoera iraunkorra dela"**

IBAR OSOAN

**"Debagoieneko udalerri eta baserri guztietan eskaintzen dute etxeko zerbitzu hori"**

**Askok lotuko dute etxeko ospitalizazioa fase terminalean dauden gaixoekin; eta horiek ere sartzen dira, ezta?**

Bai. Gaur egun ospitalizazioen %15a gaixo onkologikoak dira. Eta, batzuetan, oso kasu larriak izaten dira. Kasu horietan are eta tentu handiagoarekin lan egiten dugu. Gure helburuetako bat izan ohi da ahalik eta ondoen hiltzea, ahalik eta gutxien sufritu dezaten gaixoak eta senitartekoek.

**Gainera, fase horretako gaixoei bestelako zerbitzua ere eskaintzen diezue, ezta?**

Bai. Matia Fundazioarekin hitzarmen bat daukagu. Hala, horri esker, gaixoen familiari trataera berezia eskaintzen diogu. Hala nola, gaixoari mina eta nekea kentzeaz gain, familiari doluan, sufrimenduan eta min psikologikoan laguntzea. Horregatik, halakoetan, Matiak, psikologo kliniko bat jartzen du familiaren zerbitzura, gura badute.

**Zer azpiegitura daukazue etxean zerbitzu horiek guztiak emateko?**

Gaur egun lau sendagile eta bost erizain gabiltza zeregin horretan eta bi automobil ditugu. Erreminta eta botikei dagokienez, denetatik daukagu.

Ohikoan, eguneko bisita bat egiten diegu etxean dauden gaixoei; horrez gain, kasu batzuetan telefonoz jarraipena egiten diegu. Astelehenetik egubakoitzera bitartean, goizez eta arratsaldez ibiltzen gara: eta zapatu eta jai egun guztietan, goizez. Hala ere, jai egun baten arratsaldez edo gauez arazorik balego, larrialdietako zerbitzuarekin hitzarmen berezi bat daukagu. Ez hori bakarrik, larrialdietakoek gure gaixoen historiala, etengabe eguneratutakoa, ere badute, bat-batean zelan jokatu jakin dezaten.

**Eta zenbat gaixori ematen diezue zerbitzua?**

Urtean, 400-450 etxe-ospitalizazio egin izan ditugu. Eta tendentzia gorantz doa. Horiek, bataz beste, 10-11 egun egiten dituzte etxean ospitalizatuta. Ehuneko ehunean lan eginez gero, 16 bat gaixo artatu ditzakegu aldi berean. Ez da kopuru txikia, baina handitu gurako genuke.

Horrez gain, esan beharra dago gura duten guztiei eskaini gura diegula zerbitzua, herri barruan, auzoetan, baserrian edo edonon bizi badira ere.


ALDEKO AURREZKIA ALDEAN
Aurrezkiak Mahaian
Hartu aurrea eta prestatu jakirik goxoenak zeure aurrezkien interesaz. kutxak mahaian ipiniko dizu imajina dezakezun tresneriarik praktikoena eta modernoena. Aukeratu zeure interesa ohiko bulegoan, Telekutxa-ren 901 333 555 telefonora deituz, www. kutxa.net-en edo kutxaren kutxa-zainetan.
Zuk aukeratu zer eraman.
Laberako 2 azpil, 2 zartagin edo sukaldeko ontziteria ere eraman dezakezu. Aztertu baldintzak.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

## kale inkesta

# Segurtasunagatik Oñatiko kuartelaren ondoko igoera itxi egingo dute gauetan. Ze iritzi duzu?



**Iñigo Madina**
Langilea
Oñati

Egia esan niri ez zait gustatzen hortik igotzea; nahiago dut Cegasatik irtetea saihesbidera. Baina esan behar dut ez nagoela ados erabakiarekin. Utz dezatela eskaerak egiteari eta eurak joan daitezela hortik.



**Josefina Agirre**
Langilea
Oñati

Ez nekien horrelako erabakirik hartu dutenik. Hala ere, esan behar dut gaizki iruditzen zaidala. Euren segurtasunagatik herritarrok ez dugu zertan bueltaka ibili. Uste dut herritarrok gehiago merezi dugula.



**Luis Mari Aranburu**
Langilea
Oñati

Ez zait batere ondo iruditzen. Uste dut leku publiko bat dela eta ez luketela itxi behar. Guardia Zibilaren aldetik ulertzen dut eskaera egin izana, baina ez dut normala ikusten Udalak baimena eman izana.



**Aitziber Nafarrate**
Langilea
Oñati

Ez zait batere ondo iruditzen hartu duten erabakia. Orain arte bide hori zabalik egon bada zergatik itxi behar dute orain? Uste dut herritarrendako gogaikarria izan daitekeela autoarekin bueltaka ibiltzea.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

BERGARA
**> Bergaran autoa aparkatzeko nahikoa lan**

Ez da gaur goizeko arazoa, baina, atzo goizean irakurle batek deitu zigun beste behin Bergaran autoa aparkatzeko izaten dituen arazoen gainean kexaka. Ez da gainera asteburu lasaia izan Bergaran, "Soraluze Bergara lasterketak hankaz gora ipini duelako erabat herriko zirkulazioa" zioen herritarrak. Gaineratu zuen, halakorik ezean ere, ez duela beste inon ikusi kaleetako norabide zentzua astebururo aldatzea, Bergaran egiten duten moduan, eta badela ordua arazoari irtenbideak bilatzen hasteko.

OÑATI
**> Hirugarren adinekoendako jaia bertan behera**

Zapatu goizean Oñatiko Zubikoa Kiroldegiko 25. urteurrena dela-eta hirugarren adinekoendako jaia antolatu zuen kirol batzordeak. Asmoa zen, askotariko kirol ekintzak egitea hirugarren adinekoekin, baina, jenderik animatu ez zela-eta bertan behera gelditu ziren antolatutakoak. Kiroldegian bertan aurkitu genuen herritar batek zioen modua, "halakoetan oparirik edo luntxik ipini ezean, ez da inor azaltzen". Gu ere ados gaude herritarrarekin.

BERGARA
**> Pozik ibarrean skate guneak ipintzen dabiltzala-eta**

Bergarako gazte baten deia jaso genuen domeka goizean, skate gune berriaren inaugurazioa dela-eta: "bazen ordua, azkenean badugu herrian skatean egiteko gune bat".

## usteak uste

**Goiatz Arana**

# Autoa eta burukominak!

Bergaran kosta egiten da autoa uzteko tokia aurkitzea eta zapatuan are zailagoa izan zen, Soraluze-Bergara krosa zela-eta. Arratsaldean, Arrasaterako bidea hartzera nindoala, kroseko antolatzaileek bidea ixteko zinta jarri zidaten pare-parean, ia autoaren kapota gainean; lehen lasterkariak bazetozela eta...errepidera irten ezin; zain egon behar, ordu erdi inguruan. Garabiak autoa eraman zion lankide bati, enbarazu egiten zuen tokian uzteagatik. Eta beste bati ere, isuna; hark ere ez ei zuen leku onean laga. Horientzat ez zen hasierako amorruaren ondotik mezu pozgarririk iritsi, goizean arrasatear askori gertatu moduan.

Ordu erdi inguruko galera eta bi isun, beraz, egun bakar batean. Usteak uste, zapatu eta domekan lanean jardun dugun taldearentzat, errentagarritik gutxi izan du aste bukaerak, nagusi!

## zorroztailea



**Larraitz Ugarte**

# Brian Currin

"Brian Currin Euskal Herrian Eztabaida eta Bakea sustatzeko Nazioarteko Ekimeneko kideak ezker independentistari konfiantza emateko eskatu du ekimen 'zintzo' bat prestatu duelako bakea lortzeko. Atxiloketak izan arren, bide horretan jarraitzeko eskatu dio ezker abertzaleari".

Berria > 2009-10-29


Harian · Euskal Herria
Batasuna ekimen berriarekin guztiz engaiatuta dagoela dio Currinek

Brian Currin Hegoafrikako abokatua izan da aste honetako izen propioa eta ezin dut berak Euskal Herrira ekarritako esperientzia eta jakituria kaxoian gordeta utzi, zuekin konpartitu gabe.

Hasteko Euskal Herrian une erabakiorra bizitzen ari garela esan digu. Batek pentsa dezake goizero prentsa irakurrita une hau azken urteetako errutinaren jarraipen bat baino ez dela, baina Hegoafrikatik honaino etorri zaigu horixe esatera, une erabakiorrean gaudela! Une honen gakoa Batasunak aurrera eraman nahi duen ekimenean datzala diosku. Ekimen politiko honek sakontasuna daukala eta txalogarria dela gaineratu du. Ezker abertzalea legeztatzea eta biolentziarik eza beharrezkotzat jo ditu prozesu honek etorkizunik izan dezan. Konfidantza eskatu die alderdiei eta gainerakook informatuak egotea ezinbestekoa dela irakatsi digu. Ezker abertzalea estrategia politiko berri bat hartzen ari dela eta serio doala badakigu orain.

**"Gakoa Batasunak aurrera eraman nahi duen ekimena dela dio Currinek"**

**"Abokatuak ez ei du borondaterik ikusten Estatuan"**

Itxaropenaz hitz egin digu. Ezker abertzalearen baitan eta mugimendu independentistan eman behar den eztabaidaren zintzotasunak konfidantzan oinarritutako alientza berriak ekarriko dituela eta horrek noizbait herri hau beste eskenatoki batera eraman dezakeela esan du gainezka egin duen Kursaal batean.

Baina Estatuan ez ei dago borondaterik. Ez omen du ikusten, oraindik orain etekin gehiago ematen baitu gatazka egungo terminotan mantentzeak ekimen politiko berrietan konpromisoa hartu eta Euskal Herriarekin duen gatazka konpontzeak baino. Horrek estatu akordio bat eskatuko luke Britainia Handian egin zen bezala, baina Madrilen oraindik urrun daude holakorik egitetik. Nahiz eta zaila den jakitea ze egunetan argituko duen desberdin.

Panorama honekin, lagungarri suertatzen da munduan oso gogorrak ziren gatazka batzuk nola konpondu ziren edo konpontze bidean dauden ikustea. Kontsolamendu tristea edota itxaropena ezin galdua izango da, baina guk ere lortuko dugunaren sentsazio goxoaz utzi nau Currinek.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Miren Arregi, Arantzazu Ezkibel, Goiatz Arana **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak

**Arrasate** > 14 **Bergara** > 16 **Oñati** > 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
**Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20



**> ARRASATE**
Urte berriarekin, haurreskola berria zabalik egongo da Musakolan **> 14**



**> BERGARA**
Martokon aparkalekuak egiteko proiektua esleitu du Udalak **> 16**



**> ELGETA**
Eskolarendako jolastoki estalia egin gura du Udalak Patronatuan **> 20**

**HEZKUNTZA** > MONDRAGON UNIBERTSITATEA

# Ikus-Entzunezko Komunikazioa ikasketak Aretxabaletara, 2011rako

**ESPAZIO FALTA**
MUri txiki geratu zaio Eskoriatzan duen fakultatea

**LEKU-ALDATZEA**
Aretxabaletako Udala gertu, Tubos egondako eraikina lagatzeko



**XX. MENDE HASIERAKOA** Arkitektura eta industria interesa duten eraikinen zerrendetan sartuta dago. J. ARANTZABAL

**GOIATZ ARANA >** BERGARA

Datozen ikasturteetan aldaketa handiak egongo dira eskoletan, irakasle asko jubilatu egingo dira eta jende berria beharko da. Gizartean nahiko zabalduta dagoen mezua da hori eta irakasle ikasketetan matrikulazio kopurua handitzea ekarri du horrek. Ondorioz, txiki geratu da Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea eta lehen berdegunea zegoen tokian, pabiloi aurrefabrikatu batzuk daude orain. Egoera horrek toki faltan egon zitezkeela pentsatu arazi zion Aretxabaletako alkate Inaxio Garrori eta bilera egin zuen MUko errektore Josu Zabalarekin. Estu antzean zeudela baieztatu zion Zabalak eta, Aretxabaletan, eraikin bat uzteko gertu zeudela erantzun Garrok. Tokialdatzea posible izan dadin, alde biek lanean dihardute momentuotan.

**ARETXABALETAKO SARRERAN**

Tubos de Precision lantegia egondako eraikina da Aretxabaletako Udalak proposatzen duena, herrirako iparraldeko sarreran. Ortuzal sustatzailea da jabea, baina Udalari lagatzeko gertu dago –alde biak akordio batera ailegatu ziren– eta Udala, aldi berean, prest dago Huheziri uzteko. Eremu hori industrirako erabili da orain arte, baina kalifikazio aldaketa martxan dago: gaur zortzi egindako osoko bilkuran, aho batez onartu zuten, aurrerantzean, hezkuntzarako eta etxebizitzatarako izan dadila. Arau subsidiarioak aldatzeko hartutako erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera bidali dute eta bi hilabetez egongo da jendaurrean, proposamenak egiteko. Epe hori bukatuta, Diputaziora eta Eusko Jaurlaritzara jotzea izango da hurrengo urratsa. Hiru-na hilabeteko epea izango dute proposamena aztertzeko, baina Inaxio Garrok azaldu digu Aretxabaletako Udalak bere eskuetan dagoen dena egingo duela, erakunde publikoek gaia ahalik eta azkarren jorra dezaten. Oniritzia ematen dioten momentutik aurrera, lanak hasteko moduan izango dira.

Lagapena zein baldintzatan egingo den galdetuta, Garrok erantzun digu HUHEZIk eraikinari ematen dion erabileraren araberakoa izango dela: "Arazo barik erabili ahal izango du eraikina, eskolak ematen jarraitzen duen bitartean. Aretxabaletako Udalak ez dio dirurik eskatuko trukean, baina eraikinean egin beharreko egokitzapen lanak, hori bai, Huhezik ordaindu beharko ditu".

**HUHEZI, PROIEKTUA GARATZEN**

Aretxabaletako Udalak urrats administratiboak ematen dituen bitartean, Huhezi proiektua aurreratzen dabil; dituen beharren arabera, zer eta nola egin zehazten. Nekane Arratibel dekanoak argitu digu euren nahia dela, 2011-2012 ikasturtean, Ikus-Entzunezko Komunikazioa ikasketak Aretxabaletan eskaintzea. "Toki aldatzeak jende gehiago hartzeko aukera emango liguke –gaur egun, 140 pertsona ditugu ikasketa horiek egiten–, baita azpiegiturak, bitartekoak... indartzekoa ere" gaineratu du. Eta "bailara unibertsitate" kontzeptuari egin dio erreferentzia: "Bailarako hainbat herritan zabalduta dagoen unibertsitate bakarra izango da munduan eta hori ona da guretzat; herri arteko distantziak txikiak dira".

Huhezi pausoa emateko gogoz dago, eta Goiena bidelagun izan dadin nahi du: toki berrira, Goienarekin batera joatea proposatu dio Aretxabaletako Udalari. Eraikinak 2.700 metro koadro ditu, baina eremu osoak 20.000 baino gehiago, eta aukera dago egungo eraikinaren ondoan beste bat jasotzeko. Aretxabaletako Udalak ez dio, zentzu horretan, inolako eragozpenik ipini. Are gehiago, Inaxio Garro alkateak uste du irizpide onez egin duela Huhezik proposamena, unibertsitatearen alde teorikoa eta kooperatiba elkartearen alde praktikoa bata bestearen osagarri izango liratekeelako. "Onuragarria litzateke gure herriarendako: ekonomia suspertzen eta aberastasuna eta enplegua sortzen lagunduko liguke. Nik Aretxabaletan ikusten ditut Huhezi eta Goiena" adierazi du.

GOIENA, AUKERA EZBERDINAK AZTERTZEN

## Goienak erabaki du egoitza Markuletera eramateko eskaera egitea

Gaur egun, Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak Debagoieneko hiru herritan ditu bere bulegoak –Bergaran, Arrasaten eta Aretxabaletan– eta asmoa da eraikin bakar batean bateratzea guztiak. Huhezik egindako proposamenari dagokionez, Goienak begi onez ikusten du MUko komunikazio arloarekin batera Aretxabaletara joatea, baina hainbat puntu argitzeke daude oraindik eta, horregatik, serio ari da aztertzen Arrasateko Markuletera lekualdatzeko aukera: "Aretxabaletako eraikinaren lagapena zein baldintzatan egingo den eta prezioa zehazten ez diren bitartean, beste aukera batzuk aztertzen gabiltza. Aretxabaletara joateko aukeraren aldeko apustua egiteko gertu gaude, baina baldintzak argitu bitartean, beste apustu bat jokatu beharrean gaude. Gauzak horrela, uneotan, Errektore Kontseiluaren buruan dago Markuleten lokalak eskatzea", azaldu du Inazio Arregi Goienako zuzendari orokorrak.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Urriko irabazleak

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 20 euro

XABIER LETE IKUSTEKO SARRERAK
ELGETAKO espaloia KAFE ANTZOKIA
M. Angeles Arriolabengoa Unzueta (Aramaio)

KAMISETA
skunkfunk
Ramon Eraña Gallastegi (Aretxabaleta)

BERNARDO ATXAGAREN LIBURUA
PAMIELA argitaletxea
Iñaki Gantxegi Bergara (Bergara)

MP3 BAT
EROSKI
Marilu Orueta Biain (Oñati)

SARI NAGUSIA
IRAILA-AZAROA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



**AHTEC NETBOOK LUG NO11**
**Sistema eragilea:** Ubuntu Linux.
**Prozesadorea:** 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb).
**Memoria:** 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).
**Disko gogorra:** 120GB 5400RPM SATA.
**Pantaila:** 10" pantaila TFT WSVGA LED.
**Bermea:** Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea.
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik
LASKAR INFORMATIKA
- Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
- Informatika eta teknologia berrien produktuak.

Amillaga 32 • 943 76 59 60 (auto garbigailu ondoan)
**Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!**

**ARAMAIO** > JUBILATUEN EGUNA

# Aldaketekin, baina giro onean ospatu zuten Jubilatuen Eguna

Otsoaren arazoaren aurrean aurten baserritarrek ez dute ganadua jaitsi feriara; giro ederra egon bada ere, baserritarren falta igarri egin dute

**MIREN ARREGI** > ARAMAIO

Jubilatuen Eguna egun handia izan ohi da Aramaion, eta aurten ez da gutxiagorako izan, nahiz eta aurreko urteekin alderatuz izan diren aldaketak, eta ez onerako hain zuzen. Izan ere, otsoen erasoen arazoa dela-eta, Aramaioko baserritarrek bat egin dute UAGA sindikatuak eta Sergal abeltzainen kooperatibak Arabako ganadu azokak boikoteatzeko egin duten deialdiarekin. Hala, ganadurik ezean, herrian igarri egin dute.

Guztira zapatu goizeko ferian 45 bat postu ipini zituzten, horietatik 14 Aramaioko herritarrek; aramaioarrek ortuko produktu ekologikoak, eztia, perretxiko postuak eta artisau eran egindako bitxiak ipini zituzten, besteak beste. Halakoetan ohikoa den moduan, giroa alaitzeko trikitilariak, txistulari zein dantzariak aritu ziren kaleetan. Adin eta gustu guztietako jendeak hartu zuen parte jaian, baina, ezin ahaztu, jai egun horretako protagonistak: jubilatuak, alegia. Horiek bazkaria egin zuten feriaren ostean eta ondoren, urtero moduan, Benidormera bidaia bat zozketatu zuten erretiratuen artean. Hori, Aratz Aranak irabazi zuen.



Otsoen erasoen ondorioz hildako ardien argazkiekin. JOSETXO ARANTZABAL

**UDALA SINDIKATUEKIN BAT**

Duela hiru urte ekin zioten Aramaioko jubilatuen egunean ganadu postuak ipintzeari; aurten, baina, udalak bat egin du UAGA eta Sergal-en eskaerarekin eta hori horrela, ez da animaliarik egon azokan.

**ANTZUOLA** > EUSKARA OLINPIADAK

# Enpresetan euskara planak, kalean euskara olinpiadak

Goizper, Elay, Matzerreka eta udala bat eginik, enpresetako euskara planak herrian zabaltzeko helburuarekin

**M.A.** > ANTZUOLA

Euskara Olinpiadak egin zituzten egubakoitzean Antzuolan, enpresetako euskara planak kalean oihartzuna izan dezan helburuarekin. Izan ere, Goizper, Elay eta Matzerreka lantegiek 10 urtetik gora daramatzate euskara planekin lanean. Hiru horiei Antzuolako udala gehitu eta lauren artean egin zituzten euskara olinpiadak.

Lau enpresa eta erakunde eta lau talde, nor baino nor, euskararen alde. Txingak, eski jokoa eta beste egin zituzten, eta baita mus eta tortilla txapelketak ere.

Enpresetako euskara planen zabalkunde kanpaina martitzenean amaituko da, Xabi Paiak 19:00ean Olaran etxean emango duen hitzaldiarekin.



Antzuolako Zurrategi plazan euskara olinpiadak egin zituzten egubakoitzean. JOSETXO ARANTZABAL



Eguraldi ona lagun, jendetza batu zen Ferixalekuan. J. ARANTZABAL



Kale antzerkia izan da aurtengo berritasunetako bat. ARIZMENDI

**ARRASATE** > IKASTOLAREN EGUNA

# Ikastolaren Eguneko ekitaldiek arrakasta izan dute

Arizmendi Ikastolako Antzerki Taldeak Ferixalekutik kalera eraman du bere azken lana

**GOIATZ ARANA** > ARRASATE

Bariku iluntzean abiarazi zuten Arizmendikoek Ikastolaren Egunerako prestatutako egitaraua. 20:30ean Ferixalekutik aterata, hiru itzuli eman zituzten herrian barrena; zazpi kilometro, orotara. 55 pertsonek egin zuten korrika, herritar askoren animuek lagunduta.

Etxafleru jaurtiketarekin hasi zuten hurrengo eguna, urriko azkena; Argitxori ongietorria eman zioten, segidan; eta, hortik aurrera, tailer eta puzgarrietan murgildu ziren etxeko txikienak. Bien bitartean, Galizia, Extremadura, Andaluzia eta Euskal Herriko txosnetan bueltaka ibili ziren gurasoak, lurralde horietako produktuak dastatuz; eta, tartean, gune ezberdinetako ikasleen arteko herri kirolen finala jarraitu eta antzerkiaz gozatu zuten. Krosarekin batera, horixe izan da aurtengo berrikuntza nagusia: antzerkia.

**IJITOEN EGOERA SALATZEKO**

Guraso eta irakasleek osatutako Arizmendiko Antzerki Taldeak egin zuen emanaldia: Ferixalekuan bertan, lehenengo; eta Seber Altuben, gero. Jon Miranderen *Kama-goli* –maitasun kanta– oinarri hartuta, ijitoek bizi duten egoera salatu zuten.

Eguraldia lagun izan dute oraingo edizioan eta jende askok parte hartu du jaian.

**OÑATI** > IGERIKETA HERRI MARATOIA

# 15.000 metro, burmuin elbarritasuna dutenen alde

Ekimenarekin bat egindakoek igerian egin eta borondatea eman dute; Aspaceko Dordoka kirol elkartea laguntzera bideratuko da batutako dirua




11:30 inguruan izan zen mugimendu gehien. JOSETXO ARANTZABAL

**G.A.** > OÑATI

Oñatiko kiroldegiak 25 urte bete ditu aurten eta, urteurren horren aitzakian, zerbait berezia egin gura izan dute arduradunek. Hortik sortu zen Aspace barruan jaio den Dordoka kirol elkartea laguntzeko ekimena: burmuin elbarritasuna duten kirolariei laguntzeko igeriketa maratoia. Atzo, domeka, egin zuten.

66 pertsonak parte hartu zuten. Bainujantzia eta uretako txanoa hartu eta Zubikoara arteko bidea osatu zuten, igeri egiteko. Gutxienez 25 metro eta gehienera 250 egin zitzaketen, eta 15.000 egin zituzten, denen artean. Modu horretan, bat egin zuten burmuin elbarritasuna duten kirolariekin eta nork bere diru ekarpena ere egin zuen, Aspaceri eta Dordokari dituzten helburuak aurrera ateratzen laguntzeko. Kirol arloan ez ezik, medikuntzarenean ere gastu asko dituztela azaldu zigun Aspaceko kide Lukene Igartuak. Nahiz eta zenbat diru batu zuten jakin ez, gustura agertu zen ekimenak arrakasta izan zuela ikusirik, baina adierazi zuen egunerokoan ikusten diren hainbat detailek pentsarazten diotela gizartea ez dagoela oraindik ere nahikoa sentsibilizatuta.

"Oñatin egiten den lehen igeriketa herri maratoia izan da, baina espero dugu azkena ez izatea" esan zigun Xabier Infante Aloña Mendiko entrenatzaileak.



GOIENKARIA

**BERGARA** > SAN JOXEPE

## Gazteak eta nagusiak, batera

Bukatu da Bergarako San Joxepe Erretiratuen Elkartearen Kultura Hamabostaldia; atzo agurtu zuten, Zabala jatetxean egindako bazkari batekin. 101 lagun batu ziren jan, edan eta dantzan egitera.

Ohiturari jarraituz, Lehen Hezkuntzako ikasleak ere jarri dituzte lanean, ordea: herriaren gaineko historia eta kultura ezagutzen dituzten jakin asmoz, galderak bidali dizkiete eta sariak banatu dizkiete ariketak ondoen egindakoei. Dena ezin hobe joan da, erretiratuen esanetan.

**HEZKUNTZA** > MUSAKOLA HAURRESKOLA

# Urte berriarekin, haurreskola berria Musakola auzoan

0 eta 2 urte arteko haurrendako eskolak 2010eko urtarrilaren 11n zabalduko ditu ateak, gaur egungo Musakola eraikineko lehen solairuan

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Urte berriarekin haurreskola berria izango du Arrasate Herri Eskolak Musakola auzoan. Izan ere, 2009ko udan egin zituen Udalak Musakola eraikinean –irudian– bi unitate egokitzeko obrak. Eraikineko lehen solairuan egokitu dituzte aipatutako bi ikasgelak. Oraindik, baina, gune berria behar den moduan jartzea falta da eta 2010eko urtarrilaren 11ra arte itxaron beharko da inauguraziorako.



Irudian, Arrasate Herri Eskolaren Musakolako eraikina; lehen solairuan zabalduko dute Haurreskola. J.B.

**IZENEMATEA, GAURTIK ZABALIK**

Haurreskola berriak 0 eta 1 urte bitarteko eta 1 eta 2 urte arteko ikasgela bana egokitu dituzte. Horrez gain, erabilera anitzeko gela bat eta 21 haurrendako harrera gela bat ere jarri dute. Baina Arrasate Herri Eskolak jakinarazi duenez, ikasgelak "ekipamendurik gabe" daude oraindik. Bestalde, haurreskola zabaltzen denerako aparteko matrikulaziorako deia egin dute haurreskolak, Partzuergoak eta Udalak. Matrikulazioa gaur bertan zabaldu dute eta hilaren 13ra arte egongo da zabalik, honako bi leku hauetan: Kulturaten –11:00etatik 15:00etara– eta Bedoñabe Haurreskolan (San Andres auzoko eraikinean) –11:00etatik 13:00etara–.

**MATRIKULAZIOEN IGOERA DELA-ETA**

Haurreskola berria ipintzearen arrazoia da 2007ko urtarrilean eta maiatzean matrikulazio kopuruak gora egin zuela, eta horrek Bedoñabeko haurreskolan leku eskasia eragin zuen.

Hala, bi irtenbide bideratu zituen Udalak: Bedoñabeko zaintzailearen etxea haurreskola barruan sartzea; eta bestetik, Musakolako eraikinean haurreskola egiteko eskaera bideratu zuen euskal erakundeetara. Bada, Eusko Jaurlaritzak eskaera onartu zuen.

**GAZTE BULEGOA** > SARE SOZIALEN GAINEKO IKASTAROA

# "Ez dira arriskutsuak; erabileran dago gakoa, autoa hartzean bezala"

Joan den eguenean sare sozialen gaineko tailerra izan zen Kulturaten, Gazte bulegoaren eskutik

Parte-hartze baxua izan arren, saio "interesgarria eta emankorra" izan zela diote antolatzaileek

**J.B.** > ARRASATE

Gazte bulegoak hileko azken eguenetarako antolatu duen informatikaren gaineko ikastaroei eutsiz, Interneteko sare sozialen gaineko tailerra egin zuten joan den eguenean. Sarean hamaika badaude ere, ezagunenak izan zituzten aztergai batez ere: *Facebook*-a, *Tuenti*-a eta *Twiter*-a.

Jende gutxi agertu zen Kulturateko informatika gelan. Hala ere, Gazte bulegoko koordinatzaile eta ikastaroa gidatu zuen Patxi Gaztelumendik adierazi duenez, "dozena erdi bat lagun agertu baziren ere, oso saio interesgarria eta emankorra" izan zen. Izan ere, hainbat iritzi eta gogoeta plazaratu ziren: esaterako, Gazte Txokoetako eta ludoteketako begiraleak bertaratu ziren, eta sare sozialek gaztetxoenen aisia ordenagailuko pantailara mugatzeko arriskua bider-ka dezaketela planteatu zuten.

**'ERABILERAN DAGO GAKOA'**

Interneteko sare sozialek aurkezten dituzten arriskuen aurrean, honakoa adierazi zuen Gaztelumendik: "Sare sozialak ez dira arriskutsuak berez; erabileran dago gakoa, bizitzako beste aspektu batzuetan bezala: drogak hartzean, autoa hartzean... gertatzen den moduan".



Patxi Gaztelumendik zuzendu zuen eguenean sare sozialen gaineko ikastaroa. J.B.

GOMENDATZEN DIZUT SARIKETA

## Joan den eguaztenean Arrasate irratian egin zen zozketa, zuzenean



GAZTE BULEGOA

Joan den eguaztenean jakin genituen Gazte bulegoak bultzatzen duen Gomendatzen Dizut sariketako aurtengo irabazleak. Arrasate irratian egin zen, zuzenean, zozketa sariketan parte hartu dutenen artean. Sariak Arrasaten geratu dira; hauexek dira irabazleak: 12 eta 17 urte artekoen mailan Garazi Sagastak 300 euro eroan ditu –ondoko irudia aurkeztu zuen gomendioarekin batera– bidaia materialean edo ikus-entzunezko materialean gastatzeko; eta 18 eta 34 urte bitartekoen artean Saioa Iturbe izan da irabazlea. Iturbek, berriz, 500 euro eskuratuko ditu.

Opor ohikoenak amaitu dira; hala ere, *www.aizue.com* webgunea etengabe dabil gomendioak jasotzen.

> ERAKUSKETA

## 'Naturaren argazkilariak 2009', hilaren 6tik aurrera

Argazkilaritza gustuko duenak derrigorrezko zita izango du datorren azaroaren 6tik abenduaren 6ra. Izan ere, egubakoitz honetan erakusketa interesgarria zabalduko dute Kulturaten: *Naturaren argazkilariak 2009*. Hala, argazkilaritza zaleak ez du aitzakiarik izango erakusketa ez bisitatzeko, hilabete osoa izango du-eta Kulturatera gerturatzeko.

Erakusketak merezi du: natura ingurunean eginiko argazki paregabeez osatutako bilduma ikusgarria aurkituko du bisitariak Kulturateko klaustroan.

> ZINEMA

## Alejandro Amenabar zinemagilearen 'Agora' filma ikusgai gaur

Alejandro Amenabar zinemagile espainiar entzutetsuaren *Agora* filma izango da ikusgai gaur Amaia antzokian (20:30). Alejandrian kokatzen da istorioa, Kristo ondorengo 391.urtean. Alejandriako Hipatia du protagonista (Rachel Weisz) filmak, eta filosofian eta astronomian aditua izan zen emakume haren bizitza kontatzen du.

Amenabarren bosgarren filma da, eta ingeles hutsean filmatutako bigarrena. Orain arte zinemak kontatu ez duen Hipatiaren istorioak oso kritika onak jaso ditu.

**Maria Galindo** > Mujeres Creando talde feministaren sortzailea

# "Burokrazia berantiarrari esker gure gizarteetan emakumeak erailtzen dituzte"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

**Emakume Txokoak ekarrita, Arrasaten izango da eguenean, gaur egun borroka feministaren ikonoetako bat den Maria Galindo (La Paz, 1963). Mujeres Creando talde feministaren sortzaile, genero-indarkeriaren inguruan eztabaida "interesgarria" piztu gura du Galindok.**

**Genero-indarkeria da *Amazonas, mujeres indomables* dokumentalak hizpide duen gaia. Zein da dokumentalarekin sortu gura duzun eztabaida?**

Guk uste dugu genero-indarkeria mugimendu feministatik desjabetu egin dutela, bai Espainian zein Latinoamerikan. Hau guztia ondo pentsatutako estrategia baten emaitza izan da, eta estrategia horrek feminismoa desmobilizatu du, mugimenduak berak lortuak zituen estrategien aurka eginez. Bestalde, baina, genero-indarkeria feminismotik desjabetu eta poliziaren, gobernuen eta klase politikoaren eskuetan utzi dute.

Hala, hierarkian oinarritutako esku-hartzeak sortu dira, indarkeria egunero bizi duen emakumearen sentimenduendako erabat arrotzak direnak.

**Zein da, bada, feminismoak jasan duen desjabetze horrek eragin duen egoera?**

Genero-indarkeriari aurre egiteko, elkartzeko eta biktimei elkartasuna adierazteko genituen estrategiak erailak daude; estatu eta gobernuek erailak, hain zuzen.

Gainera, beste estrategia burokratiko baten aurrean ere bagaude, erabat alferrikakoa dena. Hortaz, *Amazonas, mujeres indomables*-en kritika bikoitza egiten dugu: gure jardunaren erailketa salatzea eta gaur egun indarrean dagoen eraginik gabeko burokraziarekiko desadostasuna azaltzea.

**Eta kritika hori egiteko emakume batzuen kasuak hartu zenituen abiapuntu.**

Hala da. Sistema judiziala ezbaian jarriz, modu eraginkorrean genero-indarkeriaren aurka egiten duten emakume batzuen esperientzia kontatzen da.



Euskal Herrian eta Estatuan hainbat geldialdi egingo ditu Maria Galindok, genero-indarkeria eztabaidagai hartuta. GOIENKARIA

**"Bat-bateko esku-hartze zuzena da, praktikan, genero-indarkeria ekiditen duena"**

**"Funtzionariorik ez: biktimak sentitzen duena ulertuko duen emakume baten babesa"**

**Modu eraginkorra?**

Lehenik eta behin, gizonaren indarkeriaren biktima izan den emakumea babestu behar da, haren egoera bertsuan, haren unibertso kultural eta ideologikoan bizi diren emakumeen eskutik. Ez funtzionariorik, ez gizarte-langilerik: biktimarekin enpatia prozesu bat izan ostean, biktimak dioena eta sentitzen duena ulertuko duen emakume batek emango dio babesa. Izan ere, genero-indarkeria jasan duen emakumea polizia, gizarte-langile, abokatu edo epailearen aurrean jartzen denean, askotan erabat arrotza zaion hizkuntza baten aurrean aurkitzen da. Hala, babestu behar duenak ez du ulertzen biktima zer ari den bizi izaten.

**Bat-bateko esku-hartze zuzenaren defendatzailea zara. Azal iezaguzu zer den.**

Genero-indarkeriak despolitizatze prozesua behar du. Biktimak ulertuko duten emakumeen beharra du, eta hala bermatuko da bat-bateko esku-hartzea. Genero-indarkeria urgentziazko gaia da, ezin da biharko utzi edo edozein formulario bete ostera arte itxaron.

Burokrazia berantiar horri esker, Espainiako eta Latinoamerikako gizarte guztietan emakumeen erailketak gabiltza bizi izaten. Esku-hartze zuzena eta bat-batekoa da praktikan genero-indarkeria kasuak ekiditen dituena. Eta noski, gure apustua.

**Despolitizatze-prozesua aipatu duzu. Zergatik uste duzu, bada, genero-indarkeria gai politikoa dela?**

Emakumeak indarkeria gainditu ezin duen irudia, bitartekarien –abokatu, polizia...– beharra duela... eta halako pentsaerek Estatuaren axolagabekeria arrazoitzen dute, eta haren nortasun patriarkala goretsi.

**Azaroaren 25ean izango da genero-indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna. Zein iritzi duzu egun horretaz?**

Erabat instituzionalizatuta dagoen eguna da. Ez dugu diskurtsorik behar, ekimen berriak errekuperatzea baizik.

## Aisia hotelean egonaldia, Gorka harakinari esker

Urtero egiten duen zozketari eutsiz –eta dagoeneko badira hamar urte, gutxienez–, Salaberria harategiko Gorka harakinak joan den astean egin zuen zozketa. Aurten aste bukaera bat zozketatu du, besteak beste talasoterapia zerbitzua duen Orioko Aisia hotelean. Irabazlea Dolores Montes izan da. Harakinak jakinarazi duenez, guztira 2.000 erosketa txartel inguruen artean aukeratu zen irabazlea. Zifra esanguratsu horretara hilabete bakarrean heldu da.



JOKIN BEREZIARTUA


Mendi magalari zatia jan eta irudiko horma atzera botata irabaziko den orubean egingo dituzte aparkalekuak. JOSETXO ARANTZABAL

**HIRIGINTZA** > AUZOAK

# Martokon aparkalekuak egiteko proiektua esleitu du Udalak

Martoko gainean egin nahi ditu, mendiari zatia janda; abendurako egongo da prest proiektua

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Martoko auzoko mugikortasuna hobetzeko asmoz, kalea zabalago egin eta aparkalekuak egokitzeko asmoa du Udalak. Horretarako, proiektu teknikoaren idazketa Xabier Yeregi arkitektoari esleitu berri diote 6.538 eurotan.

**APARKALEKU GEHIAGO**

Martoko gaina da zabalago egingo dutena, errepidearen kontra dagoen mendi magala janda, hain justu ere –gaur egun ortuak daude han–. Udal arduradunek azaldu dutenez, magalari eusten dion horma atzeratu eta han irabaziko duten gunean aparkalekuak egin nahi dituzte.

Agurne Barruso alkateak azaldu duenez, Plan Orokorrean jasota dago lur eremu horretan etxebizitzak egingo direla, baina adostasunera iritsi dira lurren jabeekin: "Oraingoz, ez dute etxerik eraikitzeko asmorik; horregatik, bien bitartean, aparkalekuak egingo ditugu, betiere euren aprobetxamendua galdu barik", azaldu du Barrusok. Alkateak gehitu duenez, abendurako egongo da proiektua idatzita eta orduan jakingo da, besteak beste, zenbat ibilgailurendako lekua egongo den.

Martoko eta Zubiaurre auzoetako gabezia nagusietako bat aparkalekuarena izanda, proiektu berri horrek arazoari irtenbidea emango dio, neurri baten, behintzat.

**KULTURA**

## Gaur da azken eguna film laburrak aurkezteko

Emaitzak hilaren 27an emango dituzte aditzera; eta sariak eman ere bai

**M.B.** > BERGARA

Gaur bukatuko da epea Udaleko Kultura Sailak antolatutako laugarren film laburren lehiaketara aurkezteko. Bergaran zein Debagoienean bizi den edozeinek har dezake parte, bakarka zein taldean. Hizkuntzari dagokionez, edozeinetan aurkeztu ahal izango dira lanak, baina euskara ez den hizkuntza bat erabiliz gero, euskarazko azpitituluak izan beharko ditu. Bestetik, ezin izango da parte-hartzaile bakoitzeko lan bat baino gehiago aurkeztu. Gaiaren kasuan librea da eta iraupenari dagokionez, 15 minututik beherakoa izan beharko du.

**SARIAK**

Lanak aurkeztuko dira kultura etxean. Erabakia azaroaren 27an emango dute aditzera eta sariak ere egun horretan banatuko dituzte. Bi sari egongo dira: lehenengoa, 400 eurokoa; eta bigarrena, 300 eurokoa.

## oharrak

KINTADA

**> 1930ean jaiotakoek bazkaria egingo dute Zumelagan**

Azaroaren 14an izango da eta hitzordua egin dute 14:00etarako Ibargarain, olibondoak dauden lorategian, talde argazkirako. Izena emateko deitu 943 76 26 23 edo 943 76 22 22 zenbakira.

KINTADA

**> 1935ean jaiotakoek bazkaria egingo dute Azpeitxin**

Azaroaren 22an egingo dute, 14:30ean. Izenematea da azaroaren 18a baino lehen, eta horretarako aurreratu behar dira 12 euro, Euskadiko Kutxan.

KINTADA

**> 1966an jaiotakoek afaria egingo dute Zumelagan**

Azaroaren 21ean egingo dute. Elkartzeko hitzordua egin dute 19:30erako, Ariznoa tabernan, eta afaria izango da 22:00etan. Izenematea da azaroaren 19ra arte, Ariznoan, eta aurreratu behar dira 10 euro.

KINTADA

**> 1943an jaiotakoek bazkaria egingo dute Azpeitxin**

Azaroaren 21ean egingo dute, 14:30ean. Izenematea da azaroaren 18ra arte, Comercio Zubietan (943 76 16 13) eta Tejidos Fernandezen (943 76 53 22).

KINTADA

**> 1933an jaiotakoek bazkaria egingo dute Azpeitxin**

Azaroaren 22an egingo dute. 12:30ean meza izango da, San Pedron. Izenematea da 6 euro, Intxorta tabernan.

KINTADA

**> 1967an jaiotakoek afaria egingo dute Tartufon**

Azaroaren 21ean egingo dute, 22:00etan. 19:00etarako egin dute hitzordua, Arrano eta Popi's tabernen aurrealdean. Izena emateko sartu behar dira 20 euro Euskadiko Kutxan: 3035 0009 19 0090084407.

KINTADA

**> 1959an jaiotakoek kinto afaria egingo dute**

Azaroaren 14an egingo dute, Tartufon. Hitzordua egin dute 20:00etarako, Fraiskozurin. Izena emateko azken eguna da azaroaren 10a. Horretarako, sartu behar dira 70 euro Kutxan: 2101 0070 81 0127058220.

> HEZKUNTZA

### Miguel Altunako ikastaroetan izena eman daiteke oraindik

Azaroaren 9an Automatismo Elektroteknikoak eta Bus EIB Muntaia Domotikoak izeneko ikastaroak hasiko dira Miguel Altuna institutuan, 18:00etan. Bada, oraindik ere izena emateko lekua dagoela jakinarazi dute insitututik.

Ikastarootan parte hartu nahi dutenek Miguel Altunara jo dezakete edo 943 76 70 49 telefono zenbakira deitu.

> LEHIAKETA

### Okela gisatu lehiaketan izena emateko aukera dago oraindik

Azaroaren 7an okela gisatu lehiaketa jokatuko da. Txapelketa herrikoia izango da, eta horregatik, herriko sukaldaritza-zale guztiek eta elkarte gastronomikoek har dezakete parte; ez, ordea, sukaldari profesionalek. Izena emateko aukera dago oraindik kultura etxera (943 77 91 59), Jon Leturia harategira (943 76 12 23) edo Pello Urzelai harategira (943 76 00 45) deituta.

> LEHIAKETA

### Herriko tabernendako II. pintxo lehiaketa deitu dute

Herriko taberna guztiek har dezakete parte, baina aurrez izena eman beharra dago azaroaren 8a baino lehen, Gure Ametsa elkartean edo 648 01 32 40 (Jesus) zenbakian. Parte-hartzaile bakoitzak pintxo bakarra aurkez dezake eta lehiaketa egunetan euro baten saldu beharko du. Lehiaketa egunak dira azaroaren 13tik 15era, biak barne. Sari ematea izango da azaroaren 17an.



**KULTURA** > DIRULAGUNTZAK

# Udalak 54.000 euroko laguntza emango die kultura elkarteei

Laguntza hori jasoko dute irabazi asmorik gabeko herriko 15 elkarte eta taldek; eta bi zatitan jasoko dute dirua

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Irabazi asmorik gabeko kultura talde eta elkarteendako 2009ko dirulaguntzak nola banatu erabaki du Udalak. Guztira, 54.000 euro banatuko ditu 15 talde eta elkarteren artean.

Dirulaguntzok bi zatitan ordainduko zaizkie taldeei: lehenengo %60 eta gero, gainontzeko %40a. Dirulaguntza 3.000 euro baino txikiagoa denean, laguntza onartu eta hilabeteko epean ordainduko du Udalak kopuruaren %60.

3.000 euro edo handiagoa denean, berriz, elkarte onuradunak hitzarmena sinatu beharko du Udalarekin eta horretarako dokumentazio hau aurkeztu behar du: batetik, Elkarteen Erregistroan inskribatuta dagoenaren ziurtagiria; bestetik, zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean daudela adierazten duten ziurtagiriak ere eta Udalarekiko ordainketetan egunean dagoela dioen agiria, hain zuzen ere.

Dokumentu horiek aurkeztu beharko dituzte eta hitzarmena sinatu, erabakiaren jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean. Ondoren, dirulaguntzaren %60 jasoko dute.

**GAINONTZEKO %40A**

Dirulaguntzaren beste zatia, %40, jasotzeko aurkeztu beharko dira ondorengo agiriak Udalean 2010eko urtarrilaren 15eko 13:00ak baino lehen: jarduera guztien zerrenda, programatutako jardueren dokumentazio grafikoa, izandako gastuen faktura originalak edo kopia konpultsatuak eta emaitza ekonomikoen memoria eta balantze errealak (laguntza 3.000 eurotik gorakoa denean bakarrik).

Laguntza horietatik kanpo geratu da Botanika taldea, ez delako kultura talde edo elkarte kontsideratzen.

## Diru-laguntzak elkarteei

| | |
|---|---|
| Abarka dantza elkartea | 2.100 |
| Alai Taldea | 1.409 |
| Aritzeta abesbatza | 5.850 |
| Beart | 2.300 |
| Erreileno eta tostoien kofradia | 1.495 |
| Bergarako Orfeoia | 10.170 |
| Bergarako Orkestra Sinfonikoa | 13.036 |
| Buztinzaleen elkartea | 832 |
| Gabero abesbatza | 1.885 |
| Musikara dantza taldea | 3.165 |
| Pol-Pol argazki taldea | 650 |
| Gure Ametsa elkartea | 3.200 |
| Surra irratizaleak | 1.049 |
| Taila eskola | 1.399 |
| Txuringo kultura elkartea | 5.460 |
| GUZTIRA | 54.000 |

ITURRIA: UDALA



Bergarako Orfeoia da laguntza jasoko duen taldeetako bat. GOIENKARIA

## Mariaren Lagundikoak suhiltzaileekin

Mariaren Lagundiko Lehen Hezkuntzako laugarren mailako ikasleak Zubillagako suhiltzaileen egoitza ezagutzera joan ziren urriaren 16an. Instalazioak ikusteaz gain, zer-nolako lana egiten duten ezagutzeko aukera ere izan zuten ikasleek.

Suari aurre nola egin behar zaion jakiteko bideoa ikusi eta gero, hainbat ariketa praktiko egin zituzten, hala nola mangera erabili, garabira igo, labirintoa zeharkatu eta gimnasioan ariketak egin.




MARIAREN LAGUNDIA

OGIZUN
koop. elk.
okindegia




Ibargarai 44-46 BERGARA 943 76 45 53
Ibargarai 17 behea BERGARA 943 76 21 37
Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI 943 78 24 13

2009ko abenduqren 31rako aurreikusita dagoen KPIa igoko dute 2010eko tasa eta zergetan

Ludoteka, zaborra, udako kirol kanpaina, gaztelekuko zerbitzu batzuk eta kiroldegiko txartela, igoera barik

**UDALA** > OSOKO BILKURA

# Ordenantza fiskal gehienak %0,8 igoko dituzte 2010ean

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Udaleko Gobernu taldeak 2010erako proposatutako ordenantza fiskalak onartu egin zituzten joan den eguneko osoko bilkuran. EAJ eta Hamaikabat alderdietako zinegotziek alde bozkatu zuten; Oñati Ezkerretik koaliziokoek kontra; eta alderdi popularreko zinegotzia abstenitu egin zen.

2010. urterako onartutako ordenantza fiskal gehienek %0,8ko igoera izango dute; hau da, 2009ko abenduaren 31rako aurreikusita dagoen KPIa. "Igoera txikia da, baina aplikatu beharrekoa krisian gauden arren sarrerak behar ditugu-eta", esan zuen alkateak. Dena den, badaude tasa batzuk igoerarik izango ez dutenak; besteak beste, zaborrarenak, udako kirol kanpainarenak, ludotekarenak, gaztelekuko zerbitzu batzuenak, kiroldegiko txartelarenak eta lur azpiko parkingarenak.

**TELEFONIA MUGIKORREKO TASA**

Uraren eta estolderiaren kasuan Gipuzkoako Ur Kontsortzioak erabaki beharko du igoera (Udalak iaz utzi zuen uraren kudeaketa integrala haren esku), baina iaz onartutako hobariak (bonifikazioak) mantendu egingo dituztela esan zuten osokoan.

2010eko ordenantza fiskaletan telefonia mugikorreko operadoreei kobratuko dieten tasa berria onartu zuten. Bide publikoaren okupazioagatik 22.000 euro inguru jasoko ditu Udalak. "Orain arte telefonia finkoko operadoreek ordaintzen zuten, baina Auzitegi Gorenak Badalonako Udalaren alde hartutako erabakia ezagututa, tasa berria kobratzea erabaki dugu", esan zuen alkateak. Gaineratu zuen eremu publikoa okupatzen duten kutxazainei –Kutxakoa eta Guipuzcoano banketxekoa– ez dietela tasa berezirik kobratuko.

**PP ETA OÑATI EZKERRETIK**

PPko zinegotziak ondo baloratu zuen ordenantza fiskalen igoera txikia izatea eta telefonia mugikorreko tasa kobratzea, baina abstenitu egin zen. Oñati Ezkerretik koalizioak, aldiz, krisiaren eraginez tasak mantendu egin beharko liratekeela esan zuen eta kontra bozkatu zuten.




JOKIN ASTIGARRAGA

## 'Begi bistan' erakusketako argazkiak banatu dituzte

Ilunpetan argazki taldeak sanmigeletarako antolatutako *Begi bistan* argazki erakusketako lanak banatu zituzten joan den astean. Erakusketa ikusgai egon zen bitartean plazako kutxan izen-abizenak eta telefonoa sartu zituztenen artean egin zuten zozketa. Jesus Intza, Haizea Igartua, Ainhoa Gonzalez, Iñaki Arregi, Itziar Zumalde, Iker Alberdi, Beatriz Etxaniz, Maialen Romaratezabala, Soledad Azkarreta, Mikel Tatiegi eta Inazio Zumalde izan dira irabazleak.

Martitzenen bildu ziren guztiak kultura etxeko erakusketa gelan, euren argazkiak jasotzeko.

Ilunpetan argazki taldeko kideak egon ziren argazkiak banatzen, eta oso gustura zeuden erakusketak izandako erantzunarekin eta parte-hartzaile kopuruarekin.

Bigarren aldiz antolatu dute *Begi bistan* argazki erakusketa. Plazako arkupeetan jarri zituzten ikusgai 11 argazki.

Aloña Mendi elkarteko mendi taldeak aseguru aldaketak edo aseguru berriak egingo ditu Atzeko kaleko egoitzan

**KIROLA** > FEDERATU TXARTELA

# 2010eko mendi aseguruko aldaketak hilaren 11 baino lehen

**M.B.** > OÑATI

2010. urterako mendi aseguruaren tramitazioarekin hasi da Aloña Mendi elkarteko mendi taldea. Hilaren 11ra arte egongo dira Atzeko kaleko egoitzan; hain zuzen ere, hilaren 4an, 5ean, 10ean eta 11n, 19:30etik 21:00etara. Internet bidez ere egin daitezke aldaketak *alonamendi.mendi@gmail.com* helbidean.

Hurrengo urteari begira mendiko aseguruaren estalduran aldaketaren bat egin, aseguru berria egin edo baja eman gura duten guztiek pasatu beharko dute Aloña Mendiren egoitzatik.

Era berean, nork bere datuetan aldaketaren bat egin gura duenak mendi sailekoekin egon beharko du egun horietan.

**ASEGURUAK URTE HASIERARAKO**

Aldaketak orain egin arren, federatu txartelak urte hasieran banatuko dituzte. Bestalde, 2010eko aseguruaren kuotak azaroko bigarren edo hirugarren astean kobratuko dituzte.

> ETXEBIZITZAK

## Eguaztenean egingo dute San Martingo etxe tasatuen zozketa

San Martin auzoko 20. zenbakian egiten diharduten 12 etxebizitza tasatuen zozketa eguaztenean egingo dute, kiroldegiko pilotalekuan 18:00etan. 50 bat lagunek eman dute izena. Etxebiden lau urteko antzinatasuna dutenen artean bi etxe zozketatuko dituzte eta gainerakoak, kupo orokorrean.

**ARETXABALETA** > KULTURA

# Ikus-entzunezkoak, zinea, musika eta haur ekimenak izango ditugu azaroan

Arkupeko egitarauaren harira, Lur Korta ipuin kontalaria, Xabier Iturrararanen margoen erakusketa eta zinea egongo dira datozen egunotan

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA

Aretxabaletako kultura eskaintza labetik irten berri da egunotan eta ohikoa den moduan, aretxabaletarrek denetarik izango dute aukeran: erakusketa, haurrendako ikuskizunak, ikus-entzunezkoak, musika eta zinea, hain justu ere.

Azaroaren 7an, zapatua, haurrendako ikuskizuna egongo da. Lur Kortak *Aurorita beti polita* aurkeztuko die herriko liburutegian, 11:00etan, 4 eta 8 urte bitarteko umeei. Aurorita maleta batekin doan pertsonaia alaia eta mugitua da. Maletan dituen elementuez lagunduta kontatzen ditu ipuinak; Txorien kolorea, Kristina printzesa, Masai eta baita asmakizunak ere.

Azaroaren 21ean, berriz, ordu eta toki berean, Patata Tropikalaren *Bi azeri estu eta larri* izango dute neska-mutikoek gertu.



Azaroaren 10ean, familia giroan bizikletaz bidaiatzeko esperientziaren gaineko ikus-entzunezkoa dago. WWW.BIZIBIDAIA.NET

**XABIER ITURRARANEN MARGOAK**

Gaurtik azaroaren 30era, bestalde, Xabier Iturraranen margoak ikusi ahalko dituzte honako ordutegian Arkupeko erakusketa aretora joaten direnek: astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta zapatuetan, goizeko ordutegian bakarrik.

Ikus-entzunezkoak ere ez dira faltako. Azaroaren 10ean, *Ipar Gazi-Hego Geza* hasiko da Zaraia aretoan, 19:30ean. Aipatutako ikus-entzunezkoak hurbiletik ezagutaraziko digu familia giroan bizikletaz bidaiatzeko esperientzia. Rhin, Danubio, Isar, Elbe, edo Iparraldeko Itsasoa bezalako gune naturalak; eta Strasbourg, Munich, Linz, Viena, Hamburgo, Amsterdam edo Paris hiriak zeharkatzen ditu. Aldi berean, bizikletaren mugikortasunaren inguruan Europan dauden hainbat ereduen gaineko hausnarketa egingo da, eta umeekin bizikletaz bidaiatzeko hainbat trikimailu eskainiko dira.

Azaroaren 25erako, sendabelarren gaineko bigarren ikus-entzunezkoa gertatu du Kultura sailak. Biak dohainik dira. Bestalde, egun bat lehenago, azaroak 24, Leizarra musika eskolako tronpeta emanaldia izango da.

**EGUNOTAKO ZINEA**

Zineak ere ez du huts egingo. Zineklubaren harira, eguenean, hilak 5, *Como los demas* filma ikusteko aukera egongo da, 19:30ean, lau euroren truke. Zine komertzialari dagokionez, azaroaren 6tik 9ra bitartean, *Asalto al tren Pelham* filma emango dute. Egubakoitzean eta zapatuan, 22:00etan; domekan, 19:30ean, 19:30ean; eta astelehenean, 16:00etan.

Bestalde, azaroaren 8an, *Hannah Montana* ospetsua izango dute gertu umeek, 17:00etan. Sarrerak hiru eurotan salduko dira. Honako filmak egunotakoak dira; bada, azaroko aste bukaera guztietan egongo da zinea.

---

**ESKORIATZA** > AISIALDIA

## Asteon ikastaroa eta gaueko argazki irteera daude

Herriko Fokatze-puntua argazki taldeak lehen Axtroki zena gertatu ditu

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Eskoriatzako Fokatze-puntua argazki taldeak hainbat ekimen gertatu ditu asteon. Etzi, eguaztena, herriko kultura etxera joaten direnek argazkiak nola sailkatu behar diren ikasiko dutela azaldu digu talde horretako kide Joseba Gabilondok. Ikastaro hori 18:00etan hasiko da.

Egubakoitzean, hilak 7, berriz, argazki irteera egingo dute. Horrelako ekimen bat egunean zehar egitera ohituta gaude. Bada, egubakoitzean, Eskoriatzan egingo dena gauez izango da. Iluntasuna aprobetxatuz, herriko irudi ederrak ateratzen saiatuko dira ekimen horretan parte hartzen dutenek. Bi hitzordu egin dituzte horren harira; lehena, 20:30ean, argazkiak egiten hasi aurretik, mokadutxoa jateko; eta 22:00etan bigarrena, zuzenean irudiak ateratzen joateko. Plazan elkartzeko deia egin du bietan.

**FOKATZE-PUNTUA IZENA**

Bestalde, Gabilondok jakinarazi du argazki taldeak izena aldatu behar izan duela. Hasieran, Axtroki izena jarri zioten taldeari. Izen hori, baina, beste talde batek erregistratuta du eta hortaz, Fokatze-puntuagatik ordezkatu dute aurrekoa.

Ekainean sortu zenetik, zenbait ekimen gertatu ditu argazki taldeak. Arizmendi ikastolak antolatutako Ferixiaren harira, esaterako, Eskoriatzako I. Argazki Rallya egin zuen ekainaren 6an. Ondoren, lehiaketara aurkeztutako lanekin erakusketa jarri zuten herriko bost tabernatan.



OLAZAR ERRETIRATUEN ELKARTEA

**Eskoriatzako erretiratuak primeran ibili dira Andorran**

Eskoriatzako erretiratuak ez dira geldi egoten diren horietakoak. Ikastaroak eta hitzaldiak ez direnean, bazkariak, egun bateko irteerak edo bidaia paregabeak egiten dituzte. Azken horren harira, urriaren 5etik eta 10era bitartean, Andorrara egin zuten bidaia. Jakinarazi digute primeran pasa zutela eta eguraldi on lagun zutela, txango interesgarriak egin zituztela. Goiko argazkian, Andorrara joandako 54 erretiratu eskoriatzarrak ageri dira.



Domingo Iturbe Patronatuaren eraikina egoera txarrean dago; badira 14 urte bertan eskolarik ematen ez dela. L.Z.

**ELGETA** > PATRONATUA

# Eskolarendako jolastoki estalia egin gura du Udalak Patronatuan

Alkateak espero du eskolaren eta gurasoen urteetako eskaera horretan Gotzaindegia oztopo ez izatea

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Aurreko astean herritarrei aurkeztutako Birgaitze planaren aldaketa proposamenak argi uzten du egungo udal gobernuak guztiz baztertuta daukala Domingo Iturbe patronatuaren eraikinean mendi museoa egitea. "Pentsatzen dugu mendi museoa baino leku horretan hobeto dela eskolako umeendako jolastoki estalia, aparkaleku bat, eta gazteendako erabilera anitzeko gelak egitea", adierazi zuen Oxel Erostarbe alkateak eguenean Goiena telebistako *Goiena Magazinea*-n egindako elkarrizketa batean.

Gurasoen eta eskolaren urteetako eskaera dela adierazi du Erostarbek, eta jakinarazi du proiektua hainbat erakundetara aurkeztu dutela finantziazio bila. Berez, Gipuzkoako Foru Aldunditik dagoeneko baieztatu dute 43.000 euroko dirulaguntza emango dutela egitasmo horretarako. "Pausoak ematen gabiltza beti ere pentsatuz Gotzaindegia ez dela eragozpen izango eraikin hori herrira etortzeko", argitu du alkateak.

Zentzu horretan eraikinaren jabe den Domingo Iturbe patronatuko kide Juan Cruz Juaristi parrokoarekin dagoeneko bi edo hiru bilera egin izana ere onartu du Erostarbek. "Prest egongo ginateke eraikina eta ingurua behar den moduan ipintzeko, beti ere haren jabetza herrira pasatzen bada".

**SEGURTASUN NEURRIAK**

Eraikina egoera txarrean dago eta alkateak esan du hirigintza teknikoa eraikinaren gaineko azterketa egiten ari dela. "Besteak beste eraikinaren jabeari esateko zelan dagoen, eta zein neurri hartu behar dituen aurreko astean gertatutakoa berriz ez gertatzeko".

**NEGOZIAZIOETAN**

Bere egunean Elgetako parroko Juan Cruz Juaristik, bere aldetik konfirmatu egin zuen negoziazio horiek martxan daudela. "Udala eraikinean interesatuta dago", adierazi zuen, "eta harremanetan gaude. Eskatzen diogu akordio batera iritsi bitartean inguru horretan segurtasun neurriak har ditzan", esan zuen.

**LEINTZ GATZAGA** > GAZTEAK

# Pilota eskolak hasi dituzte ostera herrian

Arrasateko Mauri Zubillaga etortzen da eskolak ematera martitzen eta eguenetan

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Zortzi mutilek osatu dute taldetxoa eta pilotan jokatzen hasi dira berriro herrian. 12 eta 16 urte artean dituzte eta martitzen eta egunetan entrenatzen dute (20:15-22:00) Mauri Zubillaga entrenatzailearekin: "Arrasateko entrenamenduak bukatutakoan etortzen naiz eta ez daukat asti handirik, baina gatzagarrek eskatuz gero ezin esan ezetz", dio. Azken urteotan Jose Inazio Belokik egin ditu entrenatzaile lanak, baina iaz ezin izan zuen eta ez zen talderik sortu.

Teknika erakutsiko die Zubillagak eta pilotan egingo dute gero. Oraingoz ez dute helbururik, txapelketetara joateko "goiztxo" delako entrenatzailearen esanetan.



Gatzagako pilotariek jokatutako azkenekotako txapelketa. M.A.

**ANTZUOLA**

# Lau autotan lapurreta izan zen eguenean

Soinu aparatuak ostu dituzte Beheko auzoan aparkatutako ibilgailuetan

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Urriaren 29an, eguenean, goizaldean lapurretak izan ziren Antzuolan. Beheko auzoan aparkatuta zeuden lau autotan sartu ziren lapurrak. Autoetako leihoak apurtu eta barruan sartuta soinu aparatuak ostu zituzten lauretan. Hortaz, kalte materialak bertsuak izan ziren lau ibilgailuetan.

Ertzainak bertaratu zirenean ustez lapurrek soinu aparatuak euren tokitik ateratzeko erabili zuten bihurkina aurkitu zuten lurrean. Oraingoz ez dago atxiloturik, baina ikerketa zabalik dago eta Bergarako ertzain-etxean lau salaketa jaso dituzte.

Otsailean, Buztinzuri eta Aiherrako garajeetan sartu ziren lapurrak eta urtean barrena hainbat tabernetan izan da lapurreta saiakerarik.

**ARAMAIO**

# Hala Bedik 'parrillada' egingo du hilaren 7an

Hala Bedi tabernan egingo dute festa programa berriak aurkezteko

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Hala Bedi Irratiak programa berriak prestatu ditu ikasturte honetarako. Honako hauek, hain justu ere: *Kamar Sutra, Ez hemen ez inon, Femmes* eta *La voz del inmigrante*. Horiek guztiak aurkezteko *parrillada* egingo dute zapatuan Hala Bedi tabernan, Gasteizen.

12:00etan txistorra eta broketa jana egingo dute. 12:00etatik 14:00etara, gainera, zuzeneko emisioa egingo dute. Ondoren, bazkaria egongo da eta 19:30ean kontzertua, This is the Basque Country taldearekin. Hala Bedi irratia FMko 107.4an entzun daiteke Aramaion. Programazio berriaren gaineko informazio guztia *www.halabedi.org* webgunean aurkituko duzue.

# Kirola



**> KROSA**
Soraluze-Bergara lasterketan inoiz baino korrikalari gehiago **> 22-24**



**> FUTBOLA**
Beasainek Aretxabaleta mendean hartu zuen (0-4) Ibarra zelaian **> 25**



**> SASKIBALOIA**
Cafes Aitona taldeak erraz garaitu zuen MU (52-78) Iturripen **> 26**

**SQUASHA** > ARRASATE

# Markus Schwarzek irabazi du Euskadiko Txapelketa Absolutua

## FINAL GOGORRA

Erritmo gogorra jarri zuen Alberto Ferreiro azpi-txapeldunak

**GOIATZ ARANA** > ARRASATE

Bikain joan da Euskadiko Squash Txapelketa Absolutua; balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. Arrasateko Musakolako kiroldegian jokatu da, bariku eta zapatuan. 58 lagunek parte hartu dute eta 60 partidutik gora jokatu dituzte, orotara. Euskadiko squash jokalari onenak lehiatu dira eta, senior mailan, Markus Schwarzek jantzi du txapela.

Alemaniako selekzioan ibilitako jokalariak 3-0 menderatu zuen Alberto Ferreiro, finalean. Eibartarrak finalaurreko gogorra jokatu zuen eta nekatuta ailegatu zen finalera. Hala ere, eta emaitzak bestela pentsarazten duen arren, Schwarzek duen guztia eman behar izan zuen garaipena erdiesteko; gogorra izan zen azken partidua: "Hasieran, lortu dut Ferreirori atzean eutsi eta aurrean eraso egitea, baina ez da batere erraza izan; erritmo biziko partidua izan da", azaldu zigun Schwarzek. Azken hilabeteetan gogor entrenatu izanaren emaitza da lortu duena, baina ibilbidea ez da hor bukatzen: abenduan Durangon jokatuko den masterrean ere txapela lortzen saiatuko dela aurreratu digu.

**19 ETA 15 URTEZ AZPIKOAK**

Senior mailan ez ezik, beste bi kategoriatan ere jokatu da txapelketa. 19 urtez azpikoetan, Arrasatekoak ziren jokalari denak eta maila bertsuko jokoa egin zuten guztiek. Igor Hernandez izan zen txapelduna; eta Igor Elorza, azpi-txapelduna. 15 urtez azpikoetan, Ander Okina (AKE) eta Eibarko Samuel Trigo ailegatu ziren finalera. Partidu parekatua izan zen, eta Okina nagusitu zen, azkenean.

**INDARRA HARTZEN**

Apurka-apurka indarra hartzen ari bada ere, squasha ez da oraindik ere oso kirol ezaguna. Asteburu honetan bertan, zale talde bat batu da Musakolan, baina jendetzarik ez. Giro ona dagoela agerian geratu da, hori bai, eta, zentzu horretan, pozik agertu da AKE Squasheko Iñaki Uribeetxeberria. Eta horrekin batera, bazuen gustura egoteko beste arrazoirik: "Arrasateko Udalak bi kantxa berritu ditu eta, horri esker, jokatzeko baldintzak lehen baino hobeak dira orain. Jokalariek eskertu dute".



**TALDE ARGAZKIA** Sari banaketa ekitaldia amaituta, txapelketan esku hartutakoek talde argazkia atera zuten. GOIATZ ARANA

ESANAK

**"Pozik nago eta lanerako, gogoz: txapelaren bila joango naiz abenduan Durangon jokatuko den masterrean ere"**

**Markus Schwarz** > Txapelduna

**"Ohorea da guretzat Markus Schwarz Euskal Herrian egotea. Izugarrizko maila dauka eta lan bikaina ari da egiten"**

**Iñaki Uribeetxeberria** > AKE




**APARTA** Markus Schwarzek sekulako maila duela erakutsi du aste bukaeran, Arrasaten. J. ARANTZABAL



Korrikalariak Soraluzera joateko autobusa hartzen. A.E.



Osintxun lasterketa burua. Ezkerretik hasita: Migel Angel Encina, Mikel Pradera, Javier Galindo e

Javier Galindo bilbotarrak irabazi zuen proba sengundo bakarreko aldearekin

Neskatan Nerea Etxeberria azpeitiarra izan zen azkarrena

Inoizko parte-hartze handiena eta herrikoiena izan zen zapatukoa

**ATLETISMOA** > SORALUZE-BERGARA KROSA, OLATZ REMENTERIA MEMORIALA

# Herrikoia eta borrokatu

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Aurreikuspenak bete egin ziren zapatuko Soraluze-Bergara krosean. Inoiz baino korrikalari gehiago atera ziren Soraluzeko plazatik –504–; eta, modu horretan, antolatzaileek gura zuten kutsu herrikoia hartu zuen lasterketak. Nazioarteko parte-hartzaile barik, lasterketa oso borrokatua izan zen. Bergarako Fraiskozuriko helmugara Bilboko Javier Galindo iritsi zen lehenengo –33:18–; eta, segundo bakarrera sartu zen Eñaut Insausti ordiziarra. Esan behar da, Galindok ederto sufritu behar izan zuela lehenengo postua eskuratzeko.

**8. KILOMETROAN EGIN ZUEN IHES**

Iaz bezala, aurten ere Soraluzeko plazatik abiatu zen lasterketa. Hainbat parte-hartzailek amaieran adierazi bezala, hasierako puntu hori izan zen zailena askorendako; bai jende kopuruagatik eta baita aldapagatik ere. 20 laguneko taldea iritsi zen lasterketa buruan Osintxura. Zapatuan bero handia egin zuenez lasterkariek gogotsu hartu zuten seigarren kilometroan jarritako jan-edanak.

Galindok 8,5. kilometroan egin zuen ihes. "Azkeneko kilometroak oso gogorrak egin zaizkit", azaldu zuen lasterketa amaieran. Bergarara metro batzuetako aldearekin iritsi zen Galindo; eta, kosta arren, tartea mantentzea lortu zuen helmugara sartu arte. Hirugarren postuan sartu zen Cipri Burcio legazpiarra –33:44–.

**EMAKUMEZKOAK**

Nerea Etxeberria azpeitiarra izan zen lehenengo emakumea Bergarako helmugan –41:00– . Azpeitiarrak abenduan jokatuko den Gasteizko maratoi erdia egin gura du eta Bergarara entrenatzera etorri zen: "Lehenengo aldia da lasterketa honetan parte hartzen dudana; hasieran gogorra egin zait, baina esan behar da oso ibil-

ATLETEN ESANAK



**Nerea Etxeberria**
Azpeitia

"Gasteizko maratoi erdia egiteko asmoarekin nabil, eta gaurkoa entrenamendu saioa izan da. Lehenengo aldia da natorrela, eta oso gustura ibili naiz".



**Javier Galindo**
Bilbao

"Lehenengo aldia da Soraluze-Bergara krosean parte hartzen dudana. Denboraldia hasi berri dut eta zer moduz nagoen ikustera etorri naiz".



**Joseba Zabaleta**
Oñati

"Bigarren aldiz parte hartu dut. Azkeneko momentuan erabaki dut Behobia lasterketa egitea, eta entrenatzera etorri naiz. Zailena hasierako aldapa egin zait".



**Olatz Manuel**
Bergara

"Bero asko egin du eta azkeneko kilometroan larri ibili naiz. Ibilbidea ezaguna da eta polita da, baina, esan bezala, okerrena egin duen beroa izan da".



**Unai Elortza**
Oñati

"Lagun koadrilarekin etorri naiz eta poliki-poliki oso gustura egin dugu ibilbidea. Datorren asteko Behobiara begira entrenamendu moduan balio izan dit".



eta Eñaut Insausti. JOSETXO ARANTZABAL



Lehenengo hiru mutilak eta hiru neskak. A.E.



Amaieran, indarrak berreskuratzen. A.E.

# ua izan da aurtengo edizioa

bide polita dela eta giroa aparta izan dela".

Etxeberriaren atzetik Maitane Txueka sartu zen –42.20– eta hirugarren postuan Gema Hernandez –44:40–.

**SARI-BANAKETA**
Antolatzaileek arazoak izan zituzten sailkapena ateratzerako orduan, eta esan behar da uste baino gehiago itxaron behar izan zuela jendeak. Hala ere, zapatukoa lasterketa herrikoia zenez, eta opariak guztientzat zeudenez, jendea ez zen mugitu pilotaleku aurretik.

Maila bakoitzeko onenek saria eroan zuten; eta baita taldeek ere. Mutiletan Goierri, Txumis&Tximus eta Los Matos izan ziren hiru talde onenak; eta, neskatan Bagoiaztan, Arrasatekoak eta Antxintxikalariak. Bestalde, lehenengo debagoiendarrak eta bergarararrak izan ziren: Arkaitz Ruiz de Loizaga eta Itziar Aldekoa.

AIPATZEKOAK

**> 97 NESKA-MUTIKO BERGARAN EGINDAKO LASTERKETETAN**
Nagusien krosa hasi aurretik, 16:00etan hasita gaztetxoen lasterketak egin zituzten. 97 neska-mutikok hartu zuten parte lasterketetan; eta, bergarakoez gain, inguruko herrietakoak ere izan ziren.

**> SAHARA MARATOIA**
Sahararen aldeko lagun talde batek 2010eko otsailean jokatuko den Saharako maratoian parte hartzeko gonbita egin zuen zapatuan. Eurak aurten izan dira maratoian; baina, datorren urteari begira 100 laguneko taldea batu gura dute. Maratoiaz gain, 20, 10 eta 5 kilometro lasterketak ere egiten dira, euren berbetan, edozeinek parte hartzeko modukoak. Interesa duenak *blogak.com/saharamarathon* helbidean izango du informazio gehiago.

**> BABESLEEI ESKERRAK**
Antxintxika Triatloi taldeak Servimasari eman zion Antxintxika taldeak aurten Hondarribian irabazitako Emakumezkoen Euskadiko Triatloi txapelketako oroigarria; eta, Soraluze Danobatek jaso zuen Beasainen mutilek irabazitako Euskadiko mendi duatloiko txapelketako oroigarria. Euren babesa eskertzeko modua izan zen.




Gaztetxoen mailako lasterketaren hasira. JOSETXO ARANTZABAL



Jon Ander Madina oñatiarra Soraluzetik irten eta bidegorria hartzen. ANDER MONEDERO



Iker Larrea antzuolarra azkeneko metroak egiten. A.E.



Korrikalari multzo bat Soraluzetik Bergararako bidegorri zatian. A.M.

# Soraluze-Bergara V. kroseko sailkapena

## GIZONEZKOAK

| Post. | Izen-abizena. | Denbora |
|---|---|---|
| 1. | Galindo Rodriguez, Javier | 00:33:18 |
| 2. | Insausti Gonzalez, Eñaut | 00:33:19 |
| 3. | Burcio Encabo, Cipri | 00:33:44 |
| 4. | Mendia Iztueta, Ibai | 00:33:53 |
| 5. | Encina Joe Vicuña, Miguel Angel | 00:34:04 |
| 7. | Pradera Rodriguez, Mikel | 00:35:11 |
| 8. | Ruiz De Loizaga San Pedro, Arkaitz | 00:35:16 |
| 9. | Romero, Gaizka | 00:35:30 |
| 10. | Urizar Otamendi, Luis Mari | 00:35:43 |
| 11. | Garcia Caceres, Jose Carlos | 00:35:55 |
| 12. | Ruiz Del Rey, Josean | 00:36:03 |
| 13. | Zurro Usabiaga, Roberto | 00:36:12 |
| 14. | Luzar Ugaldea, Haritz | 00:36:30 |
| 15. | Unanue Larrañaga, Iñigo | 00:36:34 |
| 16. | Berdud Garcialopez, Esteban | 00:36:36 |
| 17. | Bermudez Ruiz, Martzel | 00:36:45 |
| 18. | Arana Oregui, Joxu | 00:36:50 |
| 19. | Fernandez De R. Vilumbrales J.R. | 00:36:52 |
| 20. | Otermin Zelaia, Jon | 00:36:57 |
| 21. | Urkizu Alazti, Iban | 00:37:01 |
| 22. | Herran Hernandez, Iker | 00:37:04 |
| 23. | Elkoro Fernandez, Xabier | 00:37:16 |
| 24. | Iturzaeta Goenaga, Iagoba | 00:37:17 |
| 25. | Irazabal Arrieta, Javier | 00:37:18 |
| 26. | Mugika Goikoetxea, Iñaki | 00:37:26 |
| 27. | Esnaola Garaizabal, Zigor | 00:37:27 |
| 28. | Korta Bereziartua, Xabier | 00:37:29 |
| 29. | Rey Gomez, Iñaki | 00:37:38 |
| 30. | Monasterio Ubani, Alberto | 00:37:44 |
| 31. | Lariz Azkue, Iñigo | 00:37:45 |
| 32. | Moreno Castelo, Edu | 00:37:46 |
| 33. | Bragado, Juan | 00:38:01 |
| 34. | Garcia Gil, David | 00:38:02 |
| 35. | Segurola Almazan, Arkaitz | 00:38:03 |
| 36. | Dominguez Lopez, Martin | 00:38:04 |
| 37. | Ozaeta Mendiaratx, Alberto | 00:38:06 |
| 38. | Larrea Soraluze, Iker | 00:38:09 |
| 39. | Ruiz Baron, Mikel | 00:38:11 |
| 40. | Agirrebeña Oteo, Iban | 00:38:15 |
| 41. | Azkoaga Bastida, Jokin | 00:38:16 |
| 42. | Ruiz Arana, Iñaki | 00:38:17 |
| 43. | Berrizbeitia, Martin | 00:38:18 |
| 44. | Samadi, Abdelmalik | 00:38:19 |
| 45. | Garcia Rubio, Alberto | 00:38:20 |
| 46. | Casquete Jimenez, Ruben | 00:38:23 |
| 47. | Balanzategui Larreina, Mikel | 00:38:27 |
| 48. | Berdud Garcialopez, Mikel | 00:38:28 |
| 49. | Pagaldai Urrezti, Iñigo | 00:38:29 |
| 50. | Garmendia Izaguirrre, Jose Mari | 00:38:31 |
| 50. | Izabe Martinez, Ander | 00:38:31 |
| 51. | Arza, Joseba | 00:38:32 |
| 52. | Hernandez, Valeriano | 00:38:36 |
| 53. | Banda Merino, Francisco | 00:38:37 |
| 54. | Jamardo Oliveira, Alejandro | 00:38:44 |
| 55. | Izagirre Maiztegi, Juanar | 00:38:45 |
| 56. | Mendizabal Gorrotxategi, Arkaitz | 00:38:46 |
| 57. | Lahidalga Intxausti, Josu | 00:38:56 |
| 58. | Aldai Aguirre, Iñaki | 00:38:57 |
| 59. | Moraleja Alcocer, Ander | 00:38:58 |
| 60. | Ibarra Moñux, Javier | 00:39:02 |
| 61. | Ezenarro Agirre, Aritz | 00:39:11 |
| 62. | Martinez Txurruka, Jokin | 00:39:18 |
| 63. | Odriozola, Josu | 00:39:22 |
| 64. | Lazkano Bikendi, Xabier | 00:39:27 |
| 65. | Vivas Martinez, Alain | 00:39:31 |
| 66. | Lakunza, Mikel | 00:39:36 |
| 67. | Gallastegui, Xabier | 00:39:42 |
| 68. | Llamas, Jose Luis | 00:39:45 |
| 69. | Aranguren Querejeta, Ibon | 00:39:48 |
| 70. | Aranguren Fernandez, Jon | 00:39:49 |
| 71. | Fernandez Perianes, Oscar | 00:39:52 |
| 72. | Fernandez De La Lama, Javier | 00:39:54 |
| 73. | Guridi Zubia, Aitzol | 00:39:59 |
| 74. | Vega Etxaniz, Ibon | 00:40:00 |
| 75. | Narvaiza Azazagoena, Luis | 00:40:02 |
| 76. | Iturbe Ortiz De Z., Iñigo | 00:40:03 |
| 77. | Tornos Zabala, Gorka | 00:40:13 |
| 78. | Mendia Bilbao, Ibai | 00:40:14 |
| 79. | Altuna Velasco, Alejandro | 00:40:25 |
| 80. | Rodriguez Diez, Cruzmaria | 00:40:29 |
| 81. | Mazizidor Berra, Peio | 00:40:30 |
| 82. | Perez Agilar, Sergio | 00:40:33 |
| 83. | Irazabal Garciandia, Jon | 00:40:34 |
| 84. | Perez Pineiro, Mikel | 00:40:43 |
| 85. | Okariz Alberdi, Koldo | 00:40:46 |
| 86. | Eraña Olaskoaga, Igor | 00:40:47 |
| 87. | Bastida Agirre, Ande | 00:40:48 |
| 88. | Cebrino Lozano, Manu | 00:40:49 |
| 89. | Abio Astigarraga, Javier | 00:40:55 |
| 90. | Zabaleta Escudero, Xanti | 00:40:5 |
| 91. | Arrese Murguzur, Igor | 00:40:57 |
| 92. | Goitia Erkiaga, Javier | 00:41:01 |
| 93. | Becerra Gonzalez, Nico | 00:41:02 |
| 94. | Moreno Castelo, Javier | 00:41:03 |
| 95. | Igartza Etxezarreta, Jose M. | 00:41:04 |
| 96. | Elortegi Leniz, Ander | 00: 41:06 |
| 97. | Guridi, Imanol | 00:41:08 |

## EMAKUMEZKOAK

| Post. | Izen-abizena. | Denbora |
|---|---|---|
| 1. | Etxeberria Lizaso, Nerea | 00:41:00 |
| 2. | Txueka Marin, Maitane | 00:42:20 |
| 3. | Hernandez Andoain, Gema | 00:44:40 |
| 4. | Beitia Arriola, Arantxa | 00:45:31 |
| 5. | Aldekoa Urbieta, Itziar | 00:45:47 |
| 6. | Velasco, M. Jesus | 00:46:13 |
| 7. | Larrañaga Urien, Arantzazu | 00:47:38 |
| 8. | Paget Fernandez, Ester | 00:48:04 |
| 9. | San Martin Andonegi, Lourdes | 00:48:09 |
| 10. | Manuel Ecenarro, Olatz | 00:48:18 |
| 11. | Santamarta Criado, Virginia | 00:48:22 |
| 12. | Zabaleta, Maite | 00:48:24 |
| 13. | Eceolaza, Aintzane | 00:48:40 |
| 14. | Lete Larrañaga, Agurtzane | 00:48:48 |
| 15. | Urmeneta Mondragon, Ana Isabel | 00:40:34 |
| 16. | Arkauz Arenaza, Maite | 00:90:94 |
| 17. | Agirre Igartua, M. Rosa | 00:49:19 |
| 18. | Fernandez Aranguren, Idoia | 00:49:51 |
| 19. | Santiago Martin, Isabel | 00:50:10 |
| 20. | Isasti Aguirre, M. Carmen | 00:50:49 |
| 21. | Perez De Arenaza, Yolanda | 00:50:57 |
| 22. | Ibarrara Pedrejon, Nora | 00:51:21 |
| 23. | Gallastegui Eguren, Yoana | 00:51:22 |
| 24. | Biain Galdos, Lorea | 00:51:24 |
| 25. | Lama Lopez, Pilar | 00:51:32 |
| 26. | Etxebarria, M. Jose | 00:52:01 |
| 27. | Aranzadi Martin, Anabel | 00:52:24 |
| 28. | Arrese Murguzur, Susana | 00:52:32 |
| 29. | Balentziaga Iribar, Ane | 00:53:18 |
| 30. | Urmeneta Ayastuy, Ane | 00:53:20 |
| 31. | Arrese Razkin, Nahia | 00:54:03 |
| 32. | Muga Zuriarrain, Ainara | 00:54:30 |
| 33. | Alkorta Agirre, Maialen | 00:54:34 |
| 34. | Lobato Garcia, Estitxu | 00:54:38 |
| 35. | Muguruza Lazpiur, Maite | 00:54:42 |
| 36. | Gardoki Beitia, Lorea | 00:55:21 |
| 37. | Aranburu Olañeta, Aitziber | 00:55:22 |
| 38. | Davila Cabanillas, Nagore | 00:55:25 |
| 39. | Iturricastillo, Ines | 00:56:02 |
| 40. | Kabiketa San Miguel, M. Carmen | 00:56:15 |
| 41. | Zanguitu Juaristi, Ane | 00:56:27 |
| 42. | Amenabar Gantxegi, Olatz | 00:56:33 |

## 40-49 URTE BITARTEKO KATEGORIA

### Gizonezkoak

| Post. | Izen-abizena. | Denbora |
|---|---|---|
| 1. | Burcio Encabo, Cipri | 00:33:44 |
| 2. | Encina Joe Vicuña. Migel Angel | 00:34:04 |
| 3. | Urizar Otamendi, Luis Mari | 00:35:43 |

### Emakumezkoak

| Post. | Izen-abizena. | Denbora |
|---|---|---|
| 1. | Beitia Arriola, Arantxa | 00:45:31 |
| 2. | Aldekoa Urbieta, Itziar | 00:45:47 |
| 3. | Urmeneta Mondragon, Ana Isabel | 00:49:34 |

## 50-59 URTE BITARTEKO KATEGORIA

### Gizonezkoak

| Post. | Izen-abizena. | Denbora |
|---|---|---|
| 1. | Narbaiza Azazagoena, Luis | 00:40:02 |
| 2. | Altuna Velasco, Alejandro | 00:40:25 |
| 3. | Igartza Etxezarreta, Jose Mari | 00:41:04 |

### Emakumezkoak

| Post. | Izen-abizena. | Denbora |
|---|---|---|
| 1. | San Martin Andonegi, Lourdes | 00:48:09 |
| 2. | Kabiketa San Migel, Mari Carmen | 00:56:15 |

## 60-69 URTE BITARTEKO KATEGORIA

### Gizonezkoak

| Post. | Izen-abizena. | Denbora |
|---|---|---|
| 1. | Caceres Martin, Modesto | 00:47:42 |
| 2. | Mendiaraz Elexpuru, Migel | 00:51:08 |
| 3. | Mendiaraz Elexpuru, Jesus | 00:52:57 |

## 70 URTETIK GORAKOAK

### Emakumezkoak

| Post. | Izen-abizena. | Denbora |
|---|---|---|
| 1. | Gil Etxebarria, M. Jose | 00:52:01 |

## TALDEKA

### Gizonezkoak

| Post. | Izena. | Puntuak |
|---|---|---|
| 1. | Goierri | 6066 |
| 2. | Txumis&Tximus | 6328 |
| 3. | Los Mataos | 6606 |

### Emakumezkoak

| Post. | Izena. | Puntuak |
|---|---|---|
| 1. | Bagoiaztan | 8246 |
| 2. | Arrasatekoak | 8951 |
| 3. | Antxintxikalariak | 9148 |

*504 korrikalarik parte hartu zuten lasterketan, baina antolatzaileek 139 korrikalariren denborak bakarrik atera dituzte.

Iturria: antxintxika triatloi taldea

**HIRUGARREN MAILA** > ARETXABALETA-BEASAIN

# Beasain gehiago izan zen jokoan eta lau gol sartu zizkion Aretxabaletari

Bigarren zatian jokalari bat gutxiagorekin geratu ziren etxekoak

ARETXABALETA
**0-4**
BEASAIN

**Aretxabaleta** > Eden, Raul, Alkain, Ruben, Iban, Gotzon, Iker, Aritz, Aitor Azpiazu, Akaitz eta Aitor Perez. Aulkian: I. Dila, Gaizka, Gorka, Oinatz eta Iñaki.

**Beasain** > Rios, Iraola, Abellaneda, Alvarez, Asensio, Alberto Alejandro, Arregi, Agirre, Orue, Mendizabal eta Iglesias. Aulkian: Pastrain, Olaizola, Idarramendi, Salcedo eta Casado.

**Epailea** > Grand Montajne jauna. Laguntzaileak Perez de Mendiola eta Idrahim. Erabaki batzuk ez ziren zaleen gustukoak izan.

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARETXABALETA
Aretxabaletak 0-4 galdu zuen atzo Beasainen aurka etxean. Presioa egitera irten ziren lehenengo minututik Igor Gordobilen mutilak; izan ere, etxekoek ondo zekiten beasaindarrek ez dutela ondo ateratzen baloia atzetik. Atzo, baina, Beasain gehiago izan zen Ibarra futbol zelaian bai jokoan eta baita kalitatean ere.

Esan bezala, Aretxabaletak asko presionatu zuen Beasain goiko lerroetan. Eta, hasierako minutuetan partidua menderatuko zutela ematen zuen arren, bi hutsen ondorioz Beasainek bi gol egin zituen.

Lehenengo golean etxekoek zorte txarra izan zuten; baloiak zutoina jo zuen eta sareetan sartu zen. Bigarren gola Alvarezek egin zuen buruz, korner baten ondoren.

**BAT GUTXIAGOREKIN**
Atsedenaren ondoren etxeko mutilak gola azkar egitera irten ziren. Hala, partiduaren norabidea alda zezakeen jokaldia izan zuen Oinatzek bere oinetan. Atezainaren aurrean bakarrik geratu eta falta itsusia jaso zuen Oinatzek atezainaren aldetik; baina, epaileak txartel horia bakarrik atera zion.

Bestalde, Iban Astolak bigarren zatiko 30. minutuan bigarren txartel horia ikusi eta zelaia utzi behar izan zuen. Hala, partidua zakartu egin zen.

**BEASAIN, ONDO**
Jokalari bat gutxiagorekin ezer gutxi egin zuten etxeko jokalariek. Beasainek hobeto eta gehiago jokatu zuen. Hala, bi kontraerasotan egin zituen golak. Hirugarren golean etxeko atezain Edenek huts nabarmena egin zuen. Laugarren gola, ostera, kontraeraso bikain baten ondoren iritsi zen. Esan behar da, Beasainek gol gehiago egiteko aukerak izan zituela.


Aitor Perez UDAko jokalaria Beasaingo bi aurkariren aurrean; atzean, Aritz Igartua begira. JOSETXO ARANTZABAL

**MINUTU BATEKO ISILUNEA**
Partidu hasieran, minutu bateko isilunea gorde zuten Ibarran Jose Luis Txintxurretaren omenez. UDAko zuzendaritza batzordekoa izandakoa, 70eko eta 80ko hamarkadetan oinarri-futbolaren ardura izan zuen Txintxurretak. Zubizarreta eta Lopez Rekarte ekarri zituen, besteak beste.

**OHOREZKO ERREGIONAL MAILA** > MONDRA

## Mondraren urteko partidu onena

Bigarren zatiko 25. minutuan sartu zuen Mondraren gola Jon Muruak; bigarrena egiteko aukera ere izan zuten

ZARAUTZ
**0-1**
MONDRA

**A.E.** > BERGARA
Mondrak seriotasunez jokatu zuen zapatuan Zarautzen; bai atzean eta baita aurrealdean ere sendo ibili ziren Andoni Azkargortaren mutilak. Zarautz talde gogorra dela kontuan hartuta, lehenengo minututik egin zuten presioa arrasatearrek.

**KONTRAERASOAK**
Defentsan egindako lan serioari esker, arrasatearrek kontraerasoan aukera asko izan zituzten.

Bigarren zatiko 25. minutuan egin zuen gola Jon Muruak. Gero, izan zituzten bigarrena egin eta partidua erabakitzeko aukera asko, baina baloia ez zen sareetan sartu gehiago.

"Aurten jokatu dugun partidu onena izan da. Hainbat jokalari min hartuta izan arren, jokalari asko ditugu eta edonork joka dezake", azaldu zuen partidu amaieran Azkargortak pozik. Datorren astean etxean jokatuko dute, eta Azkargortak gehitu zuen bezala: "Irabazi egin behar dugu Zarauzko garaipenak balioa izan dezan".

**OHOREZKO ERREGIONAL MAILA** > ALOÑA MENDI

## Atzean egindako huts larrien ondorioz, bost gol jaso zituzten oñatiarrek

Atsedenera 2-0 galtzen joan ziren Oñatikoak; bigarren zatian gol festak jarraitu eta bost egin zituen Beriok

BERIO
**5-0**
ALOÑA MENDI

**A.E.** > BERGARA
Aspaldiko jardunaldi txarrena izan da oraingoa Aloña Mendirentzat. Ohorezko erregional mailako mutilak bost golekin eta puntu barik bueltatu ziren Donostiatik zapatuan. Defentsan eta atepean egindako huts larrien ondorioz jaso zituen Aloñak bost gol.

**ALOÑAREN AUKERA EZEREZEAN**
Partidu hasieran Oñatiko mutilek izan zuten aukera markagailuan aurretik jartzeko; hain zuzen, Josu Juaristik. Oñatiarrak huts egin zuen; ez, ordea bi minutu geroago Berioko jokalariak.

Atsedenera 2-0 irabazten joan ziren etxekoak. Bigarren zatian oñatiarren hutsak bata bestearen atzetik etorri ziren: hala, beste hiru gol jaso zituzten.

"Jardunaldi hau ahaztu eta hurrengoari begira jarri behar dugu", esan digu Jabi Azpiazu Aloñako presidenteak. Datorren astean berriro ere etxetik kanpo jokatuko du Aloñak.

**BERGARA**

## Liderraren etxean galdu du Bergarak

**A.E.** > BERGARA
Bergarak 2-0 galdu zuen zapatuan Ondarroako Aurreraren aurka. Joan den astean etxean egindako 6-2koari jarraipena eman barik geratu dira; hortaz, mahoneroak.

Manu Diazen mutilak ez ziren gai izan liderra mendean hartzeko. Ondarrutarrek, berriz, liderrak zergatik diren erakutsi zuten bi gol eginez.

**HURRENGOAN, BERIO**
Datorren astean Berioren bisita izango dute bergararrek Agorrosinen. Berio Aloña Mendiri 5-0 irabazita etorriko da; hortaz, kontuz ibili beharko dute bergararrek.

Mahoneroak liga hasiera txukuna egiten dabiltza: 11.ak dira sailkapenean.

SASKIBALOIA > MU - CAFES AITONA

# Arlo batzuetan hobetu arren, lan handia du aurretik MUk

Arrasatearrek ez zuten jakin lan dinamika mantentzen eta hiru puntuak kanpora joan ziren

MU
**52-78**
CAFES AITONA.

MIREN ARREGI > ARRASATE

Iturripen jokatu zen zapatuan MU eta Cafes Aitona taldeen arteko Saskibaloi norgehiagoka. Etxekoek alor batzuetan hobera egin bazuten ere lan handia dute oraindik egiteko batez ere defentsa lanari dagokionean. Hala ere, MUko entrenatzaile Javi Zurbano optimista da: "Azken denboraldiko bi partiduetan 25 puntu baino gehiagogatik galdu genuen eta hori, ustez talde hobea genuela". Lehen laurdena izan zen partiduko onena. Defentsan ongi eta erasoaldietan abil, nahiz eta saskiratzeei dagokionean hutsegite larriekin. 17 eta 22ko markagailuarekin amaitu zuten lehen laurdena.

Partidua irabazteko esperantzarik bazen, horiek hirugarren laurdenean zapuztu ziren. Defentsiboki lan pattala, eta baita erasoan eta talde lanari dagokionean ere. Hirugarren laurdena 34 eta 63 amaitu zen, Cafes Aitonaren alde.

Hala ere, eta partidua erabakita bazegoen ere, MUko mutilek ez zuten amore eman eta laugarren laurdenean lan txukuna egin zutela esan daiteke.




Iturripen jokatu zen MU eta Cafes Aitonaren arteko norgehiagoka. J.A

> ESKUBALOIA

### Berdinketa lortuta, puntu bat ekarri dute etxera Aloñako neskek

Partiduaren bukaeran berdinketa markagailuan. 18 eta 18 amaitu zen Verkol Aloña Mendi eta Elgoibarren arteko Euskadiko senior mailako emakumezkoen norgehiagoka. Joan den asteko partidua galduta, neskak motibatzeko ezinbestekoa izan zen zapatuan lortutakoa.

Atzetik joan ziren denbora guztian Aloñako neskak, baina azkenean, markagailua berdintzea lortu zuten, puntu bat eskuratuz.

> ESKUBALOIA

### Askartzaren kontra berdinketa lortuta gustura Ford Mugarri

"Askartzak oso jokalari onak ditu; liga irabazteko aukera handiak dituen taldea da. Berdinketa lortuta gustura geldiru gara" adierazi digu Edu Orgazek, Ford Mugarri eskubaloi taldeko entrenatzaileak.

16 eta 11 markatzen zuen markagailuak arrasatearren kontra atsedenaldian. Gero, baina, Ford Mugarrik jakin zuen egoerari buelta ematen eta berdinketa lortu zuten. 27 et 27 amaitu zen partidua.

## Futbola

### 3. MAILA

Sailkapena

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Real Sociedad B** | **27** | 12 |
| 2. **Beasain** | **24** | 12 |
| 3. **Amorebieta** | **23** | 12 |
| 4. **Amurrio** | **22** | 12 |
| 5. **Zalla** | **22** | 12 |
| **6. Gernika** | **18** | 12 |
| 7. **Aretxabaleta** | **18** | 12 |
| 8. **Zamudio** | **17** | 12 |
| 9. **Basconia** | **17** | 12 |
| 10. **Durango** | **15** | 12 |
| 11. **Leioa** | **15** | 12 |
| 12. Arenas Getxo | **15** | 12 |
| 13. **Laudio** | **14** | 12 |
| 14. Portugalete | **14** | 12 |
| 15. **Elgoibar** | **14** | 12 |
| 16. **Lagun onak** | **13** | 12 |
| 17. **Santurtzi** | **12** | 12 |
| 18. **Retuerto Sport** | **11** | 12 |
| 19. **Eibar B** | **10** | 12 |
| **20. Salvatierra** | **6** | 12 |

Emaitzak

| | |
|---|---|
| Elgoibar-Lagun Onak | 0-1 |
| Salvatierra-C.Durango | 1-3 |
| Reala-Santurtzi | 3-2 |
| Amurrio-Basconia | 4-2 |
| Amorebieta-Laudio | 1-1 |
| Eibar B-Arenas Getxo | 1-0 |
| Leioa-Gernika | 2-1 |
| Portugalete-Zamudio | 2-1 |
| Rotuerto Sport-Zalla | 1-0 |
| **Aretxabaleta**-Beasain | 0-4 |

Hurrengoak

Durango-**Aretxabaleta**

### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Sailkapena

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Ondarroako Aurrera** | **24** | 8 |
| 2. **Pasajes** | **18** | 8 |
| 3. **Oiartzun** | **15** | 8 |
| 4. **Hondarribia** | **14** | 8 |
| 5. **Ordizia** | **13** | 8 |
| 6. **Idiazabal** | **13** | 8 |
| 7. **Trintxerpe** | **13** | 8 |
| 8. **Zarautz** | **13** | 8 |
| 9. **Berio** | **12** | 8 |
| 10. **Hernani** | **11** | 8 |
| 11. **Bergara** | **10** | 8 |
| 12. **Aloña Mendi** | **10** | 8 |
| 13. **Tolosa** | **9** | 8 |
| 14. **Euskalduna** | **8** | 8 |
| 15. **Mondra** | **7** | 8 |
| 16. **Beti Gazte** | **5** | 8 |
| 17. **E.H.U Vasconia** | **4** | 8 |
| 18. **Real Union** | **3** | 8 |

Emaitzak

| | |
|---|---|
| Berio-Aloña Mendi | 5-0 |
| Aurrera (Ondarroa)-Bergara. | 2-0 |
| Euskalduna-Tolosa | 1-0 |
| Trintxerpe-Hondarribia | 1-0 |
| E.H.U-Vasconia-Pasajes | 0-3 |
| Idiazabal-Real Union | 1-0 |
| Zarautz-Mondragon | 0-1 |
| Ordizia-Oiartzun | 1-1 |
| Hernani-Beti Gazte | 0-0 |

Hurrengoak

Beti Gazte-**Aloña Mendi**
**Bergara**-Berio
**Mondragon**-Idiazabal

### BESTELAKOAK

| | |
|---|---|
| **GAZTEEN LIGA NAZIONALA** | |
| Reala-Aretxabaleta | 2-0 |
| **GAZTEEN EUSKAL LIGA** | |
| Bergara-Retuerto | 1-2 |
| **ERREGIONAL PREFERENTEA** | |
| Antzuola-Urola | 1-1 |
| Eibartarrak-Aretxabaleta B | 2-2 |
| **LEHEN ERREGIONALA** | |
| Mutriku-Bergara | 1-2 |
| UDA Arizmendi-Eibartarrak | 1-0 |
| Mondragon-Urki | 1-0 |
| **GAZTEEN OHOREZKO MAILA** | |
| Mondra-Anaitasuna | 1-1 |
| Aloña Mendi-Elgoibar | 2-5 |
| **GAZTEEN LEHEN MAILA** | |
| Bergara-Eibartarrak | 0-4 |
| Amaikak Bat-Arizmendi | 11-0 |
| Urola-Aretxabaleta Arizmendi | 0-7 |
| **OHOREZKO KADETEAK** | |
| Aloña Mendi-Bergara | 2-4 |
| Aretxabaleta Arizmendi-Urola | 2-1 |
| **KADETEEN 1. MAILA** | |
| Elgoibar-Aloña Mendi | 2-1 |
| Arizmendi-Eibartarrak | 5-1 |
| Bergara-Aretxabaleta B- | 2-3 |
| **INFANTILEN OHOREZKO MAILA** | |
| Bergara-Elgoibar | 5-1 |
| Eibar-Aloña Mendi | atzeratuta |
| Arrasate-Aretxabaleta Arizmendi | 2-0 |
| **EMAKUMEZKOEN LIGA** | |
| Arizmendi-Eibar | 1-0 |
| Aloña Mendi-Bergara | 4-3 |
| Elgoibar-Mondragon | 0-5 |

## saskibaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **SENIORRAK LEHENENGO MAILA** | |
| MU-Cafes Aitona | 52-78 |
| **SENIOR MUTILAK** | |
| Teklan Laser-Soraluce BKE | 53-47 |
| Aloña Mendi- | Atsedena |
| **SENIOR NESKAK** | |
| Murkil Zast ZKE-Eskoriatza | 47-43 |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| Cafes Aitona-Aloña Mendi | 53-33 |
| MU-Internacional | 42-47 |
| Soraluze BKE-Easo Haizea | 37-28 |
| MU A-Lgunak | 80-62 |
| **GAZTE NESKAK** | |
| Eskoriatza-MCM A | 39-38 |
| **KADETE MUTILAK** | |
| Mondragon Un. B-Aloña Mendi | 78-39 |
| Soraluze BKE-Mutriku | 46-22 |
| MU A-Caldereria Zaher | 59-75 |
| **KADETE NESKAK** | |
| Eskoriatza-Andraitz | 50-18 |
| Hierros-Soraluze BKE | 49-15 |
| Arizmendi Eskoriatza-Atseden | 24-56 |

## eskubaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **EUSKADIKO SENIORRAK, GIZONEZKOAK** | |
| Askartza-Ford Mugarri | 27-27 |
| **EUSKADIKO SENIOR T. EMAKUMEZKOAK** | |
| Elgoibar-Verkol Aloña Mendi | 18-18 |
| **GAZT. EUSKADIKO T. EMAKUMEZKOAK** | |
| Verkol Aloña Mendi | atsedena |
| **KADET. EUSKADIKO T. EMAKUMEZKOAK** | |
| Verkol Aloña Mendi | atsedena |
| **GIPUZKOAKO LEHEN TERRITORIALA** | |
| Soraluce BKE-Aloña Mendi | 31-30 |
| **GIPUZKOAKO BIGARREN TERRITORIALA** | |
| Gros-Arrasate | 12-31 |
| **GAZTE MAILA, GIZONEZKOAK** | |
| Aloña Mendi-Leizaran | 29-40 |
| Bergara-Tolosa | 28-39 |

## errugbia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **EUSKADIKO TXAPELKETA** | |
| Univ. Cantabria-Arrasate | 12-12 |

Harmailatik

Debagoieneko kirola GOITBn

Astelehenero 22:15ean.

Goitb Goiena Telebista

Ikustekoa!



**Aitor Elkoro** > Pilota hautatzailea

# "Astean behin entrenatu eta pilotariei jarraipena egingo diet"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

**Aitor Elkoro (Elgeta, 1967) Gipuzkoako pilota hautatzailea izango da aurrerantzean. Orain dela urtebete utzi zuen pilota, eta ordutik pilotatik aldenduta ibili da. Ilusioz hartu du erronka berria Elkoro pilotari ohiak.**

**Nola heldu zaizu Gipuzkoako hautatzaile izateko aukera?**

Federazioa jarri zen kontaktuan nirekin. Uste dut azkeneko urteetan ez dela egon hautatzailerik. Elkarteetako kideek hartu izan dute ardura hori; eta gura zuten seriotasun pixka bat ematea postuari, eta batez ere elkarteetatik independentea izango zen norbait izatea hautatzailea. Horregatik nirekin pentsatu zuten. Urtebete da pilotaz deskonektatuta egon naizela, eta uste dut lan polita izango dela.

**Zein izango da zure eginbeharra hautatzaile bezala?**

Asmoa da martxotik maiatzera bitartean jokatzen den GRAVN txapelketa prestatzea. Lan handiena hori izango da: txapelketa horretarako pilotari multzo bat hautatzea. Momentuan ondoen dauden pilotariak hautatu beharko ditut. Nire eginbeharra objektiboa izatea izango da eta momentuan maila onena dutenak hautatu.

Egunero ez naiz egon beharko pilotalekuan, astean entrenamendu bat egiteko eskatu didate; horrez gain, jarraipena egin beharko diet pilotariei.

**Ze adinetako pilotariekin egin behar duzu lan?**

Hiru kategoriako mutilekin egingo dut lan: gazteak, 22 urtez azpikoak eta nagusiak. Txapelketan batez ere, lana pilatu egingo zait; eta, ezin izango dut botilero lanak egin partidu guztietan. Horregatik eskatu diot Ander Berraondori laguntzeko.

Orain partiduak ikusten nabil. Afizionatu mailakoak ezagutzen ditut, baina gazteagoak, 22 urtez azpikoak ez.

**Urtebete da pilota utzi zenuela; gogoz hartu duzu berriro?**

Lehenengo aldia izango da hautatzaile lanetan ibiliko naizela. Orain urtebete utzi nuen pilota eta ordutik ez dut pilotarekin harremanik izan. Bizikletan ibili naiz, batez ere. Gogoarekin hasten naiz eta ea gustura ibiltzen naizen eta lasai lan egiten dudan.

**Kirolariaren bizitza motza izan ohi da eta komeni da beste proiektu batzuk esku artean izatea.**

Bai, nire kasuan gustura nagoela esan behar dut. 16 urte egin ditut profesionaletan eta gustura nago. Gertatzen dena da ematen duela betirako izan behar dela kirol bizitza… Baina konturatu gabe denbora pasa egiten da, eta bukatu egiten da. Horrela da; gero, zorionez, beste proiektu batzuk etortzen dira.

**Pilotari eta hautatzaile. Pilota ikusteko bi modu oso ezberdin dira?**

Duda barik, oso ezberdinak izango dira. Beti egon izan naiz pilotaren munduan eta menderatzen dut. Orain, eguneratu egin beharko ditut hainbat gai: materiala, gazteak… Uste dut lan polita izango dela gazteen garapena ikustea: 16 urterekin hartu eta nola hobetzen duten ikustea. Denon helburua profesionaletara iristea da, baina badakigu denak ez direla iritsiko.

**Zuk zeuk nola gogoratzen duzu gaztetatik profesionaletarako jauzi hura?**

Hasi, Elgetan hasi nintzen, herrian. Hango elkartean ordu asko sartu nituen, hango lagunekin. Profesionaletarako saltoa nahiko mikatza izan zen nire kasuan. Lehenengo aldiz pasatu nintzenean profesionaletara ez ziren nik gura nituen moduan irten gauzak. Ez nengoen mundu horretarako prestatuta, eta gaizki ibili nintzen bai eskutatik eta baita psikologikoki ere. Orduan 19 urte nituen, eta urtebetera berriro itzuli nintzen afizionatu mailara. Gero, 25 urterekin egin nuen bigarren debuta eta orduan gauzak ondo irten ziren.

**Asko aldatu da ordutik hona pilota? Telebistak eragina izan du?**

Bai, eragina, batez ere, jokatzeko moduan izan du. Orain, gehiago arriskatzen da, ikuskizuna telebistara bideratuta dago, eta lehen postuetara. Askoz ere serioago jokatzen zen lehen.

**Aurten, Bergarako pilota taldeak lorpen garrantzitsuak lortu ditu.**

Lan handia dago atzean, eta Reyesek meritu handia dauka. Pilotari multzo handia dauka; emaitzak ez dira kasualitatez etortzen. Reyes urte mordoa dabil lanean eta gustuko lana du; bestela, ez litzateke horrenbeste urtez ibiliko. Berarentzat ere lorpen garrantzitsua da aurrera begira lanean jarraitzeko.




Aitor Elkoro Elgetako pilotari ohia; hautatzailea izango da aurrerantzean. A.E.

**"Ezin izango dut partidu guztietan egon; horregatik Berraondori laguntza eskatu diot"**

**"Urtebete da pilota utzi nuela eta ordutik ez dut pilotarekin harremanik izan"**

**"Profesionaletara lehenengo aldiz salto egin nuenean ez ziren ondo irten gauzak"**

**"Reyesek meritu handia dauka; emaitzak ez dira kasualitatez etortzen, lan handia dago atzean"**

**TRANSMISIOA** > GURASOLANDIA

# Familia osoarendako jolas parkea antolatu du Txatxilipurdik

Azaroaren 15ean Gurasolandia festa egingo dute Arrasaten, gaitasunen eta hizkuntzaren transmisioa oinarri izango duen eguna

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

Gurasolandia festa antolatu du Arrasateko Txatxilipurdi elkarteak azaroaren 15erako.

Gurasolandia familiendako jolas parke bat da, haur eta helduen arteko aisialdi harremana sustatzeko gunea. Horretarako ekintza eta tailer ezberdinak egongo dira, familiartean ondo pasatuz eta jolastuz, abestuz, parte hartuz, gozatuz, kontatuz ... gaitasunen eta hizkuntzaren transmisioa emanez.




Gurasolandia eguna iragartzen duen kartela. GOIENKARIA

### GURASOENDAKO JAIA

Gurasolandia nagusiki gurasoei zuzenduta dago, nahiz eta haurren parte-hartzea ere garrantzitsua izango den. Guraso esatean, hala ere, etxeko edozein heldu esan gura dute Txatxilipurpi elkarteko kideek, hala nola: izeba, gertuko lagun bat edo aitita, esate baterako.

Haurrak ezingo dira jaialdira bakarrik joan, gutxienez heldu batekin joan beharko dira. Modu horretara, ekintza ezberdinetan bilatzen den transmisioa bermatuko dela ziurtatzen dute antolatzaileek. Helduek aldiz, bakarrik joateko aukera izango dute.

### HELBURUA

Gurasolandia egitasmoaren helburua da ikuslea parte-hartzaile bihurtzea; hau da, normalean begira egoten den helduak egunean zehar egingo dituzten ekintzetan parte hartzeko aukera izatea, jaialdiko protagonista bilakatuz.

Egitasmoaren helburua da haur eta gurasoek transmisioarekin lotura zuzena duten ekintzetan elkarrekin parte hartzea. Aldi berean, rol aldaketa lortzea ere gura du Gurasolandia jaiak, gurasoak haur bilakatzea ordu batzuetan ez bada ere.

Euskararen transmisioan familiaren papera funtsezkoa da. Funtzio garrantzitsu hori aitortzen diote familiari hizkuntzalari eta soziolinguistika adituk, belaunaldi arteko hizkuntza transmisioaren giltza izatearena. Txatxilipurdi e elkarteak ere aspalditik du argi gurasoekin lana egin behar dela.

### EGITARAUA

Gurasolandia azaroaren 15ean egingo dute, Arrasateko Uarkape pilotalekuan. 11:00etatik 14:00etara euskarazko jostailuen gunea, marrazketa gunea, karaokea, psikomotrizitatea eta aerobitona egingo dituzte. 16:30etik 19:30era, berriz, ipuin-kontaketa, euskarazko abesti eta jolasak, txapa tailerra, jolas tradizionalak eta dantzaldia. Hankapaloak eta teknologia berrien gunea ere egongo dira egun guztian.

**HAURDUNALDIA** > DIABETESA

# Haurdunaldiko diabetesa, ondorioak eta zaintza

Nnutrizio beharra handitzen da diabetesa garatzen duen emakume haurdunean

**O.E.** > ARRASATE

Haurdun dagoen emakumean garatzen den diabetesa da haurdunaldiko diabetesa. Haurdun dagoen emakumeak aldaketa fisiko asko izaten ditu eta nutrizio handiagoa eskatzen du horrek. Emakume horren organismoak ezin baditu glukosaren nibelak egonkor eduki, diabetesa izango du. Diabetes horri haurdunaldiko diabetesa deitzen zaio, aurretik ez zuelako;eta normalean desagertu egiten da haurdunaldiaren ondoren". Elikaduran aditua den Cristina Perezek idatzi du haurdunaldiko diabetesaren inguruko artikulua *Berria*n, eta *Guraso.com* atarian jaso dute.

### ONDORIOAK

Nahiz eta umea izan eta gero diabetesa desagertu, emakume horiek arrisku handiagoa dute bigarren diabetes bat garatzeko, baita hurrengo haurdunaldietan ere diabetesa izateko. Horrez gain, gizentasuna eta hipertentsioa izateko joera handiagoa dute. Horregatik, komeni da dieta eta nutrizioa erditu ostean ere kontrolatzea. Zesarea izateko arrisku handiagoa ere badute emakume horiek.

### NUTRIZIOA

Helburu nagusiak glukosa odolean ondo kontrolatua izatea eta jaioberriaren osasuna ziurtatzea dira. Emakume gehienetan, dieta ohitura aldatzea eta ariketa fisikoa egitea nahikoak izaten dira helburu horiek lortzeko. Beste batzuetan, berriz, beharrezkoa izaten da tratamendu dietetikoaz gain, intsulina; batez ere, gizentasuna duten emakumeetan

Nutrizio tratamendu egokia eramateko aztertu beharreko puntuak dira: dieta ohiturak aztertu eta gaizki daudenak zuzendu, ariketa fisikoaren ohituren balorazioa egin, eta plan egonkor bat ezarri. Baita nutrizio egoera baloratu; gorputzaren balorazioa egin eta energiaren beharrak kalkulatu behar dira.



Haurdun dagoen emakume bat sofan etzanda. GOIENKARIA

**PEDAGOGIA** > HARREMAN POSITIBOA ERAIKITZEN

# Gurasoek nola sustatu harreman positiboa

Komunikazioa, sormena, familia antolaketa eta loturak sendotzea dira ardatz nagusiak

**O.E.** > ARRASATE

Nerea Agirre pedagogoarendako maitatuak eta baloratuak sentitzea esperientzia garrantzitsu bezain ezinbestekoak dira pertsonaren garapenerako. Bizipen garrantzitsuak dira haur eta gazteek beraien buruaz, besteekin eta ingurunea harreman positiboak eraikitzeko. Beraz, "nola sustatu dezakete gurasoek harreman positiboak eraikitzeko esperientzia eta bizipenak?", galdetzen du. Eta lau ardatz nagusi aipatzen ditu berak: komunikazio gaitasuna hobetu, proiektu komunen bidez loturak sendotu, famili antolaketan arduratsuak izateko aukerak sustatu eta jakinmina eta sormen gaitasunak esnatu. Bere esanetan, "harreman positiboak eraikitzeko, gure seme-alabekin egin ditzakegun gauzak hamaika dira, baina ez da ahaztu behar, garrantzitsuena ez dela planteatutako zerrenda betetzea, gurasoen jarreretan arreta jartzea baizik".

> BERTSOLARITZA

## Aurten ere bertsolaritza landuko dute euskal gaztetxoek euren ikasgelatan

Aurten ere bertsolaritza landuko dute haur eta gazteek ikasgelan. Astean ordubetez bertsolaritza landuko dute Euskal Herriko 14.450 ikaslek Bertsozale Elkartearen eskutik. Astean ordubeteko tartea dedikatuko diote bertsolaritzari, euskara ikasgaiaren barruan (nagusiki LH 4. eta 5. mailetan). Helburuak dira haurrak zaletzea, eta bertsolaritzaren oinarrizko ezagutza izatea. Bertsozale Elkarteko bertsolaritza irakasleak gidatuko du saioa, tutorearen laguntzaz. Kurtsoan zehar egindako lana jendaurreratzeko, ikastetxeetako jaialdiak egiten dira maiatzean: ikasleak oholtzara igotzen dira, ikasitako bertso sortak kantatzera. Liburuxkak ere argitaratzen dira urtero, ikasleek jarritako bertsoekin. Proiektuaren barruan, ikastetxeei bertso saioak antolatzeko aukera ere ematen zaie.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> INPROBISAZIOA**
Argentinako Wilson Saliwonczyk eta Jon Martin bertsolaria, inprobisazioan **> 30**



**> MAKOONBA**
Afrikako Crossroad lehiaketa ospetsuko talde irabazleak kontzertua egin zuen Espaloian **> 31**



**> BREAK-DANCE**
Laino skate parkearen inaugurazioan puntako patinatzaileek ikuskizuna egin zuten **> 32**




Nabil Mansour palestinarra asko hunkitu zen agertoki gainean. JOSETXO ARANTZABAL



Petti nafarrak bluesa, rocka eta folka batu zituen emanaldian. I.BARANDIARAN



Mikel Urdangarin goxo aritu zen kontzertuan. I.B.

**MUSIKA** > MIKEL URDANGARIN, NABIL MANSOUR ETA PETTI

# Puntako hiru bakarlari helburu bakar baten alde bat eginda

**GERTUKOA**
Nabil palestinarrak entzuleen esku-hartzea lortu zuen

**EZAGUNAK**
Urdangarinek eta Pettik jendea kontzertura hurbiltzea lortu zuten

**NON:** Arrasateko Gaztetxea.
**EGUNA:** Egubakoitza, urriak 30.
**ZENBAT JENDE:** 80 lagunetik gora.
**IRAUPENA:** Bi ordu eta erdi.

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

*Israeli boikota, Palestinari elkartasuna* lelopean Askapenak eta Arrasateko gaztetxeak jardunaldi bereziak egin zituzten joan den astean. Hala, horri bukaera emateko, kontzertua egin zuten egubakoitz gauean gaztetxean.

Musikari ezagunak batu zituen elkartasun dei horrek eta gitarra soilik eskuan zutela (talde barik) agertokira igo ziren bata bestearen atzean Mikel Urdangarin, Nabil Mansour eta Petti, hain zuzen ere.

**URDANGARIN, XUABE**

Aspaldi ez genuen Urdangarin agertokian bakarrik ikusten, baina fin aritu zen haren jarraitzaileen gozamenerako; izan ere, batez ere neska asko batu zituen emanaldian eta doinu goxoekin liluratu egin zituen. Are gehiago, kantu ezagunenetan oinarritu zuen kontzertua, eta halako kantuak entzun ahal izan genituen: *Oihana bat, Txatxamatxanilatxu eta Non geratzen den denbora*, besteak beste.

Are gehiago, palestinar eta sahararren aldeko hitzak esan zituen zornotzarrak.

Horren ostean, palestinar-kataluniarra den Nabil Monsourrek hartu zuen lekukoa. Bazel Zayed Palestinako musikari ezaguna iragarrita zegoen arren, horri Israelgo armadak ez zion hegazkina hartzen utzi. Hala, haren ordez Katalunian bizi den Nabil aritu zen. Gertuko emanaldia egin zuen Nabilek. Gaztelera Palestinaren egoeraren berri zabala eman zuen, eta kontzertuan arabiarra, ingelesa, gaztelera eta euskara tartekatu zituen.

*L´Estaca* kantu ezaguna katalanez eta arabiarrez abestu zuen, Kaliforniako Richard Heart musikariaren pieza bat bertsioneatu zuen eta Laboaren *Txoriak txori* euskara eta arabiarrez moldatu eta gaztetxeko ikusleak berarekin batera kantuan jarri zituen. Nabil hunkitu egin zen eta baita ikusleak ere. Kontzertua egin ostean, Bergarako gaztetxera jo zuen gau berean han ere abestu behar zuelako.

**ERALDATZEN DEN ARTISTA**

Bukatzeko, Berako piztiak, Pettik, hartu zuen agertokia. Ohikoa duen moduan, eraldatu egin zen eta bat-batean Palestinatik San Ferminetako gau zoroenetik igarota Mississipi ertzeraino eraman gintuen, bluesa, rocka eta folka gure artean oso gutxik egin dezaketen moduan interpretatuz; betiko moduan, itzela!

(30. orrialdean jarraitzen du)

**Nabil Mansour** > Palestinako bakarlaria

# "Palestinako artistei trabak jartzen dizkigu Israelek"

(29. ORRIALDETIK DATOR)

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

**Nabil Mansour Katalunian jaio zen eta gurasoak Palestinakoak ditu. Bere burua katalan-palestinartzat dauka. Arrasaten izan zen, Basel Zayed ordezkatzeko.**

**Nolatan etorri zara Euskal Herrira? Hona etortzen zaren lehenengo aldia da?**

Ez. Lehenengo aldiz Hernanin izan nintzen eta zur eta lur gelditu nintzen hango abertzaletasunarekin. Han azaldu zidaten argazkietan ageri diren presoetako askok hiru urte eta erdi igiten dituztela behin-behineko espetxealdian! Gerora, orain dela gutxi, Askapenatik deitu zidaten kontzertu batzuk egiteko. Aurreko astean Laudion izan nintzen, eta gaur Arrasaten eta Bergaran, bietan.

**Arrasatera Basel Zayed ordezkatzera etorri zara, ezta?**

Bai. Azkeneko momentuan galarazi diote Palestinatik kanpo irtetzea, eta erabaki dugu neuk Bergarara joan aurretik, Arrasaten jotzea. Israelgo gobernuaren aspaldiko ohitura da Palestinako herriaren bozgorailu diren artistei kanpoan aritzeko oztopoak jartzea.

**"Gazaren bonbardaketa eta gero, erabaki nuen Palestinaren aldeko informazioa zabaltzea"**

**"Reuters informazio agentzia judutarrak ezkutatutakoak azaleratu beharra dago"**

**Musika egiten hasi zinenean argi zenuen Palestinaren gainean abestuko zenuela?**

(Barre) Ez. Musika egiten hasi nintzenean oso gaztea nintzen eta beste helburu batzuk nituen. Baina Israelgo armadak Gaza bonbardatu zuenean, Bartzelonan manifestazio asko egin genituen eta ekitaldi baten *L´estaca* arabieraz eta katalanez interpretatu nuen. Hurrengo egunean erabaki nuen Palestinaren aldeko kontzientziazioa eta informazioa zabaltzeko egingo nuela musika; eta horretan nabil.

**Asko informatu beharra dago?**

Zoritxarrez, munduko informazio agentzia garrantzitsuena den Reuters-en jabeak judutarrak dira; eta lan handia egin behar da haiek ezkutatutakoak azaleratzeko. Baina objetiboki ikusita, zaila da begiak ixtea.



Nabil Mansour Arrasateko gaztetxean kontzertua egin ostean. I.BARANDIARAN

**BERTSOAK** > BERTSOAK ETA PAYADAK

# Ahozkotasuna eta esanak bide lagun

**NON:** Oñatiko Arrano tabernan.
**EGUNA:** Egubakoitza, hilak 30.
**ZENBAT JENDE:** 80 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordubete.

MIREN ARREGI > OÑATI

Umorez eta aldarrikapenez jositako emanaldia izan zen egubakoitzean Bertso Eskolak antolatuta Oñatiko Arrano tabernan egin zutena. Eta ez zen ohiko bertso emanaldia izan, bertsoak ez ezik, payadak ezagutu eta horiez gozatzeko aukera izan zuten-eta bertaratuek.

Taberna gainezka zela egin zuten emanaldia Jon Martin eta Arkaitz Oiarzabal *Xamoa* bertsolariek, eta Wilson Saliwonczyk argentinar trobadoreak. Trobadorea baino payadorea, hori baita Hego Ameriketako ahozkotasun, poesia edota abesti inprobisatuari deitzeko erabiltzen duten hitza. Payadoreak, beraz, Euskal Herriko bertsolariak dira. Saliwonczyk Bertsolari Txapelketaren harira etorri da Euskal Herrira; Badaramatza sei bat hilabete eta bertsolari txapelketa nagusia ez ezik, gure herria eta kultura ezagutzen dituela zalantzarako tokirik ez zuen utzi egubakoitzeko emanaldian.


Wilson Saliwonczyk eta Jon Martin Oñatiko Arranon tabernan eskainitako bertso eta payada erakustaldian. JOSETXO ARANTZABAL.

**GIROA BERO-BERO**

Giroa bero bero, eta ez taberna barruan bero egiten zuelako bakarrik, baizik eta aldarte onean, bertsolariak eurak ere gustura egon zirela ziurtatzen zuten bertso eta esanak entzun zirelako; sugandilak, anakondak, bekatu kapitalak, apaizak, euskal gatazka, kartzela... Askotariko gaiak izan zituzten ahotan.

Egoitz Aizpuru ibili zen gai jartzaile lanetan. Gai jartzaile lanetan bakarrik ez, itzultzaile lanetan ere bai, Jon Martinek eta Arkaitz Oiarzabalen bertsoak Wilson Saliwonczyk-i itzultzen izan zuen-eta lana. Ariketak ere era guztietakoak; gai bat eman eta hura oinarri egindako bertsoak, lehen puntua eman eta ondoren argentinarrak puntua erantzun, azken puntua eman eta horrekin bertsoa osatu... Euskal Herriko Bertsolari txapelketa Nagusia ere izan zuten mintzagai. Egoitz Aizpuruk Bertsolari Txapelketa Nagusiko azken hiru finalisten paperean ipini zituen hirurak azken ariketan. Hona Wilson Saliwonczyk-en lanetako bat: *Igor ya quedo muy lejos/A Jon Maia ni lo noto/ Eta Silveira hiru poto/ Y Andoni murio de viejo/ Maialen rompio un espejo/ Que desgracia la poeta/ Fredy igual que un cometa/ Ya se ha apagado/ Y despues quedamos nosotros tres muy cerquita de la meta.*

Argentinako payadoreak halako sei emanaldi eskaini ditu Euskal Herrian; eta beraz, esan daiteke hura Oñatin entzuteko aukera izan zutenek benetako ohorea izan zutela. Atzo, domeka, Oiartzunen egin zuten emanaldia.

**NON:** Elgetako Espaloia antzokian.
**EGUNA:** Zapatua, urtarrilak 31.
**ZENBAT JENDE:** 200 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Bi ordu.


Mokoonba taldeko gazteak jakin zuten Elgetako Espaloia dantzan ipintzen. JOSETXO ARANTZABAL.

**MUSIKA** > ZIMBABWEKO MOKOONBA TALDEA ESPALOIAN

# Afrikako doinuez blai

**MIREN ARREGI** > ELGETA

Afrikatik Europara; Zimbabwetik Euskal Herrira. Afrikako bost herrialderen –Malawi, Mozambique, Tanzania, Zambia eta Zimbabwe– artean jokatzen den Crossroads musika lehiaketako irabazleak dira Mokoonba taldekoak. Lehiaketa irabazi izanak Europan bira bat egiteko ateak ireki dizkie, eta zapatuan, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izan zen taldea zuzenean entzuteko aukera. Aurrez, baina, eguerdi partean guraso, nagusi zein umeendako kontzertu-hitzaldia eskaini zuten Gaztelekuan. Bertan azaldu zituzten besteak beste, Zimbabwen gazte moduan dituzten kezkak, nola egiten dituzten erabiltzen dituzten musika tresnak, zeintzuk diren abestietan jorratzen dituzten gaiak...

Gaua helduta, kontzertuaren txanda. Sei lagun jantzi afrikarrak soinean, instrumentu afrikarrak esku-artean eta erritmo afrikarra odolean. Hala atera ziren eta hala igaro kontzertuak iraun zituen bi orduak. Jatorria Afrikako tribu eta kulturetan duten mugimenduak oinarri, azkenean lortu zuten Espaloian elkartu ziren entzuleak ere dantzan ipintzea. Ezin ukatu euskaldunok badugula zertan afrika eta euren kulturari enbidia izan. Hura zen hura gorputza mugitzeko modua! Agertokiaren beste aldean, berriz, euskaldun talde bat, ipurdia lurrari itsatsita. Pentsa, amaierarako jendea ere animatu zen agertokira igotzen, baina kontzertuaren hasieratik taula gainera igotzeko borondatea izan zutenak, bat senegaldarra eta bestea txiletarra. Pixkanaka, baina, gurekoak ere joan ziren animatzen eta kontzertuan aktiboki parte hartzen. Horretan, baina, izan zuten zeresana Zimbabweko sei gazteek; ikusleak animatzen onenak zirela esatea ere ez da gehiegizkoa.

**PERKUSIOA OINARRI**

Badakigu jatorri afrikarreko taldeen indarra perkusioan datzala, besteak beste; ezin alde batera utzi orain arte aipatu dugun gorputz adierazpena eta ezta jantziak ere. Baina, zerbaitetan nabarmentzen badira, perkusio erritmoen indarrari dagokionean da hori. Taula gainean sei lagun, eta instrumentu anitz. Batzuk ezagunak, besteak agian ez horrenbeste; hala nola, bi gitarra elektriko, teklatua, bateria, tam-tama, tinbalak, marakak eta halamea (honek hemengo arranaren antz handia zuen) deituriko beste perkusio instrumentu bat. Eta instrumentu horiekin guztiekin, erritmo indartsu eta biziak osatuz, batzuetan afrikara eta beste batzuetan Karibera ere bidaiatu arazi zituzten ikusleak. Talde osoaren lana zen garrantzitsua eszenografian, eta abeslariaren ahotsaren zeresana itzela.

Kontua da, azkenean, eserita zegoen ikuslegoa zutik ipintzea lortu zutela eta Elgetan gau afrikar baten esentzia barru barruraino sartzea lortu zutela.

**MUSIKA** > VICEPRESIDENTES

# Muturreko doinuen kolore paleta aberatsa

**NON:** Arrasateko Gure Leku tabernan.
**EGUNA:** Zapatua, urriaren 31.
**ZENBAT JENDE:** 50 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordubete.

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Gure Leku tabernak hainbat kultura ekimen egiten dihardu aspaldian eta azken aldian kontzertuak dira nagusi.

Bluesa, elektronika, emanaldi akustikoak, rocka... entzungai izaten dira gehienetan, baina oraingoan doinu gogorragoak eraman zituzten pub-era: Gasteizko Vicepresidentes taldea.

Iraganean Vicepresidentes taldea izan zen Neubat osatzen zutenen talde paraleloa; eta Neubat-ek egiten duen stoner-rocketik haratago zihoan Vicepresidentes taldearen emaitza: grindcorearen eremuan kokatzen zen, hain zuzen ere.

Iaz, berriz, Vicepresidentes taldeak protagonismoa hartu zuen Sorkunekin (aspaldiko laguna eta batera hauekin proiektu askotan ibilitakoa) AEBetan desertuan diskoa grabatu eta kaleratu zutelako.

**DOINU GOGOR IREKIAK**

Seguruenik, horren ondorioz, Vicepresidentes taldeak bestelako doinuak hartu ditu bere baitan, ez hain muturrekoak. Sludge-rock, thrasha, stonerra eta rocka batzen ditu modu bortitz eta gogorrean; lehen baino soinu irekiagoak lortuz. Are gehiago, Sorkunekin grabatutako kantu batzuk ere interpretatzen dituzte, baina Kandak abestuta.

Hirukote gogorra eta irmoa da Gasteizkoa, eta batez ere bateria jotzailea nabarmentzen da, izugarrizko erritmo aniztasun handia lortzen duelako. Jendea adi izan zuten kontzertuan.



Kanda gitarra jotzaile eta abeslaria guztia ematen eskuman, eta baxu jotzaile berria ezkerrean. IKER BARANDIARAN



Hainbat eta hainbat lagunek skate guneko tabernatik jarraitu zuten saioa. J.A.



Estatuko skaterrik onenak etorri ziren barikuan Bergarara, Lainon erakustaldia egitera. J.A.

**SKATEA** > LAINO

# Bergarako Laino skate parkeak bikain hasi du bere ibilbidea

Egubakoitz arratsaldean inauguratu zuten Amillaga kalean ireki duten lokala. Espainiako Estatuko lehen parke estalia da

**GOIATZ ARANA** > BERGARA

Ez zen lan erraza izan bariku arratsaldean, Bergarako Amillaga kalean edo inguruetan autoa uzteko lekua aurkitzea. Lehenago Oki Park umeentzako jolasparkea zegoen tokian, Laino skate parkea jarri dute orain eta bariku arratsaldean inaugurazio ekitaldia egin zuten. Nerabe eta gazte, jende mordoa batu zen eta gozatu egin zuten Iban Rivado, Alain Goikoetxea eta Ibon Mariñoren saioei begira; Espainiako skaterrik onenak dira, kirol horri buruzko aldizkarietan uneotan ikusten diren aurpegiak eta, Bergaran ere, bikain aritu ziren. Maila goreneko skate erakustaldiarekin eman zieten hasiera inaugurazio eguneko ospakizunei, beraz; eta musika festarekin amaitu zuten.

**LEHEN SKATE PARKE ESTALIA**

Bergara, Debagoiena, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako jendea batu zen Lainon, bere ibilbideko lehen egunean eta, aurrerantzean ere, bertako jendea ez ezik, kanpotik etorritakoa ere espero dute Hodei Elexpuru eta Alex Molano arduradunek. Izan ere, AEBetan eta Europan badira skate parke estaliak, baina Bergarakoa lehena da Espainiako Estatuan.

Patinatzeko guneak 300 metro koadro inguru ditu eta bertan *U* formako bi malda eta kalea imitatzen duen *street* gunea –hesi, eskailera eta abarrekin– daude. Taberna eta skate materiala saltzeko denda ere jarri dituzte. Astelehenetik eguenera eta domekatan 09:00etatik 22:30era egongo da zabalik; egubakoitz eta zapatuan, 00:30era arte.

**ZINEMA** > FILM LABURREN LEHIAKETA

## Bergaran egindako beldurrezko film laburra irabazle, Kutxak antolatutako lehiaketan

Kutxako Gaztetxoen Elkarteak antolatutako beldurrezko film laburren lehiaketa irabazi du Bergaran grabatutako filmak

**MIREN ARREGI** > BERGARA

Irunen, Donostian, Tolosan eta Bergaran egin dituzte beldurrezko film laburrak; Bergaran egindakoak irabazi du lehen saria.

Zinemagintza tailer txikia egin zuten Gipuzkoatik etorritako hamasei gaztetxok Kutxaren Gaztetxoen Elkarteak antolatuta joan den urriaren 17an Bergarako Migel Altunan. Zapatuan izan zen sari banaketa eta film laburren aurkezpena Donostiako Victoria Eugenia Antzokian.

Bergaran grabatutako lana izan da onena epaimahaiaren ustez; talde horretan lau gazte debagoiendar daude.



Beldurrezko film labur onenaren saria jasotzen Victoria Eugenia Antzokian. GOIENKARIA

**MUSIKA** > RAT CITY RIOT ETA FIGHTBALL

## Punk-rocka eta street-punka eguenean Arrasateko Hiru aretoan

AEBetako Rat City Riot eta Alemaniako Fightball taldeak Europatik barrena bira egiten dabiltza egunotan

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Hasi dira poliki-poliki Arrasateko Hiru aretoko arduradunak programazioa borobiltzen; eta eguenean, hilaren 5ean, atzerriko taldeak izango dira.

San Diegoko (AEB) Rat City Riot eta Alemaniako Fightball Europatik barrena bira egiten dabiltza, eta Euskal Herriko emanaldi bakarra Arrasaten egingo dute, 22:00etan (5 euro).

**TALDE OSO BETERANOA**

AEBarrak beteranoak dira –700 kontzertutik gora egin dituzte– eta joan den astean Aggressive Combatekin agertokia partekatu zuten Alemanian. Punk-rock gitarrero eta melodikoa egiten dute. Alemanek, berriz, street-punka eta punk-rocka batzen dituzte.

> BERTSOLARITZA TXAPELKETAKO FINALERDIA

### 1.500 lagunendako tokia ipiniko dute datorren zapatuan Labegaraietako kiroldegian

Datorren zapatuan, hilak 7, Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehen finalerdia jokatuko da Bergarako Labegaraieta kiroldegian 17:30ean; Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio, Beñat Gaztelumendi, Etxahun Lekue, Fredi Paia eta Jon Martin entzuteko aukera izango da bertan.

Labegaraietako kiroldegian izango da saioa; izan ere, pilotalekuan baino jende gehiagorendako tokia dago; guztira, kantxa eta harmailak erabilita, 1.500 bat lagun sartuko dira kiroldegian.

ASTE BUKAERA...

## Luis Laskurainekin



Zapatu goizetan ere estudioan egoten da Luis Laskurain bergararra, margotzen. JOSETXO ARANTZABAL

# "Bidaiak, irteerak... aisialdiko ekintza guztiak pinturarekin lotzen ditut"

Luis Laskurain bergararrak Suradesan egiten du lan, baina gehienek margolari gisa ezagutzen dute

Oñatin eta Arrasaten eskolak ematen ditu, eta beste margolari batzuen erakusketak antolatzen ditu

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA
Luis Laskurain (Bergara, 1951) margolari gisa ezagutzen dute askok. Baina Debagoieneko Mankomunitateko egoitzan bulegoa duen Suradesa enpresan egiten du lan. Hain zuzen ere, 1984a ezkero dihardu Debagoieneko etxebizitzen ondarea birgaitzeko helburuarekin sortutako enpresan. "Gehienek margolari moduan ezagutzen naute, eta berrikuntzak egiteko laguntza esker datozenean harritu egiten dira", esan digu. Etxeak barrutik eta kanpotik eraberritzeko laguntzak ematen dituzte.

Suradesan goizez egiten du lan, eta handik irteten denean bazkaldu eta arratsaldeko orduak antolatzen ditu. Lanetik kanporako ordu guztiak pinturaren inguruan antolatzen dituela esan digu: "Beti esaten dut egunak 24 ordu dituela guztiondako, eta norberak antolatu behar ditueла. Nik egunean libre ditudan ordu gehienak margoari eskaintzen dizkiot".

**PINTURA IRAKASLEA**
Produkzio lanaz gain, eskolak ere ematen ditu: astean bi egunetan Oñatin ematen ditu eta beste egun baten Arrasaten. "Gustura ibiltzen naiz ikasleekin. Batzuek urte asko daramatzate nirekin eta izan duten bilakaera ikustea pozgarria da niretako". Gaineratu digu eskolak ematen talentu handiko pertsonekin egin duela topo. "Margotzeko teknikak ikasi eta hobetu egin daitezke, baina margolari senarekin jaio egin behar da".

**GEHIENETAN, OLIOA**
Ez daki zenbat margolan pintatu dituen, baina gogoan du lehena 4 urterekin egin zuela. Margolanak ez dituela oparitzen, enkarguz lanik egiten ez duela eta gehienetan olio lanak egiten dituela esan digu: "Olioa atsegin dut gehien. Bide beretik joatea gustatzen zait. Dena den, aldika, akuarelak eta pintura akrilikoak erabili izan ditut".

Aisialdian egiten dituen ekintzak pinturarekin lotzen ditu. Bidaiatzea, paseatzea eta kirola egitea gustatzen zaio, eta, gehienetan, margolaritzarekin zerikusia izaten dute. "Bidaiak egitea atsegin dut, eta gehienetan erakusketak antolatzeko egiten ditut. Inguruko herrietan, Euskal Herrian, Madrilen eta Iruñean egin ditut erakusketak, besteak beste. Era berean, New Yorken egon nintzen iaz. Hortaz, erakusketaren aitzakian leku horiek guztiak bisitatu ditut", esan digu. Halakoetan, gainera, familiarekin batera joaten dela kontatu digu.

Mendia eta natura ere atsegin ditu, eta paseatzera joaten denean koadroetarako ideia bila joaten dela esan digu. Horixe da-eta margolan bat egiteko prozesuaren lanik zailena, Laskurainen ustez: "Gaia topatu, margolana nola antolatuko dudan zehaztu, koloreak aukeratu... Horixe da zailena. Aurreko lan horrek guztiorrek sortzen dit zirrara handien. Ideiak garbi ditudanean, erraza da pintzela hartu eta margotzen hastea". Eta pintzela hartu ondoren, 9-10 bat egun behar ditu margolanak bukatzeko.

### "Hurrengo urtean erakusketak egingo ditut Miamin eta Parisen, besteak beste"

Luis Laskurainen ametsa Madrilgo Pardo museoan erakusketa egitea da, baina beste hainbat lekutan izan ditu lanak ikusgai. Une honetan Miamin ditu 25 pintura. 2010. urteari begira beste hainbat egiteko asmoa duela esan digu: "Urtarrilean Parisen jarriko ditut koadroak, eta apiril aldera Miamira itzuliko naiz berriro ere. Aurretik, azaroan, Madrilen egingo dut erakusketa". Aukera horiek guztiak lortu aurretik ate asko jo dituela esan digu.

Era berean, beste margolari batzuen erakusketak antolatzen ditu. Irakasle izan zuen Arrietaren gaineko erakusketa egin zuten Bergaran duela gutxi. Lanik ezezagunenak jarri zituzten ikusgai, eta jendeak erakusketa ez zuela ulertu esan digu: "Ez da erakusketa antologikoa izan, Arrietaren lan ezezagunenak erakutsi genituen-eta. Askok ez dute esanahia ulertu eta kritikak jaso ditugu. Dena den, ikusle asko egon ziren".

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aizarnazabal.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza salgai Aizarnazabalen. Prezio oso interesgarria (180.000 euro). Behe solairua izan arren, argitsua da. 2 logela ditu, komuna, sukalde amerikanoa eta egongela-jangela. Komuna izan ezik, beste guztia kanpora begira. Altzari eta guzti dago salgai. Ingurune lasaian dago. 637 51 33 04ra deitu.

**Antzuola.** Sagasti auzoan 89 metro koadroko etxebizitza salgai edo errentan. Sukaldea, hiru gela, egongela, bi bainugela, bi balkoi eta despentsa. Jantzita utziko genuke. Garaje itxiarekin. 687 11 07 21

**Beasain.** Pisu oso zentrikoa Beasainen. 105 metro koadro, 4 logela, 2 bainugela, balkoi eta terraza. Ia berria, material eta eraikuntza kalitate handikoa. La Salle ikastetxetik oso gertu. Armairu eta altzariak, berogailua, parketa, sukaldeko elektragailu guztiak, garbigailua. Garaje itxia aukeran. Argazki eta informazio gehiago nahi badituzu *www.ttiki.com/6609* webgunean dituzu. Telefonoa: 656 73 11 43

**Berriatua.** Etxebizitza salgai Berriatuan. 72 metro koadro. Bi logela, komuna eta sukalde-egongela. Berriztua eta guztiz jantzia hartzeko aukera. Prezio negoziagarria. Deitu 94 616 64 19 edo 94 613 90 56 telefonora.

**Olazti.** Etxea Olaztin. Herrigunean dagoen etxe bat salgai Olatzagutian. 120.000 euro. Deitu 650 53 79 83 telefonora.

**Oñati.** Kale Zaharrean etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea, egongela, trastelekua eta komuna. Kanpoaldera begira. Ia berria. Sartzeko prest. 230.000 euro. 606 24 21 21

**Uharte Arakil.** 175 metro koadrokoa. Sukaldea, egongela tximiniarekin, hiru logela, bi komun, 50 metro koadroko garajea. Deitu 615 743 490 telefonora.

### 102. EROSI

**Arrasate.** Berriztatzeko baserria, etxea edo txaleta erosiko nuke Arrasate-Garagartza edo Gesalibarren. Interesatuok, mesedez, mezu bat bidali *gurekontaktua@gmail.com* helbidera edo telefonoz deitu. 689 54 32 85

**Oñati.** Lau logelako etxebizitza erosiko nuke. Deitu 677 42 52 05 telefono zenbakira.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Altsasu.** Lau logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Guztiz jantzia, bizitzera sartzeko prest. Telefono zenbakia: 620 12 43 85

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logelarekin. Oso ondo kokatuta dago eta berokuntza zentrala dauka. 659 44 86 79

**Bergara.** Alde zaharrean etxebizitza errentan. Bi logela. Berritua eta jantzita. Deitu telefono zenbaki honetara:605 73 37 39

**Eibar.** Logela alokagai Eibarren. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 669 175981.

**Luz Saint Sauveur.** Etxebizitza ematen da errentan eski denboraldirako. 670 49 84 28

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzita. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. 650 euro. Deitu telefono zenbaki honetara:645 71 98 84.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 679 09 33 34

**Bergara.** Errentan, konpartituz nahiz bakarrik, pisu baten bila nabil. Edurne naiz eta 33 urte dauzkat. 653 38 56 12

**Bergara.** Errentan hartzeko pisu bila nabil. 697 88 35 62

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Harremanetarako telefono hauetara deitu: 600 25 98 54 edo 687 61 63 00

**Debagoiena.** Bikotea. Urtarrilaren 1etik aurrera bi gela edo gehiagoko pisua alokatzeko prest. 665 72 79 38 edo 635 70 96 43

**Lekeitio.** Lekeition urte osorako errentan hartzeko pisu txiki baten bila nabil, 1 edo 2 logela. Telefonoa: 658 70 19 53

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. 270 euro. Deitu 618 00 08 28 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Unibertsitatetik oso gertu dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. 647 41 93 34.

**Arrasate.** Erguin aldean pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 628 76 25 00 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko ikasleak behar ditut. Uriburu kalean, Erguinen, unibertsitatetik gertu. Merke. Deitu 663 72 37 44 telefono zenbaira

**Donostia.** Amaran, topo eta autobus geltokitik hurbil gela bat alokatzen da emakume euskaldun batentzat. Berdin ikasle edo langile. Pisua konpartitua da eta gehienez 3 lagunekoa. Gela argitsua, balkoiarekin eta gelan telebista dauka. Deitu 943 65 16 92 telefonora.


KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 82 m$^2$. Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 m$^2$. Berritua.
- Aranerreka 85 m$^2$. Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m$^2$. Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 m$^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m$^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 m$^2$. Berritua.
- San Antonio, 46 m$^2$. Berritua.
- Masterreka. 46 m$^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m$^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m$^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m$^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 m$^2$. Ganbararekin.
- Osintxu 64 m$^2$. Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m$^2$. Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m$^2$. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m$^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 m$^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m$^2$. Berritua.
- Zubiaurre 52 m$^2$. Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak.**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m$^2$. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m$^2$. Berritua.
- San Roke 80 m$^2$. 80 m$^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m$^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.



Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**
**www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.
- LOKALA SALDU/ALOKATU.
- GARAJEA SALDU/ALOKATU.
- MOTORRA SALDU.

GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**

MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 23 € (BEZ BARNE).

GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 31 € (BEZ BARNE).

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.



DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 m$^2$, ondo.
- Arrizuri, 97 m$^2$, garajearekin.
- Matxiategi, 88 m$^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m$^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m$^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m$^2$, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m$^2$, berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m$^2$, berria, garajea eta trastelekua.
- Zubiaurre, 55 m$^2$, 84.142 euro. Negoziagarriak.
- Martoko, 87 m$^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m$^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 m$^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m$^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m$^2$, berritzeko.
- Zabalotegi 80 m$^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m$^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m$^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m$^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 m$^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m$^2$, berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m$^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m$^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m$^2$, oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m$^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 m$^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 m$^2$, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m$^2$, erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m$^2$, ia berria.
- Adosatuak eta bifamiliarrak. Eraikuntza berriak.


## 2/ GARAJEAK

### 202. EROSI

**Bergara.** Garaje itxia erosi nahi dut erdialdean. 635 20 81 22.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Altsasu.** Garaje plaza alokatzen dut Altsasuko Otadiako pisu berrietan. 649 385 248.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Garajea errentan hartuko nuke. 679 62 69 64.

**Oñati.** Garaje bat hartuko nuke errentan San Lorentzon. 665 73 51 59

## 3/ LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena.** Taberna hartuko nuke errentan. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 638 10 29 63


**ARRASATE**

**Herriko plazan martxan dagoen taberna txikia errentan ematen da. Sukaldea du. Aukera ona. 605 76 08 29**


## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Pertsona behar dugu urtebeteko haurra zaintzeko, goizez (08:00etatik 10:00-11:00ak arte). Deitu 17:00etatik aurrera. 607 57 73 73


Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA • TRABAJO TEMPORAL
**ALDIBATEKO LANA**
**943-16 20 48**
Senpere,7 (zentru komertziala)
BEASAIN
Ikusi lan eskaintzak:
www.ikolanaldi.com


**Bilbo.** Orduka, goizez, Bilbon haurrak zaintzeko prest legoken norbaiten bila gabiltza. Monika: 652 76 62 88

**Goierri.** Bertako neska batbehar da Beasainen ume bat zaintzeko eta garbiketa egiteko. Esperientziaduna. Ondo ordaintzen da. 609 41 38 97.

### 402. ESKAERAK

**Altsasu.** Adin ertaineko emakume altsasuarrak bere burua eskaintzen du haurrak zaindu, adineko pertsonak atenditu edo etxeko lanak egiteko. Deitu 654 23 08 66 telefonora.

**Aretxabaleta.** Alfonbra eta moketak garbitzen ditut, lehorrean, etxez etxe. 659 62 02 49

**Arrasate.** Umeak zaindu edo garbiketak egingo nituzke. 649 30 13 60

**Arrasate.** Hemengo neska prest edozein lanerako,orduka ere bai. 659 55 27 16

**Arrasate.** Emakume arduratsua gertu umeak zaintzeko. 943 79 77 54 edo 646 63 75 03

**Arrasate.** Neska euskalduna eguerditan etxeak zein atariak garbitzeko prest. 663 04 53 99

**Arrasate.** Arrasateko neska gazte euskalduna arratsaldez lan egiteko gertu umeak zaintzeko edota etxeak garbitzeko prest. Esperientzia handikoa. 618 41 24 79 edo 943 08 14 25

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientzia duena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 606 42 64 14

**Azpeitia.** Lan bila nabil. Azpeitian, denda edo kafetegi batean lan egitea nahiko nuke. Idatzi mezu bat *eargia@gmail.com* helbide elektronikora edo deitu 647 08 10 15 telefonora eta Ainhoarengatik galdetu.

**Bergara.** Urte askoko esperientzia duen neska gertu sukalde laguntzaile lan egin edota etxez etxe nagusiak zaintzeko. Deitu 637 18 07 23 telefonora.

**Bergara.** Esperientziadun emakumea gertu orduka etxeko lanak egiteko. Deitu 622 60 84 68 telefono zenbakira.

**Bergara.** Neska bergararra gertu etxeak garbitu, nagusiak zaindu edo bestelako lanetarako. 943 53 29 18

**Bilbo.** Aisialdia edota hezkuntzarekin harremana duen lan baten bila dabilen ikasle unibertsitario euskalduna. Begirale ikastaroa egina eta esperientzia zabala. 690 72 37 51

**Busturialdea.** Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest. Gernika eta inguruko herrietan, oro har, Busturialdean. Deitu 680 53 84 42 telefonora.

**Deba.** Emakume euskalduna ospitalean jendea orduka zaintzeko prest. Deitu 665 74 18 66 zenbakria. Marian.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu goizetan pertsona nagusiak zaintzeko. Deitu 635 25 54 44 telefonora,

**Debagoiena.** Mutil euskalduna gertu asteburuetan edozein lan egiteko prest: zerbitzari, garbiketak, konponketak eta abar. Merke. Deitu telefono zenbaki honetara:686 99 23 94

**Debagoiena.** Mutil esperietziaduna gertu nagusiak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. Gauez ere bai. Baserrietara joateko arazo barik. Deitu: 648 06 84 71

**Debagoiena.** Gertu nago adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Garbiketa lanak ere egingo nituzke, egunez zein gauez, eta orduka. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 638 54 75 93

**Debagoiena.** Gazte arrasatearra muntatzaile edo zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientziaduna. 605 76 05 59

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu sukalde laguntzaile edo zerbitzari lanetarako. 610 82 02 17

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko gertu nago. Eli Cerezo. 630 20 12 03

**Debagoiena.** Bergara eta Arrasate. Emakumea garbitasun lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Eguneko edozein ordutan egin dezake lan. 650 62 12 94

**Debagoiena.** Esperientziadun neska euskalduna gertu nagusi zein umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Baita zerbitzari jarduteko ere. Informeak ditut. 671 35 22 60

**Debagoiena.** Josteko makinak konpontzeko gertu nago. 652 07 63 50

**Debagoiena.** Lau urteko esperientziadun neska nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bizi izaten ere bai. 626 78 22 95

**Debagoiena.** Gazte arrasatearra edozein lan egiteko prest. Esperientziaduna zerbitzari lanetan eta makina muntaketa lanetan. 605 76 05 59

**Debagoiena.** Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Mutila gertu edozein garbiketa egiteko: atariak, bulegoak... 650 14 69 10

**Debagoiena.** Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Neska gertu garbiketa lanetarako (10 euro orduko) edo nagusi zein umeak zaintzeko (9 euro orduko). Deitu 618 00 08 28 edo 943 79 82 43 telefono zenbaietara.

**Debagoiena.** Bergara eta Arrasate. Gidabaimena duen mutila atariak garbitu, elkarteak garbitu edo beste edozein lan egiteko gertu. Deitu 685 70 76 25 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Asteburuetan edozein txakur edo animalia zaintzeko eta paseatzera ateratzeko prest. Merkea. Deitu 686 99 23 94 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua arratsaldez edo astebukaeratan pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Deitu 697 93 73 32 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea edozein lan egiteko prest. Socorro Mora Soria. 627 14 63 79

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak zaindu edo supermerkatuetan lan egiteko gertu. Paperak ditu. 636 01 91 12

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan ere biziko nintzateke. Bost urte daramatzat hemen eta legezko paperak dauzkat. 646 78 81 40

**Debagoiena.** 30 urteko gaztea gertu lanerako. Geriatria laguntzaile titulua daukat. Beste edozein lanetan aritzeko ere prest egongo nintzateke. Ordutegi arazo barik. 685 70 76 25

**Debagoiena.** Antzeko lanetan esperientzia duen emakumezko batek lan egingo luke helduak zein umeak zaintzen. Ordutegi malgua eta lanerako prestutasuna. Deitu 669 02 91 30 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Instalazio elektrikorako eta mantenurako lanak egiteko gertu egongo nintzateke. Elektrikaria naiz, teknikari komertziala. Javi. 669 49 83 24 edo 680 30 30 52

**Debagoiena.** Iturgin laguntzaile lanak egingo nituzke. Magno Alberto. Deitu 600 76 43 14 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Jantzi dendan saltzaile bezala lan egingo nuke. Urte askoan dendan ibilitakoa. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara:627 96 19 22

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Deitu 638 10 29 63 telefono zenbakira

**Debagoiena.** Mutila astebukaeratan zerbitzari lanak egiteko gertu. 661 86 23 62

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari, sukalde laguntzaile edo furgoneta gidari lanetarako. Legezko paperak dauzkat. Deitu 628 48 05 41 edo 943 71 21 15 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: tabernan, garbiketak lanetan, baserriko lanetan... 671 45 96 26

**Debagoiena.** Neskaesperietziaduna gertu nagusiak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. Gauez ere bai. Baserrietara joateko arazo barik.Deitu 660 37 20 47 telefonora.

**Debagoiena.** Neskaeuskalduna gertu lan desberdinak egiteko: umeak zaindu, garbiketa lanak... Deitu 636 05 36 18 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Neska gertu edozein lanetarako. Deitu 679 17 11 35 telefono zenbakira

**Debagoiena.** Neska gertu zerbitzari, garbiketa edo ume zein nagusiak zaintzen lan egiteko. Legezko paperak dauzkat. Deitu 628 48 05 41 edo 943 71 21 15 telefonora.

**Debagoiena.** Ordenagailuak konpontzen ditut etxean bertan. 697 66 79 37

**Debagoiena.** Emakumea edozein lanetarako gertu. Ana Luis de los Santos. Deitu 671 27 78 36 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona edadetuen zein haurren zainketa lanak egiteko. Etxean bizi izateko prest. Deitu 663 65 78 43 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, edota garbiketa lanak egiteko. Orduka edo gauez. Deitu 678 23 54 93 telefonora.

**Donostia.** Nikaraguako mutil bat naiz eta Donostian bizi naiz, bertan edo inguruko herrietan lanen bat egiteko prest nago. Adineko pertsonak zaintzen edota beste edozertan. Interesatuek deitu 943 65 40 57 telefonora.

**Donostia.** Neska euskalduna, haur hezitzailea, haurrak zain-

tzeko prest.Donostia eta inguruko herrietan, edozein ordutegitan. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromisorik gabe.616 38 31 64

**Eibar.** Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo etxeko lanetarako. Interna edo externa. 675 42 19 33 edo 666 77 11 51. M Estela.

**Eibar.** Neska eskaintzen da arratsaldez umeak zaindu edo kamarera lanetarako. Tel. 697 939085.

**Eibar.** Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. 943 17 15 83 edo608 47 49 23.

**Eibar.** Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu, sukaldari-laguntzaile moduan eta abar. 690 15 60 40.

**Eibar.** Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Telefonoa: 678 30 59 27.

**Eibar.** Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeak edo pegorakgarbitzeko. 663 78 69 76.

**Eibar.** Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. 610 93 68 39.

**Eibar.** Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Harremanetarako telefonoa: 638 93 83 07.

**Eibar.** Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Telefonoa: 691 69 29 64.

**Gernika-Lumo.** Txapista naiz baina edozein lanetarako prest nago. Deitu telefono hauetara 94 625 70 80 eta 676 60 75 68

**Irura.** Giza elikadura eta dietetikan diplomatua naiz eta honekin zerikusia duen lanen baten bila nabil. Irati. Harremanetarako:697 52 20 48

**Markina-Xemein.** 23 urteko neska euskalduna eskaintzen da etxeak garbitu, umeak zaindu edota ostalaritzarako. Gidabaimena eta kotxea dauzkat. 696 79 41 00.

**Tolosaldea.** Emakume euskalduna, arduratsua eta esperientzia handikoa eskaintzen da egunez zein gauez adineko pertsonak edo gaixo daudenak zaintzeko. Gida baimena eta autoa baditut. Interesaturik egonez gero deitu lasai eguneko edozein orduetan telefono zenbaki hauetara: 943 57 74 09 edo 680 24 42 81. Erreferentziak ere baditut. Posta: *mariapilargarmendia@gmail.com.*

**Tolosaldea.** Neska senegaldarra, adinekoak zaintzen lan egingo nuke, eragozpenik ez interna sartzeko. Haurrak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko ere prest nago. 943 65 40 57.

**Tolosaldea.** Tolosaldeko neska bat naiz eta astegunez arratsaldetan lan egiteko prest nago, haurrak zaintzen, tabernan... 616 07 70 06.

**Tolosaldea.** Emakume euskalduna eskaintzen da goizez lan egiteko: haurrak zaindu, etxeko lanak egin... edo ostalaritzan aritzeko prest. 629 41 38 24

Etxebila higiezinak
943-44 61 66

**EGIA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 33.000.000
**EGIA** Duke Mandas. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 49.990.000
**INTXAURRONDO** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. Polita. 35.500.000
**AMARA** Madril Etorb. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. 49.000.000
**AMARA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 38.625.000
**AMARA** Apartamentu polita. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Argitsua. 39.900.000
**AMARA** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Altua. 43.500.000
**AMARA** 100m2. 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. 58.000.000
**AMARA** 2 logela, egongela bikoitza, sukaldea, bainugela. Berritua. 41.500.000
**AMARA** Atikoa. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 39.950.000
**LOIOLA** Aralar Mendilerroa. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 36.000.000
**LOIOLA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 24.900.000
**MARTUTENE** Balkoia. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. 34.300.000
**ALZA** 3 logela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 29.990.000
**LEZO** 75m2. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Eguzkitsua. 32.000.000
**LASARTE** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 32.950.000
**PASAI ANTXO** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela.Kanpora begira.25.950.000
**PASAI DONIBANE** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Polita. 25.950.000
**ERRENTERIA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Oso polita. 36.900.000

**ALOKAIRUAN**

**AMARA** 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. 800€
**USURBIL** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Jardina. 650€
**LEZO** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Oso polita. 650€

www.etxebila.net
www.etxebizitza.iragarkilaburrak.com
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Batxilergo teknologikoko eskola partikularrak etxean emango dizkidan norbait behar dut. 669 63 52 25

**Arrasate.** Mutiko bati 6. mailako eskola partikularrak emango dizkion neska behar dugu. Eskola laguntza, etxeko lanak egin eta abarretarako. Kristina. 617 36 67 96

**Bergara.** Gaztelaniazko solasaldiak izateko norbait beharko nuke. Alemana naiz eta gaztelania hobetu nahi dut. Trukean, alemana erakutsiko nioke interesatuari. Johanna. Deitu:689 33 30 75

**Bergara.** Eskola partikularrak jasoko nituzke. DBHko 4. maila. 18:00etatik aurrera deitu. Pilar. 943 76 16 42

### 502. EMAN

**Arrasate.** Ingeniaritza Industriala ikasten ari naiz eta DBH, LH edo batxilergoko eskola partikularrak emango nituzke: matematika, fisika, kimika, teknologia eta abar. 659 72 73 59

**Arrasate.** Ingeniaritza ikasi duen mutil batek Lehen Hezkuntza, DBH eta batxilergoko eskola partikularrak emango lituzke. 664 66 73 09

**Arrasate.** Neska euskalduna Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak emateko prest. Eguerdietan deitu. 663 04 53 99

**Bergara.** LH, DBH eta batxilergo zientifikoa dituen neska euskalduna. Orain Enpresaritza ikasketak egiten ari naiz. Idurre. 676 25 22 22 edo 943 76 03 34

**Bergara.** Ingeleseko eskolak emango nituzke Bergaran. Maila guztiak, azterketetarako prestakuntza barne. Ingeles komertzialean esperientzia dut. 618 91 32 89

**Bilbo.** LH, DBH eta Natur eta Osasun Zientzien batxilergoko ikasleei klase partikularrak emateko prest dagoen ikasle unibertsitario euskalduna. Esperientzia dut haur eta gazteekin. 690 72 37 51

**Debagoiena.** Ingeles komunikatibo eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketak prestatzeko edo eskola laguntza. 15:00etatik aurrera. Merke.

**Debagoiena.** Komunikazioa. Ingelesezko nahiz euskarazko elkarrizketa saioak eskaintzen ditut (one to one), hizkuntza hauetan hitz egiten trebatzeko, Oñati edo Arrasaten. 656 74 29 49

**Donostia.** Ingenieritza teknikoko ikasketak ditut eta klase partikularrak emango nituzke Donostialdean zientzietako ikasgaietan,alegia, matematika, fisika, kimika, eta abar. DBH eta Batxilergoko ikasleak hartuko nituzke. Esperientziaduna. 646 15 04 30.

**Donostia.** Ingleseko klase partikularrak ematen ditut baita mintza praktikak ere. Kanpoan egona eta egunerokotasunean erabiltzen dut. Psikologian lizentziatua naiz. Donostia eta inguruan. Telefonoa: 665 70 22 96

**Eibar.** LH, DBH eta Batxillergoko partikularrak emateko mutila prest. 630 81 77 87

**Gernika.** Esperientziadun irakasleak talde txikitako klase partikularrak eskaintzen ditu Gernikan lehen hezkuntza eta DBH-ko ikasleentzako. Kontaktua: 656 77 20 12 (Nahia)

**Gernika-Busturialdea.** Neska euskalduna klase partikularrak emateko prest. Printzipioz Gernika inguruan, oro har, Busturialdean. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik. 680 53 84 42

**Iruñea.** Matematika, kimika edo fisikako klase partikularrak ematen dira, Iruñean. Bakoitzaren etxean (15€), edo nire etxean bertan (12€). Idatzi helbide honetara: *aitziberarbide@hotmail.com.* Mila esker.

**Oñati.** Ingeniaritzako ikasketak ditut eta Lehen Hezkuntzako, DBHko edo batxilergoko eskola partikularrak emateko prest nago (matematika, marrazketa, fisika eta abar). Deitu 678 27 27 57 telefono zenbakira.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Citroen Xsara 1.9 D salgai.** Citroen Xsara 1.9 D salgai. 1998koa. 166.000km. Oso egoera onean. 1.200 euro. 629 15 79 29

**Opel Corsa salgai.** Opel Corsa 1.7 D salgai. Interesatuek 696 23 74 16 telefonora deitu.

**Toyota Previa monobolumena salgai.** 7 plazakoa. Oso ondo zainduta. 650 40 25 66.

**Kawasaki Z750 salgai.** 2007koa. Kolore beltza. Oso egoera onean. 12.000 kilometro, azterketa denak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 660 33 77 16

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Kanarioak** salgai. Interesatuek deitu zenbaki honetara eta galdetu Mikelengatik. 635 75 54 53.

**Lau untxi** salduko nituzke. Deitu 17:30etik aurrera 665 74 91 27 telefono zenbakira.

**Ardiak salgai.** 150 ardi saltzen dira, latxa arrazako 300 ardi gaztez osatutako artalde batetik. Interesatuek deitu telefono zenbaki hauetara: 606 04 44 36 edo 943 88 09 45

### 703. EMAN

**Katakuneak oparitzen dira.** Katakumeak oparitzen dira, nahi badituzu deitu 657 73 45 78 telefono zenbakira.

### 704. BESTELAKOAK

**Katua.** Urriaren 10ean katu hilegorria galdu genuen Bergarako Labegaraietan, Santa Katalina auzoan. Aiki izena du. 943 76 33 78 .

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Altzariak salgai.** Etxe aldaketagatik. Egongela, bikote logela, ordenagailu mahaia eta Fagor etxeko etxetresnak. Denak batera (prezio hobean) zein banaka. Oreretan. Informazioa eta argazkiak ikusteko idatzi mezu bat *mikel_muebles@live.com* e postara edo deitu 943 00 23 11 telefonora.

**Aluminiozko hagunak.** Aluminiozko hagun saltzen ditut, kubiertekin. Neurriak: 185/60 R14 Harremanetarako deitu telefono zenbaki honetara:638 10 29 63

**Berogailuak.** Ecotermi etxeko 5 berogailu salgai. Bata, Ecotermi 570 w 5 difusore 100 e; hiru, Ecotermi 600 w 5 difusore 150 e/bak; eta bestea, Ecotermi 1000 w 9 difusore 200 e. Egoera onean. Guztiak 750 euroan. 605 77 54 64

**Bideokamera.** Sanyo etxeko Xacti HD1A bideokamera salgai. Argazkiak 5mp egiteko aukeran eta bideoa HD formatoan. Txikia, oso egoera ederrean eta bere osagarri guztiekin. Bi bateria oparitzen ditut. 200 euro. 636 43 85 40

**Bikiendako karro-kapazoa.** Bikiendako Arrue etxeko karrokapazoa salgai. 2008koa. Oso praktikoa eta egoera bikainean. Lasai deitu telefono zenbaki honetara: 649 00 53 42

**Bikiendako karroa.** Bikiendako karroa hartu edo erosiko nuke. Harremanetan jartzeko deitu zenbaki honetara: 650 57 36 07

**Dendako mostradorea eta hozkailua .** Dendako mostradorea eta hozkailua salgai. Hots egin 948 46 07 65 telefonora.

**Dendarako altzariak.** Dendarako altzariak saltzen ditut: mostradorea, erdiko mahai handia, bitrinak eta esekitzekoak. Deitu:627 96 19 22

**Ibiltzeko zinta** elektrikoa salgai. Domyos etxekoa. Lau programa ezberdinekin. Berria. 270 euro. 652 76 25 41

**Liburu zaharrak.** 1953. urteko liburuak saltzen ditut. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 696 84 19 51

**Masaje aparatua.** Hankak urarekin masajeatzeko aparatu elektrikoa salgai. 608 36 26 07

**Monozikloa saltzen dut.** Monty etxekoa. Pare bat aldiz bakarrik erabilia, berria. 100 euro. 605 73 07 77

**Nokia 6124** telefonoa salgai. Vodafone etxekoa. 30 euro. 617 13 17 51

**Patinetea.** Umeen karrorako patinete unibertsala salgai. Deitu telefono zenbaki honetara: 650 96 23 08

**Pedalera.** Gitarra akustikorako pedalera salgai. Erdi prezioan. Harremanetarako deitu zenbaki honetara: 943 77 19 20

**Patinetea.** Umeen karrorako patinete unibertsala salgai. 650 96 23 08

**Play 2** saltzen dut: 50 joko, memoria-txartela eta urrutikokontrolarekin. 150 euro. 659 68 06 06

**Routerra.** Haririk gabeko routerra salgai. Telefonicako Amper Zyxelarekin batera. 608 36 26 07

**Stokke kuma eta mini-kuma.** Stokke kuma eta mini-kuma moldagarria salgai; 2 koltxoi, eltxo-sarea eta izarak barne. 0 hilabetetik 5-6 urtera arte moldatzen da, egoera oso onean. Prezioa 330 euro. 639 02 02 75 edo 943 76 55 88

**Umeendako aulkia.** Jane etxekoa. Hiru erruberakoa. Frenoarekin. 80 euro. 608 36 26 07.

### 802. EROSI

**Bankuko bilete eta txanponak** erosten ditut. 688 61 85 02

**Bikiendako karroa** hartu edo erosiko nuke. 650 57 36 07

**Klarinetea.** Bigarren eskuko klarinetea erosiko nuke (Zuriñe) 627 22 45 79

**Lursaila** erosiko nuke Goierri inguruan. Eraikigarria edo ez eraikigarria izan daiteke. Deitu 634 46 41 69 telefonora.

**Oñatin lur saila erosi** edo alokatuko nuke. 609 11 72 96

**Tintinen komikiak euskaraz** erosiko nituzke. Prezioa adosteko. 94 460 74 44. Getxo

**Zilarra** erosiko nuke. Saltzeko badaukazu, deitu 656 75 76 98

### 803. EMAN

**Lazkao.** Zumezko materiala oparitzen da, interesatuak, deitu zenbaki honetara 606 86 58 85.

### 804. HARTU

**Umeen jarlekua.** Bizikletarentzako umeen jarlekua behar dut. Eskarne. 608 49 94 15

### 806. GALDU

**Belarritakoa.** Arrasateko tanatorio inguruan edo Bedoñako eliza inguruan perla iluneko belarritakoa galdu dut. Balio sentimentala du. Aldez aurretik, mila esker. Harremanetan jartzeko deitu: 626 32 04 72 edo 943 76 47 56

**Betaurrekoak.** Eguzkitako betaurrekoak galdu nituen irailaren 20an, igandean, Urbiatik jaisten. Mesedez, norbaitek aurkitu baditu deitu zenbaki honetara. 615 79 27 44

**Giltza sorta Arbizun.** Giltza sorta bat galdu nuen orain dela bi aste Arbizun. Larruzko giltzari bat du. Aurkitu duenak dei dezala 667 26 67 46 telefono zenbakira.

**Haurren erlojua Arbizun.** Haurren erloju morea galdu da Arbizun, erleen marrazkiak dituena. Deitu 686 40 66 14 telefonora.

**Haurren haize babeslea Etxarrin.** Euskal Selekzioko haize babesle beltza, forro polar antzekoa galdu zen Etxarrin. Beltza, haurrena, 8. tailakoa. Deitu 609 88 34 10 telefonora.

**Jertsea.** Neskatilaren jertsea galdu nuen urriaren 9an Arrasaten, Iturriotz eta erdiko kale inguruan. Grisa da eta 3 pommes etxekoa. 649 05 39 68

**Jertsea.** Neskatilaren jertsea galdu nuen urriaren 10ean Arrasaten, Erdiko kale eta San Andres artean. Berde iluna da eta IKKS etxekoa. Mariasun. 676 03 22 71.

**Mendiko bizikleta Arbizun.** Mendiko bizikleta bat galdu zen Nafarroa Oinez egunean Arbizuko Kale Nagusian 19:00ak aldera. Argia, 24 hazbetekoa eta beltza. 626 75 19 19. Martin.

**Urrezko pultsera.** Urrezko pultsera bat galdu nuen joan zen astean. 620 26 80 60.

**Urriaren 12an Nintendo Ds grisa galdu zen.** Urriaren 12an Nintendo Ds grisa galdu zen Zarautzen, bere babes poltsa urdinean zegoen, joko ta guzti. 685 71 75 62.

### 807. AURKITU

**Bergara.** Gabonetako loteria txartel bat aurkitu dut. Galdu duenak dei diezadala. 943 76 26 57

**Eskumuturrekoa.** Eskumuturrekoa aurkitu nuen urriaren 14an, Bergaran, arrandegian. Deitu 943 76 34 51 telefonora.

**Jertse grisa.** Jertse grisa aurkitu nuen irailaren 28an Bergarako Ibargarai kalean, ziburuen parean. Emakumeen jertse grisa da, luzexka eta aurreko aldetik zabalik. 943 76 26 82

**Sudadera.** Irailaren 27ko bolo txapelketa bukatu ondoren sudadera bat aurkitu nuen, norbaitek ahaztuta. Jabeak Kurtze Baltz elkartean berreskura dezake, astegunetan 20:00 aldera. 943 78 14 21 edo 943 53 42 13.

## 9/ HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Mutil bila.** 40 urteko mutil bat naiz eta beste mutil batekin harremanak izan nahiko nituzke. Ahal balitz, gazteagoarekin. Asmo bera baduzu, bidali sms mezu bat hona. Nire aldetik, diskrezio osoa. 665 75 58 74

**Neska bila.** Kaixo! Donostiako 32 urteko mutil ezkondua naiz eta egoera berdinean dagoen emakume bila nabil konplizitaterako. Interesatuak idatzi *mgpelmaz@gmail.com* helbidera.

### 904. BESTELAKOAK

**Oñatzgain elkartean** sei bazkide gehitzeko zerrenda zabalik. 678 58 14 41

**Oñati-Gasteiz.** Egunero Oñatitik Gasteizera joaten naiz. Lakuan lan egiten dut. Autoa konpartitzeko: 635 20 33 14.

**Donostia Alde Zaharreko Joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entseguetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan guhan egotea nahi baduzu ere bai. *aldezaharrekojoaldunak@gmail.com*

Unzueta sagardotegia



sagardoa txotxetik
•
sagardotegiko menua
•
karta

eguneko menua
•
ospakizunak
•
enpresako bazkariak

Zabola z/g. Aramaio Tel.: 945 44 50 95

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 6 | | | 3 | 2 | | |
| | | | | | 8 | 9 | | |
| | | | 2 | 7 | | | 3 | |
| 9 | | | 3 | | 2 | | | |
| 4 | | | | | | | | 5 |
| | | | 6 | | 8 | | | 1 |
| | 5 | | | 2 | 4 | | | |
| | 1 | 4 | | | | | | |
| | | 8 | 9 | | | 7 | | |

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Pilota handi / Bahituran hartu | | Zuhaitz mota / GOITB-ko saioa | | Euri erauntsiak / Istua, txistua | |
| | | | | | | | | |
| | | | Ohoin, ebasle / Bizkaiko herria | | | | | |
| Belardi / Serora | | Aitzur txiki / Pl., edontzi mota | | | | | | |
| | | | | | | | Kontsonantea / 48 ordu barru | |
| Bibliako pertsonaia / Arrain mota | | | | Betea / Tantaloa | | | | |
| | | | | | | Euskal fonema / Kontso. bustia | | |
| Zabalgune / Lan | | | | | | | | |
| | | | | GOITB-ko saioa (jarraitzen du) | | | | |

GOIENKARIA

## hieroglifoa

Euskal Herriko herrialdea.



## hizki salda

Leintz Gatzagako bost auzoen izenak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| S | G | S | A | R | L | A | K | E |
| A | E | T | R | U | X | U | Z | B |
| N | H | D | O | R | L | E | T | A |
| T | J | A | S | E | L | E | O | M |
| I | G | K | A | L | P | I | M | U |
| A | Z | S | R | E | A | Z | U | L |
| G | L | P | I | L | A | R | O | P |
| O | R | G | O | I | E | R | R | I |
| S | A | D | U | F | L | G | D | E |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| S | G | S | A | R | L | A | K | E |
| A | E | T | R | U | X | U | Z | B |
| N | H | D | O | R | L | E | T | A |
| T | J | A | S | E | L | E | O | M |
| I | G | K | A | L | P | I | M | U |
| A | Z | S | R | E | A | Z | U | L |
| G | L | P | I | L | A | R | O | P |
| O | R | G | O | I | E | R | R | I |
| S | A | D | U | F | L | G | D | E |

Hieroglifoa:Bizkaia.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 9 | 6 | 4 | 8 | 3 | 2 | 5 | 7 |
| 3 | 2 | 7 | 5 | 6 | 1 | 8 | 9 | 4 |
| 9 | 6 | 1 | 2 | 7 | 9 | 1 | 3 | 6 |
| 9 | 6 | 1 | 3 | 5 | 2 | 4 | 7 | 8 |
| 4 | 8 | 2 | 1 | 9 | 7 | 3 | 6 | 5 |
| 5 | 7 | 3 | 6 | 4 | 8 | 9 | 2 | 1 |
| 7 | 5 | 9 | 8 | 2 | 4 | 6 | 1 | 3 |
| 2 | 1 | 4 | 7 | 3 | 6 | 5 | 8 | 9 |
| 6 | 3 | 8 | 9 | 1 | 5 | 7 | 8 | 9 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | B | | Z | | E |
| | | | B | A | H | I | T | U |
| | | | | L | A | P | U | R |
| | B | | J | O | R | R | A | I |
| L | E | K | A | I | M | E | | J |
| | L | O | T | | A | S | E | A |
| L | A | P | A | T | I | | T | S |
| | Z | A | B | A | L | T | Z | A |
| N | E | K | E | | A | T | I | K |

## asteko horoskopoa

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Lan-kontu berriak izango dituzu berehalaxe. Horretarako, behar-beharrezkoa duzu hausnartzeko astia hartzea, zure hurrengo helburuak finkatu ahal izateko.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Une honetan, zure ingurukoekin ez duzu hartu-eman onik. Zergatik? Uste duzulako jendeak uler zaitzakeela zuk ezer gutxi esan barik, berba egin barik.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Lan-baldintzen hobetzea, soldatan eta karguan, mailaz igoko zaituzte-eta. Buruan dituzun ideia on horiek praktikan jar itzazu, emaitza ezin hobeak lortuko dituzu-eta.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Estres handia izango duzu lanean; zure lankideek ardura ugari ipiniko dituzte zugan. Horregatik, lanez gainezka izango zara. Saia zaitez hasiera-hasieratik gauzak argi uzten.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Bolada ona amodioari dagokionez; une egokia izan daiteke bikotekidearekin oraintsu izan dituzun gaizki-ulertzeak argitzeko. Eta Kirolari gogoz ekiteko momentua da.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Lanean arazoak izango dituzu, kontzentrazio falta dela-eta. Horrek eragingo du akats bat baino gehiago egitea; horren ondorioz, errieta egingo dizute.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Lana erruz izango duzu; hori dela eta, familiakoekin denbora laburragoa igaro ahal izateaz gainera, hartu-emana ere hoztu egingo da. Merezi izango du.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Buruan dituzun proiektuak atzeratu egingo dira; hori dela eta, ohikoa baino haserrekorrago jardungo duzu eta zure ingurukoei eragingo die. Zutaz aldenduko dira.

**SAGITARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Zure etxearekin zerikusia duen gastua, espero ez zenuena, egin beharko duzu, eta oraingo hileko aurrekontuak kolpe ederra jasoko du.

**CAPRICORNIUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Nahiko aste lasaia. Aprobetxa dezakezu mediku-azterketa egiteko, eta, horrela, tripetako eta eztarriko arazoak konpondu ahal izateko.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Nahiz eta jende ugari egon zure aldamenean, bakar-bakarrik sentituko zara. Lan handia izango duzu, eta galarazi egingo dizkizu horrenbeste desio zenituen oporrak.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Lagunek, ohiko gastuek eta ezusteko ospakizunen batek dirua eskuetatik kenduko dizute. Bizi-bizi ibiliko zara.

## gazte zerbitzua

**BEKAK**

**> Arte.** Bilbao Arte Fundazioa. Edozein diziplinatako egitasmo artistikoak, indibidualak edo taldekoak, burutzeko diru-laguntzak. Egitasmo hauek 2010. urtean zehar burutuko dira, lagapeneko espazioetarako 10 beka eta 10 tailerretarako bekak. Epea: azaroaren 13a.

**LANA**

**> Musika.** Musika Eskola Publikoa. "Juan Bautista Gisasola" Musika Eskola Publikoan musika-hizkuntzako irakasle-lanpostu finko eten bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Epea: azaroaren 5a.

**> Begiraleak.** Kells taldea. Ingelesa dakiten begiraleak behar ditu Kantabrian egingo den kanpamentu batean berehala lanean hasteko. Epea: azaroa amaiera bitartean.

**EKINTZAK**

**> Kontzertua.** Gaztemaniak kontzertua: Nick Oliveri + Dirty Akustik Brothers. Azaroaren 6an, 20:30ean Oñatiko Gaztelekuan. Prezioa: 5 euro.

**> Erakusketa.** *Sudurra sartzen* erakusketa, esentziak eta usain naturalak izeneko erakusketa dago ikusgai. Erakusketak bisitariei aukera ematen die, erakusgai jarritako 50 lurrinen bidez, bost zentzumenen artean ahaztuena dugun zentzumena garatzeko. Epea: azaroaren 7a.

**LEHIAKETAK**

**> Argazkiak.** *¿Nola ikusten duzu zientzia?* lehiaketa zientzia eta teknologiaren ingurukoa da. Eta bi kategoria bereizten dira, argazki kamerekin egindako argazkiak eta istrumentu zientifikoekin egindako argazkiak, mikroskopioak, X izpiak, erresonantzia magnetikoa... Epea: azaroaren 12a.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

| Astelehena, 2 | Martitzena, 3 | Eguaztena, 4 | Eguena, 5 | Egubakoitza, 6 |
|---|---|---|---|---|
|  |  |  |  |  |
| **> Arrasateko Udala eta Emaus, 'Magazinea'-n 19:45** | **> Fermin Etxegoien idazlea 'Ilunpean' saioan 22:15** | **> Hondakina birziklatu eta artelanak egin 22:15** | **> Agurne Barruso Bergarako alkatea zuzenean 19:45** | **> Bide Ertzean taldearen kontzertua 19:45** |
| Arrasateko Udalak eta Emaus erakundeak proiektu bat egin dute elkarrekin eta horren berri emango dute *Magazinea*-n. | *Autokarabana* liburuaren egile Fermin Etxegoien idazle eta esatari oñatiarra elkarrizketatuko du Jon Berezibarrek. | Hondakinak birziklatuz egindako artelanen erakusketa erakutsiko dute aste honetako *Gipuzkoa Kultura* programan. | Agurne Barruso Bergarako alkatea etorriko da *Alkateak zuzenean* saiora kazetarien eta herritarren galderak erantzutera. | Bide Ertzean taldeak Bergaran joko du zapatuan, eta hori gogoraraziko dute *Magazinea*-n asteburuko hitzordu gehiagorekin. |
| **13:15** Marrazki bizidunak. | **13:15** Marrazki bizidunak. | **13:15** Marrazki bizidunak. | **13:15** Marrazki bizidunak. | **13:15** Marrazki bizidunak . |
| **13:45** Kantari. | **13:45** Kantari. | **13:45** Kantari. | **13:45** Kantari. | **13:45** Kantari. |
| **14:15** Eltze beroa. | **14:15** On Ein. | **14:15** Udazken loreak. | **14:15** Eltze beroa. | **14:15** On ein. |
| **14:45** Berriak. | **14:45** Berriak. | **14:45** Berriak. | **14:45** Berriak. | **14:45** Berriak. |
| **15:15** Sakonduz. | **15:10** Harmailatik. | **15:10** Ilunpean. | **15:15** Gipuzkoa kultura. | **15:15** Ur eta Lur. |
| **15:45** Ikusmira. | **15:50** Ikusten. | **15:50** Sakonduz. | **15:45** Kalekantoi. | **15:45** Itsasoari begira. |
| **16:15** 28 Klip. | **16:20** Itsasoari begira. | **16:20** 28 Klip. | **16:15** Ikusmira. | **16:15** Ikusten. |
| **16:45** Berriak. | **16:45** Berriak. | **16:45** Berriak. | **16:45** Berriak. | **16:45** Berriak. |
| **17:15** Marrazki bizidunak. | **17:10** Marrazki bizidunak. | **17:15** Marrazki bizidunak. | **17:15** Marrazki bizidunak. | **17:15** Marrazki bizidunak. |
| **17:45** Kalekantoi. | **17:35** Wazemank. | **17:35** Harmailatik. | **18:00** Sakonduz. | **18:00** Ilunpean. |
| **18:15** Ilunpean. | **18:15** Gipuzkoakultura. | **18:15** Ur eta lur. | **18:45** Berriak. | **18:45** Berriak. |
| **18:45** Berriak. | **18:45** Berriak. | **18:45** Berriak. | **19:15** Marrazki bizidunak. | **19:15** Marrazki bizidunak. |
| **19:15** Marrazki bizidunak. | **19:15** Marrazki bizidunak. | **19:15** Marrazki bizidunak. | **19:45** Goiena Magazinea. | **19:45** Goiena Magazinea. |
| **19:45** Goiena Magazinea. | **19:45** Goiena Magazinea. | **19:45** Goiena Magazinea. | **20:45** Kantari. | **20:45** Kantari. |
| **20:45** Kantari. | **20:45** Kantari. | **20:45** Kantari. | **21:15** Goiena Magazinea. | **21:15** Goiena Magazinea. |
| **21:15** Goiena Magazinea. | **21:15** Goiena Magazinea. | **21:15** Goiena Magazinea. | **22:15** Puntuz Puntu. | **22:15** Sakonduz. |
| **22:15** Harmailatik. | **22:15** Ilunpean. | **22:15** GipuzkoaKultura. | **22:45** Erreportajea. | **22:45** Udazken loreak. |
| **23:00** Gipuzkoakultura. | **23:00** Wazemank. | **23:00** Kalekantoi. | **23:20** Itsasoari begira | **23:15** Kale kantoi. |
| **23:30** Goiena Magazinea. | **23:30** Goiena Magazinea. | **23:45** Goiena Magazinea. | **23:45** Goiena Magazinea. | **23:45** Magazinea |
| **00:30** Emisio amaiera. | **00:30** Emisio amaiera. | **00:45** Emisio amaiera. | **00:45** Emisio amaiera. | **00:45** Emisio amaiera. |

## arrasate irratia

FM 107.7

**> Arrasate Irratia**
**10:00**

Gipuzkoako Kantu Txapelketako saio bat zapatuan, azaroak 7, izango da Arrasateko Amaia antzokian eta Arrasateko kanporaketa horretarako sarrerak zozketatuko dituzte Arrasate Irratiko *Igo autobusera* irratsaioan. Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatu du txapelketa hori eta eguaztenean kide bat elkarrizketatuko dute.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneko oharrak...
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com* )
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Uda Giroan
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## telealbisteak

**GOITB** > 'MAGAZINEA'

# Ekonomiari buruzko informazioa emango dute astelehenero, gaur hasita

Martitzenean, berriz, Zubillagako hiltegiaren etorkizuna argitzeko Mankomunitateak prestatutako plana azalduko dute

**O.E.** > ARRASATE

Ekonomiari buruzko informazioa emango dute astelehen guztietan GOITBko *Magazinea* programan. Gaur izango da diru kontuei bereziki zuzendutako lehen tartea eta aurrerantzean astelehenero emango dute.

Txomin Madina kazetari oñatiarrak aurkeztuko du tarte hori, eta, haren esanetan, ekonomiarekin lotutako albisteak jorratuko dituzte, baina gertutasunetik ikusita. "Albiste pare bat, gutxi gastatzeko aholkuak eta dirua aurrezteko errezeta bat emango ditugu saio bakoitzean. Adibidez, azalduko dugu nola aurreztu umeen pixoihaletan edo nola dekoratu etxe berria diru gutxirekin", dio Madinak.

**ZUBILLAGAKO HILTEGIA**

Bestalde, bihar, martitzena, Zubillagako hiltegiaren etorkizuna bermatzeko Mankomunitateak aztertu duen proiektuaz hitz egingo dute *Magazinea*-n. Hiltegiko batzordeko buru Pedro Iturbe joango da GOITBko estudioetara plan hori azaltzera. Kudeaketa publikoaren alde egin du Mankomunitateak eta horren esanahiaz eta zehaztapenez hitz egingo du Iturbek.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

**ORDUTEGIA:** Astelehenetan itxita. Asteartetik ostiralera 10:00-19:00 eta asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00

**PLANETARIUM BERRIA**

**Kupula osoan proiektatzen diren erresoluzio handiko irudi ikusgarriak.**
**Saioak**
Asteartetik ostiralera: 17:30 (eusk.) eta 18:00 (gazt.)
Asteburu eta jai-egunetan: 12:00(eusk.), 13:00 (gazt.), 15:30 (fran.), 17:00 (eusk.), 18:00 (gazt.)

**Eboluzioa** (Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu)
**Biziaren Jatorria** (Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa)
**Infinity Express** (Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia)
**Kartoizko Suziriaren Jatorria** (Haurrei zuzendutako saioa)
**Donostiatik zerura begira** (Zuzeneko saioa. Ikas ezazu gurekin zeruko objektuak ezagutzen eta disfruta ezazu Astronomiaz)
**Itsua izar begiekin** (Ipuin animatu bat, non itsu batek eta tirano batek, unibertsoaren ezagupenera hurbilduko gaituzten)

**HITZALDIAK**

**- Azaroak 4**, 19:30ean: "Zelula Amen ikerketa. Gauzak argi eta garbi". Hizlariak: Gurutz Linazasoro eta Charo Sánchez. Sarrera doan aforoa bete arte.

**- Azaroak 10**, 19:00tan: "Snowboard pistaz kanpo Las Leñasen (Argentina). Zientzia, Hezkuntza eta Kirola". Hizlariak: Pablo eta Javier Martínez

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

kutxa | www.kutxasocial.net

## zorion agurrak



OÑATI
**Maddalen Arenaza Agirre**
Urriaren 26an, 9 urte. Zorionak, *wapixima*! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna etxekoen partetik.



ANTZUOLA
**Amaiur Legorburu Rodriguez**
Urriaren 27an, 7 urte. Zorionak, Aiora eta beste inguruko danen partetik.



ARETXABALETA
**Maider Ortiz de Zuñiga**
Urriaren 28an, 30 urte. Urte askotarako, polittori! Ea azkar sendatzen naizen eta afaritxo batekin ospatzen dugun! Ondo igaro eguna.



ESKORIATZA
**Patas Etxebarrieta**
Urriaren 29an, 45 urte. Zorionak zure urtebetetzean, zorionak belarritik tira egiñez, zorionak eta muxuak zuretzako! Ondo izan, *viejo*!



ARRASATE
**Ane Diaz de Tuesta**
Azaroaren 2an 22 urte. Aurten etxetik kanpo bazaude ere, beti zaude gertu. Ondo-ondo pasatu eta muxu handia.



OÑATI
**Maria Luisa Aramburu**
Urriaren 29an, 68 urte. Zorionak, ama! Oso ondo pasatu eguna eta zelebrauku bazkari eder batekin. Etxekuak.



ARETXABALETA
**Nerea Zubizarreta**
Urriaren 30ean, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, *prexioxa*! Ederto ospatukou danok batera zure eguna. Ondo-ondo pasatu! Patxo erraldoi bana Araitz eta Doltzaren partetik. Pa!



ARRASATE
**Pablo Rodriguez Sancho**
Urriaren 30ean, 45 urte. Zorionak Salamankan bizi den familiakoen partetik.



OÑATI
**Iñaki Igartua**
Urriaren 30ean, 29 urte. Zorionak, Iña, eta urte askotarako! Zapatuko afaixa zure kontu? Ondo pasatu eguna etxeko danon partetik! Patxo bat!



OÑATI
**Uxue Egaña Azkargorta**
Urriaren 30ean, 7 urte. Zorionak, *peke*! Oso ondo pasatu zure eguna eta ia erregalo asko jasoten dozun! Zorionak etxeko danen partetik! Oso ondo pasatu!



OÑATI
**Enaitz Kortabarria**
Urriaren 30ean, 2 urte. Zorionak, *potxolo*! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi-handi bat etxeko danon partetik.



OÑATI
**Xubane Arregi**
Urriaren 30ean, 3 urte. Zorionak, polittori! Ondo-ondo pasatu zure urtebetze eguna eta patxo potolo-potolo bat zure familikuen partetik. Mua!



BERGARA
**Mireia Sebal Lazpiur**
Urriaren 30ean, 8 urte. Urte askotarako, politxoi! Patxo potolo bat danon partetik. Eguna ona pasatu!



ARETXABALETA
**Asier Lizarriturri**
Urriaren 30ean, 35 urte. Zorionak eta urte askotarako, aitatxo! Mila patxotxo goxo-goxo zure etxeko bi printzesatxuen partetik. Ondo pasatu eguna! Araitz eta Doltza.



BERGARA
**Ane Jauregi Elorza**
Urriaren 31n, 2 urte. Zorionak eta pa txiki asko, Ane, laguntxo danon partetik.



ESKORIATZA
**Lierni Altuna**
Azaroaren 1ean, 36 urte. Zorionak! Musu asko! Ondo pasatu!



ARRASATE
**Julen Villar Jimenez**
Azaroaren 2an, urtebete. Zorionak familia eta zure lagun Maialen, Alazne eta Aitorren partetik.



ESKORIATZA
**Goiatz Arana Larrañaga**
Azaroaren 3an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Muxu handi bat Jauritxikitik eta ondo pasatu zure 4. urtebetetzea. Zure txokolatadaren zain gaude!



ARRASATE
**Nagore eta Aimar Garitaonaindia**
Azaroaren 3an, 6 urte. Zorionak zuen urtebetetze egunean, etxeko danon partetik, baita Kosk txakurrari ere. Ondo pasatu eguna eta merendolan barre asko egin!



ARRASATE
**Maider Frutos Uribesalgo**
Azaroaren 3an, 5 urte. Zorionak, prexioxi! 5 urte jada gure neskak. Patxo pila etxekuen partetik.



ARRASATE
**Lola Lopez**
Azaroaren 3an, urtebetetzea. Zorionak, amama! Ainhitze eta Arkaitzen partetik.



OÑATI
**Karlos Idigoras**
Azaroaren 3an, 56 urte. Zorionak eta urte askotarako, tio! Bazkaixa gertu egongo da, baina pastelak zure kontu, eh? Ondo-ondo pasatu eguna eta mila muxu etxeko danon partetik.



OÑATI
**Maddi Igartua**
Azaroaren 3an, 6 urte. Zorionak etxekoen partetik.



BERGARA
**Josu Martínez Loiti**
Azaroaren 4an, 5 urte. Etxekoen partetik, zorionak!



ARAMAIO
**Ainhoa Vilches Beitia**
Azaroaren 4an, 10 urte. Zorionak eta patxo handia. Ondo pasatu urtebetetze eguna. Etxekoen partetik.



OÑATI
**Maia Olalde Galdos**
Azaroaren 4an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure bosgarren urtebetetze egunean. Muxu potolo bat Naroa, aitatxo eta amatxoren partetik.



ARRASATE
**Garazi Azkarate Ojanguren**
Azaroaren 4an, urtebete. Zorionak eta urte askotarako! Lideren eta Oihan eta Hegoi lehengusuen partetik.



ARRASATE
**Maxi Andres**
Azaroaren 5ean, 58 urte. Zorionak *calamar*, Patxi, Aitor eta Yoliren partetik. Ondo pasatu. Noizko afaria?



OÑATI
**Ane Anduaga**
Azaroaren 5ean, 10 urte. Zorionak, printzesa. Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu asko etxekoen partetik.



ARRASATE
**Laia Etxagibel Ruidiaz**
Azaroaren 5ean, urtebete. Zorionak eta muxu handi-handi bat denon partetik zure lehenengo urtebetetzean.



ESKORIATZA
**Gentzane Andetxaga Korujo**
Azaroaren 5ean, 5 urte. Zorionak, *prexioxi*. Ondo pasatu zure eguna. Muxu potolo-potolo bat ama, aita eta Oinatzen partetik. Muak!



ARRASATE
**Eñaut Bergaretxe**
Azaroaren 6an, 10 urte. Zorionak eta patxo pila bat familia guztiaren partetik, *futbolero*!



ESKORIATZA
**Jokin Alonso**
Azaroaren 6an, 44 urte. Zorionak, zure urtebetetzean, zorionak, belarritik tira egiñez zorionak eta musuak zuretzako! Maddi eta amatxo.



OÑATI
**Asier Anduaga**
Azaroaren 6an, 5 urte. Zorionak, txapeldun. Oso ondo pasatu zure eguna eta muxu pila bat zuretzat Ane, aitatxo eta amatxoren partetik.

BERGARA
**Maddi Arando Arbelaitz**
Azaroaren 6an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik. Ondo pasatu eguna.



ARAMAIO
**Ander Aspiazu**
Azaroaren 6an, 3 urte. Zorionak eta patxo handia Aneren partetik.

ESKORIATZA
**Ainhoa Kortazar Arana**
Azaroaren 6an, 30 urte. Zorionak zuri! Zorionak beti! Zorionak Eskoitzako jendian partetik! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo potolo bat! muaks.



ESKORIATZA
**Ane Eraña**
Azaroaren 7an, 10 urte. Patxo handihandi bat zure familia eta lagunen partetik.



BERGARA
**Ekain Legazpia**
Azaroaren 8an, 3 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen partetik!



OÑATI
**Izar Kortabarria Suarez**
Azaroaren 8an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, printzesa. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna, etxekoen partetik.



OÑATI
**Iker Igartua Kortabarria**
Azaroaren 8an, 6 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen partetik. Ondo pasatu zure eguna!



ARETXABALETA
**Liher Moneo Quiros**
Azaroaren 8an, 5 urte. Zorionak, Liher, etxekoen partetik. Muxu handi bat eta ondo-ondo pasatu zure egunian.

# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera.

**Eskelaren prezioa: 110 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.

**Goienkaria: astero, 39.000 irakurle (CIES).**




ESKELA

## Jose Luis Txintxurreta Etxeberria

Josu Txintxurreta Goienako langilearen aita

2009ko urriaren 30ean hil zen, 64 urte zituela.

GOIENAk bat egiten du
senideen saminarekin.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Aretxabaletan, 2009ko azaroaren 2an.

ESKER ONA

## Jose Luis Txintxurreta Etxeberria

2009ko urriaren 30ean hil zen, 64 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2009ko azaroaren 2an.

## asteburuko albuma

**Mezu bereziak.** Egubakoitz gau eta zapatu goiz artean Arrasateko auto askotan isunak agertu ziren, baina ez ziren ohiko isunak, mezuak baizik: *Egin irrifarre bat, Gaur egun ederra izango da...* Horrez gain, Portaloian, Arbolapetan eta Biteri plazan hainbat kartel zintzilikatuta agertu ziren honako mezuekin: *Sinistu, Musukatu, Besarkatu...* Herritarrak harrituta daude. Ekintza artistiko bat izango da?





**Atxorrotzera zuloak estaltzera.** Atxorrotzen egindako indusketek utzitako zuloa estaltzera joan ziren zapatuan Eskoriatzako 20 bat lagun. Auzolanean eta harez betetako kuboekin indusketak egin diren tokiraino joan eta hasi ziren zuloa tapatzen. Izerdi ederrak bota zituzten!



**Toyota Euskoauto eta Lagun Aro Gipuzkoa Basket.** Auto kontzesionarioak eta saskibaloi taldeak hitzarmena egin dute. Argazkian Toyota autoko gerenteak eta Lagun Aro Gipuzkoa Basketeko jokalariak ageri dira, hitzarmena sinatu zuten unean. Tartean, Patxi Irastorza eta Andoni Erdabide Bergarako Toyota Euskoautoko gerente eta saltzailea ageri dira.

## jaiotakoak



**Oier Anduaga Urtzelai**
Oñati > 4,000 kilo. Urriaren 25ean. Gurasoak: Amaia (Oñati) eta Xabier (Oñati). Argazkian, Oier jaioberria, sehaskan lo.



**Daniela Perez Etxebarria**
Arrasate > 3,100 kilo. Urriaren 28an. Gurasoak: Cristina (Otxandio) eta Raul (Otxandio). Argazkian, Daniela jaioberria, amarekin.



**Telma Miguel Inza**
Oñati > 3,200 kilo. Urriaren 27an. Gurasoak: Beatriz (Oñati) eta Carlos (Oñati). Argazkian, Telma jaioberria, sehaskan lo.



**Aitzol Mujika Barrutieta**
Iurreta > 3,070 kilo. Urriaren 27an. Gurasoak: Patricia (Iurreta) eta Iban (Iurreta). Argazkian, Aitzol jaioberria, Jose Mari aititegaz.



**Izaro Urkia Garcia**
Aretxabaleta > 3,280 kilo. Urriaren 26an. Gurasoak: Mari Karmen (Aretxabaleta) eta Inaxio (Aretxabaleta). Argazkian, Izaro jaioberria, sehaskan lo.



**Danel Gomez Barrena**
Oñati > 3,750 kilo. Urriaren 29an. Gurasoak: Agurtzane (Oñati) eta Igor (Oñati). Argazkian, Danel jaioberria, sehaskan lo.


BABESLEA



IKUSI MAKUSI

Umeen paradisua

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Goienkaria ASTELEHENEKO

EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2009-11-02

**Fermin Etxegoien** > Kazetaria eta idazlea

# "Oñatin kokatzen da liburua, ezkutatu barik"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

**Azalean bertan sentitzen duen horrek bakarrik izan dezakeen zorroztasunarekin begiratu dio inguruari Etxegoienek azken liburuan: *Autokarabana*. Oñatiarraren lehen fikziozko lana da, baina irakurleak ondo baino hobeto ezaugutuko duen inguruan lekutu du, batez ere debagoiendarra izanez gero.**

**Leku komunak aurkituko ditugu liburuan. Bertako edozeinendako oso ezagunak.**

Sorterrian kokatzen den liburua da, nahiz eta Oñati herria aipatzen ez den. Zertarako ezkutatu, Oñatiri buruzko horrenbeste pista egonda? Hasieratik neukan ideia da herria bera ez aipatzea. Horrek ere ematen zidan aukera Oñatin bertan ez dauden gauzez hitz egiteko. Sinbolikoki ere badago tabuaren inguruko zerbait. Ez baduzu esaten, misterioari heltzen diozu.

**Zu, baina, aspalditik bizi zara Bilbon. Distantziatik idatzitako liburua da?**

Distantziak geroago eta laburragoak dira, zentzu guztietan. 25 minutuan bertan bazaude, ez dago distantziarik. Ez da Ameriketako Estatu Batuetan moduan, Seattle-en jaio eta Chicagon bizi zarela. Oñati eta Bilbo bi mundu dira, zalantza barik, baina aukera dugu bietan bizi izateko.

**Oñatiarrek, gainera, nonahi bizita, beti daramazue etxeko marka zuekin?**

Orografiak ere markatu ahal izan gaitu eta horren adierazpen psikologikoa ere izan daiteke. Liburuan, hustutako sindromearen ideia aipatzen da, baina hori ere bizitzaren garai bati dagokio eta gainditu egiten da.

**Protagonista liburuan oso kritikoa da haren inguruarekin. Haren ahotan jarritakoen inguruko azalpen asko eman behar izan dituzu?**

Noski, protagonista fikziozkoa da, baina fikzio hori neure bizipenetan oinarritzen da. Kartak, baina, asko nahasi ditut. Errealitatean nireak diren gauza edo ezaugarri batzuk beste pertsonaia batzuengan jarri ditut, eta alderantziz. Bertan dauden hitz eta hausnarketak, baina, badira, ezinbestean, mundu errealaren gainekoak: kooperatiba, euskara, herria... Gero eta azalpen gehiago eman behar izaten ditut. Liburua irakurria izaten dabilen seinale.

**Hain gauza gertukoez idaztea eroso zaizu?**

Horrexegatik egin dut. Fikzioan ere onena da norberak ondo ezagutzen horri buruz idaztea. Lotsa edo pudore hori egon daiteke, baina nire kasuan gustuko dut.

### TESTA

**Jaioterria:** Oñati. **Adina:** 43 urte. **Bizilekua:** Bilbo. **Liburuak:** *Neurona eta Zeurona* saiakera eta *Autokarabana* eleberria. **Liburutik jendea harritu duena:** Kooperatibismoaz idatzi izanak kanpoan sortzen duen jakin-mina eta baita morboa ere. **Zeu harritzen zaituen zerbait:** 20-30 urteren ostean, Oñatiko ume guztiak euskaldunak direla. Ume guztiz erdaldunak ginen gu, gure historian doa, eta egungoa miraria iruditzen zait.



LIBURUA *Autokarabana* fikziozko lehen eleberria du. OIHANE ISASI

## ai, ene!



### Begiradak gosaltzeko

Milaka begirada euren atzetik dutela uste duten neurotikoendako ez da gosari formala izango, baina umorez eta goizean goizetik egunonak barra barra eman gura dituenarentzat, konpainia ezin hobea dudarik gabe.

http://www.sarda.es

## biharamuna

Marijo Deogracias

### Malo

Barikuan Legebiltzarrean hizkuntza ereduen gaineko enegarren eztabaida izan zen, PPko **Oyarzabal**en eta UPyDko **Maneiro**ren eskutik. Harrigarriena, ordea, ez da biak euskara politizatzen tematzea. Harrigarriena da **Aurrekoetxea**k, EAJk, eta **Larrazabal**ek, EAk, eurekin eta PSErekin adostu zutena. Jaurlaritzari eskatzen zaio "familien hizkuntza aukeratzeko askatasuna benetan" bermatzea hezkuntza epe guztietan. Eta Haurreskolak Partzuergoak ama hizkuntza betiere errespeta dezala.

Hau idazteko Aralarreko **Mikel Basaberen** berbak errepasatzen aritu naiz, ze, erabakion kontra egin zuen bakarra izanik, helburuak ekarri zituen gogora: helburua herritar elebidunak egitea bada, bidaialagun arriskutsuak hartu dituzte EAJk eta EAk. Ahaztu egin dute, gainera, gurasoen "benetako" aukera orain ere segurtatzen dela hezkuntza sisteman, eta ahaztu Haurreskoletan murgiltze-eredua ezartzea ez zela kapritxoa, elebitasun hori lortzeko biderik eraginkorrena baino. **Basabe**k defendatu zuenez, "funtsezkoa da hizkuntza gutxitua izatea hizkuntza nagusia Haurreskolak partzuergoan". **Urkullure**nak "no obstaculizar" erabakia muturreraino eramatea erabaki badu, malo. Ta, malo ere, PPk Lopez gobernuan jartzea aprobetxatzea euskararen kontra jarduteko.



## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
| --- | --- |
| +12 | +09 |

Euria egingo du, hala ere, gehien nabarituko duguna, tenperaturaren beherakada izango da. haizeak zakar joko du

www.euskalmet.net

